


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

Gradua: EAZ eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza (Zuzenbidea)

2018-2019 ikasturtea

Auzibarneko Bitartekaritza Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Alorrean: Muga eta Aukerak

Lanaren egilea: Aritz Eguren Gurruchaga

Zuzendaria: Ixusko Ordeñana Gezuraga

Durangon, 2019ko otsailaren 18an

AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| LABURPENA: | 2 |
| LABURDURAK: | 3 |
| 1. Sarrera | 4 |
| 2. Arauketaren markoa eta gaur eguneko egoeraren azterketa | 7 |
| 2.1. Esparru ezberdinen araudi analisia | 7 |
| 2.2. Bitartekaritza gainerako jurisdikzio ezberdinetan | 15 |
| 2.3. Nazioarteko kasua | 17 |
| 2.4. Auzibarneko bitartekaritzaren erabilera datuak | 19 |
| 2.5. EAEko datuak, Eusko Jaurlaritzaren erabakiak | 23 |
| 3. Administrazio zuzenbidearen esparruan | 24 |
| 3.1. Interes orokorra | 24 |
| 3.2. Ahalmen arautuak eta diskrezionalak | 26 |
| 4. Subjektu parte hartzaile posibleak | 30 |
| 4.1. Publiko, pribatu, mistoa | 30 |
| 4.2. Justizia Administrazioaren Letratuak | 31 |
| 4.3. Epailea | 35 |
| 4.3.1. Kasuaz ezagutzen duen epailea | 35 |
| 4.3.2. Beste epaile bat | 37 |
| 4.4. Hirugarren subjektuak: abokatuak eta abokatuen elkarteak | 39 |
| 4.5. Herriaren defendatzailea | 41 |
| 4.6. Prokuradoreak | 44 |
| 4.7. Bestelako elkarte eta organoak | 45 |
| 5. Momentu prozesalaren aukeraketa | 47 |
| 6. Ezarpenaren gaineko arazoak | 53 |
| 6.1. Kultura eta formakuntza | 53 |
| 6.2. Derrigorpen eza eta borondatezkotasunaren motibazioa | 55 |
| 7. ADR: onurak zein eragozpenak | 58 |
| 7.1. Erraztasuna, azkartasuna eta ekonomikoki eraginkorragoa | 58 |
| 7.2. Kostuen murrizketa | 59 |
| 7.3. Egokitasuna eta gertutasuna, bai forma zein emaitzan | 61 |
| 7.4. Konfidentzialtasun gabezia: dokumentuen aurretiazko erakusketa | 62 |
| 7.5. Lankargaren murrizketa | 63 |
| 8. Ondorioak: | 63 |
| BIBLIOGRAFIA | 69 |
| JURISPRUDENTZIA: | 73 |

LABURPENA:

Lan honetan zehar *Alternative Dispute Resolution (ADR) edo Gatazkak Ebazteko Bestelako Bideak (GEBB)* espainiar estatuko ordenamendu juridikoan duten presentzia gorakorra dela eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren harira, auzibarneko bitartekaritzak duen txertatzea eta garapen aukerak aztertuko dira. Honela, auzibarneko bitartekaritza honen inguruko elementuen gaineko garapen bat burutuko da.

Horretarako gaur egunean existitzen den araudiak eskaintzen dituen bide ezberdinak aztertuko dira, bitartekaritza mundura bideratu daitezkeen gai transakzionalak, bitartekaritza burutzeko une egokia, bitartekari izateko aukera duten subjektuak, honen txertatzearen inguruko arazoak eta gatazkak ebazteko bestelako bideak, eta bereziki auzibarneko bitartekaritzak ezartzearen onurak zeintzuk diren aztertuko direlarik. Hein honetan, justiziaren administrazioiko letratuak bitartekaritzari dagokionez izan dezaketen paper protagonistaren alde egingo dugu, bitartekaritza unitate bereizi baten sorrera hobetsiz.

Hitz gakoak: *Bitartekaritza, ADR, Gatazkak Ebazteko Bestelako Bideak, Auzibarneko Bitartekaritza judiziala, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa, Justizia Administrazioaren Letratuak (Idazkari Judiziala), Ombudsman, Prokuradorea, Abokatuak, Auziaz ezagutzen duen epailea.*

ABSTRACT

The aim of this report is to analyse the limits and possibilities of the *Alternative Dispute Resolution (ADR)* methods specifically within the in-court mediation in the Contentious-Administrative Jurisdiction, due to the raising use and promotion of these tools in the legal system.

To this effect, the existing poor regulatory framework is going to be scrutinised, as well as the topics and judicial matters that can be resolved using these tools, the proper procedural time to hold the event, the different subjects that could practise as mediators, the problems of the implementation of the ADR and the possible advantages they could bring out. Thereupon the idea of implementing the figure of the administrative justice's counsel, the previously so-called judicial secretary, as a part of a differential mediation unit is going to be backed.

Key words: *Mediation, ADR, Alternative Dispute Resolution, In-court Mediation, Contentious-Administrative Jurisdiction, Administrative Justice's Counsel (Judicial Secretary), Ombudsman, solicitor, lawyer, Matter knowing judge.*

LABURDURAK:

AAJL - Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen 29/1998, Uztailaren 13ko Legea

ADR – Gatazkak Ebazteko Bestelako bideak (Alternative Dispute Resolution)

AG – Auzitegi Gorena

APEL – Administrazio Prozedura Erkidea Arautzen duen 39/2015, Urriaren 1eko Legea

BJKN – Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

BJLO – Botere Judizialaren 6/1985, Uztailaren 1eko Lege Organikoa

BJZ – Bitartekaritza Judizialeko Zebritzua

EAAZ – Ekonomia-Ardurularitzako Auzitegi Zentrala

EAE – Euskal Autonomia Erkidegoa

EATE – Ekonomia-Ardurularitzako Tokiko Epaitegia

ED – Errege Dekretua

EEAA – Eskualdeko Ekonomia Ardurularitzako Auzitegia

EHU – Euskal Herriko Unibertsitatea

EJ – Eusko Jaurlaritza

EK – Espainiar Estatuko Konstituzioa

GEMME – Bitartekaritzaren aldeko Magistratuen Europear Taldea

IEMEP – Europar Bitartekaritza eta Etika Publikoko Institutua

INAP – Administrazio Publikoaren Institutu Nazionala

JAN – Justizia Auzitegi Nagusia

KA – Konstituzio Auzitegia

LJL – Lan Arloko Jurisdikzioaren 36/2011, Urriaren 10eko Legea

LO – Lege Organikoa

Op.cit. – opere citato - Aurretik Aipatua

PZL – Prozedura Zibileko 1/2000, Urtarrilaren 7ko Legea

RAC – Gatazken Ebazpen Alternatiboa

UNED – Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala

1. Sarrera

Gizartea eraldatuz doa, etenik gabe; aurrera zein atzera, ikuspuntu zein ideologia eta esperientzia propioen arabera, beharrak aldatuz doaz eta errealitate berriak sortuz. Errealitate berri hauetan, zuzenbide eta justiziak protagonista paper bat eskuratu behar dute, kontzeptu biak printzipio, balore eta ideia ezberdinekin uztartuz, gizartean sorturiko beharrei aurre egin beharko dizkiete. Eskema zaharrak apurtuz prozedurak moldatuz joan beharko dira, historikoki eginikoa kontuan hartuz, etorkizunerako justiziaren oinarriak finkatuz joan beharko delarik botere legegilea, bitartekaritza bezalako gatazkak ebazteko bide ezberdinen txertatzearekin batera.

Bitartekaritza bakea eta elkarrizketa uztartzen dituen baliabidea dela argitu beharra dago, justiziak sarritan galdatzen dituen antzerti-formatatik kanpo, baina era osagarri baten lez jarduten duena, justizia tradizionalak jasotako higadura, konplexutasuna, argitasun gabezia, geldotasuna eta urruntasunari aurre egiteko baliagarria dena. Honek ordea, ez du esan nahi bitartekaritzak berez Epaitegi zein Auzitegien kontrara jarduten duela, hauek izango baitira beti azken maila batean justiziaren bermatzaileak, osagarri moduan jarduten baitu, bide judizialera bertara heldu beharko ez ziren gai askoren aurretiazko ebazpena ekarri dezakeelarik. Halere, bere inplantazio eta aplikazioak oraindik arazo askori aurre egin behar dizkio, ordenamendu juridikoak ez baitie bere jasotzaileei prozedura honek ahalbidetu ditzakeen onura guztiak jasotzen uzten, kontzeptuaren beraren hedapen eta araudi urriaren ondorioz.¹

Ez da bitartekaritza, ondorioz, prozesu judizialekiko alternatiba gisara ulertu behar, baizik eta gatazken ebazpena burutu ahal izateko existitzen diren metodo ugarien uztartze baten modura, auzi zehatz batzuei dagokienez aplikagarri eta eraginkorra izan daitekeena. Dударik gabe, Justizia Administrazioari osagarria eta ez alternatiboa suerta dakion sistema baten aurrean kokatzen gara, faltsutzat kontsideratu behar dugularik jurisdikzio

¹ Honela aitortzen du artikulu honetan Santiago de Compostelako Unibertsitateko kide den RODRIGUES, Catarina-k, "La mediación. ¿Una respuesta al nuevo paradigma del Derecho? *Revista de Derecho (UCUDAL)*, 13. urtea, 15. Zenbakia, 2017ko uztaila, 244-256. orrialdeak

eta gatazkak ebazteko bide alternatiboen arteko konparaketa egitea, aurrebaldintza prozesal eta metodologiko ezberdinetatik eratorri egiten baitira biak.²

Gatazkak Ebazteko Bide Alternatibo hauek administrazioaren egitate eta jardunei tradizionalki egin zaion kontrolari osagarriak izan daitezkeela adierazi beharra dugu, gaur egunean administrazioaren tradizio eta jatorriaren ondoriozko murrizketetan oinarritutako erresistentzia handia eta higiezintasunezko sistema dela medio, zailtasun ugari izan dituelarik gizarteak berak tresna hauek ordenamendu juridikoak onartu ditzan. Hinki-hanka eta zailtasun hauek, Espainiar Estatuko Konstituzioak (hemendik aurrera EK laburduraren bidez ordezkaturia) berak ezarritako mugei jarraiki; legezkotasunaren errespetua, interes orokorraren babesa eta jardunaren kontrol juridikzionala besteak beste, bitartekaritzaren ezarpenaren kontra egin duten elementuak dira.³

Egokiagoa dirudi gaur eguneko errealitatera mugaturik baliabide tekniko hauei beste kontzeptu aproposago bat ezartzea, alternatibo hitzaren presentzia murriztearekin batera integrazioa kontzeptuaren alde eginez, Botere Judizialaren kategoriarekin alderagarriak ez direlarik. Nolanahi ere, hainbat autorek, besteak beste ESPARZA LEIBAR-ek, kontzeptu bereizi baten sorreraren alde egiten dute, *Gatazken Ebazpen Integrala* terminoaren barnean gaur eguneko zein etorkizuneko prozesu barnean zein kanpoan txertaturiko kalitatezko justizia baten lorpena bilatzeko erabilitako instrumentu oro bertan kokatuz.⁴

Bitartekaritza, justiziak berez inplizituki dakarren burokrazia eta protokolizazioari aurre egiteko instrumentu baliagarria izan daiteke, prozedura eta araudien geroz eta gehiagoko

²Ildo honetatik gomendagarria hurrengo lana; LOPEZ-BARAJAS PEREA, Inmaculada “La efectividad de la justicia: Una exigencia constitucional (los nuevos sistemas alternativos de resolución de conflictos)”, *UNED – Revista de Derecho Político*, 85. Zenbakia, 2012ko iraila-abendua, 141-170 orrialdeak.

³Zaragozako Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko irakasle titularra den ESCARTIN ESCUDÉ, Victor doktoreak, ildo honetatik ADR sistemen zailtasunen berri eskaini egiten du artikulua honetan, “Los nuevos mecanismos de control y resolución extrajudicial de conflictos en derecho administrativo. En especial: el arbitraje administrativo” AGUDO GONZALEZ, Jorge (zuzendaria), *Control administrativo y justicia administrativa*, INAP, 179. orrialdea

⁴EHUko irakasle den ESPARZA LEIBAR, Iñaki-k, urtero fakultatean antolatzen diren jardunaldietan termino berri honen txertatzearen alde egin zuen, “El modelo clásico de poder judicial como elemento indispensable para la consecución de la justicia en la resolución de conflictos. La contribución de la RAC/ADR” ESTANKONA ETXEBARRIA, Katixa; ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko (Zuzendariak) *La resolución alternativa de conflictos*, *Segunda edición de las Jornadas “Justicia con ojos de mujer” celebradas en la Facultad de Derecho de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea el 26 de noviembre de 2009*, “, EHU Argitalpen Zerbitzua, 2010. urtea, 53-74. orrialdeak

konplexutasuna zein hiritarrok jasan dezakegun kostu emozional eta ekonomikoaren aurrean, justiziaren kontzeptu eta idealetik urundu ez gaitezen.

Oro har, bitartekaritzaren ondoriozko elkarrizketaren bidez, alderdiei gatazkaren inguruko eztabaida osasuntsu bat izateko aukera eskaini egiten zaie, gatazkaren sorlekua zein den aztertu eta horren inguruko konponketa edo hobetze konpromezu bat lortzeko aukera zabalduz. Hari beretik, bitartekaritzan parte hartzen duten subjektuek, erantzukizun zein konpromezuaren inguruko obligazioak jaso egiten dituzte, justizia sentimendu baten presentzia areagotuz.

Hasiera batean bitartekaritza prozesuez baliatuz gatazken gehiegizko eta ia abusuzko judizializazioa eten eta epaitegi zein auzitegien lan karga murriztea zen helburu, sistema judizialean barneratuta dagoen geldotasunaren patologia alde batera utzi al izateko elementu gisara. Halere, gaur egunean, bitartekaritzak nortasun propioa bereganatu duela aldarrikatu beharra dago, sozial eta juridikoki berariaz onartua dagoena. Gatazken aurrean gizartearen beharrei moldatzeko duen gaitasuna eta bere burutzean zehar betetzen diren gardentasun zein partaidetza printzipioetan oinarrituta, nahiz eta zenbait arlo juridikoetan eta zenbait subjektu juridikori dagokionez aplikazioaren kontrako ahotsak ugariak existitu daitezkeen arren, batzuk arauaren zuzeneko aplikazio esplizituaren alde egin dezaketeenak, oso baliabide eraginkorra bihurtzeko aukera daukala adierazi beharra daukagu.

Auzibarneko bitartekaritza ez da berez prozesuaren alternatiba bat, baizik eta Justizia Auzitegien jarduera mota berri bat non auzibidearen barnean, alderdiei adosturiko akordio batera heltzeko aukera eskaini egiten zaien. Eta guztiz zentzuzkoa lantzen diren gaiak esfera osoki pribatu bat gainditu eta interes publiko eta orokorrak existitzen direnean Auzitegiek burutzen duten erakundeen kontrol beharrezkotzat hartu egiten denean. Bitartekaritzaren helburu nagusia ez da honela instituzionala akordio batera heltzea, baizik eta alderdiei prozedura bat eskaintzea gatazkaren inguruan dituzten erretizentzia eta desadostasunak landu eta gatazkaren murrizpen bat lortzea ahalbidetzeko plataforma bat eskaintzea, nahiz eta egoerarik positiboenean akordio bat lortuko den,

guztiz zilegia izango delarik bitartekaritza prozeduraren ondorioz inolako akordiorik ez lortzea.⁵

Horrela bada, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren auzibarneko bitartekaritzari dagokionez, kontsideratu beharra dago Administrazioarekiko Auzien Auzitegien jardunaren dinamizazio bat suposatu egiten dutela, herritar eta Administrazio Publiko ezberdinen arteko auziak ebaztea erraztu egiten baititu, horretarako, armonia sozial eta alderdien borondatearen autonomian oinarritutako prozedura formulak ezarriz. Hein berean, bide judizialari ordezkagarriak suerta daitezkeen bideak ezarriz, administrazioaren modernizazio bat bultzatzea suposatzen du, jurisdikzioan existitzen den kolapsoa gainditzeko elementua izan daitekeelarik.⁶

Bitartekaritzak Administrazio Zuzenbidean aplikatua izateko aukeren hedapen zabal bat dauka, Administrazio-Herritar harremanaren ondorio zuzena delarik, azken hauen posizio ezberdintasunaren errespetuarekin batera. Perspektiba honetatik, ohartarazi beharra dago bitartekaritza administrazio onaren printzipio galdagarriarekin konektatu egiten duela, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Itunean bertan, 2. artikuluan aurreikusia dagoenarekin hain zuzen ere.⁷

2. Arauketaren markoa eta gaur eguneko egoeraren azterketa

2.1. Esparru ezberdinen araudi analisia

Espainiar Estatuko Konstituzioaren 24. artikuluari jarraiki, hiritarrok babes judizial eraginkorra jasotzeko eskubidea bermatua daukagu, eta ondorioz prozesura jotzeko ahalmena. Eskubide honen aitortpenak ordea, ez du inondik inora gatazken konponbidea bilatzeko bestelako bide eta mekanismo batzuetara jotzea baztertzen, herritarron

⁵ Doktrinak honela aitortu egin izan du askotan, honen eredu gisara ikusi, FÁBREGA RUIZ, Cristóbal Francisco, HEREDIA PUENTE, Mercedes “La Mediación Intrajudicial. Una forma de participación del ciudadano en la justicia”, *Bajo Estrados Revista del Colegio de Abogados de Jaén*, 2010. 1-8 orrialdeak

⁶ Esparru honetan erabakigarria administrazio bitartekaritzan aditua den CARBALLO MARTINEZ, Gerardo “La mediación administrativa. Algunas propuestas para su implementación en el régimen jurídico administrativo y procesal” *Revista Jurídica de Castilla y León*, 29. Zenbakia, 2013. urtea, 1-22 orrialdeak

⁷ Valentziako Unibertsitateko doktorea den BELANDO GARÍN, Beatriz-ek Europar Batasuneko Oinarrizko Printzipioekin lotura bat eskaini egiten du bere lanean, “La mediación administrativa: Una realidad Jurídica” LOPEZ RAMÓN, Fernando (Zuzendaria) *Las prestaciones patrimoniales públicas no tributarias y la resolución extrajudicial de conflictos*, INAP, Madrid, 2015. urtea, 265-273 orrialdeak.

eskubidearen barnean kokatzen delarik hauetaz baliatzeko erabakia hartzea edo ez, hauek tutela judizialaren osagarri gisara erabili ahalko direlarik.⁸

Eskubide honen garrantzia, bederen, herritarroi justiziara jotzeko izan ditzakegun oztopoak gainditzeko aukera eskaintzean datza, herritarron babes egokia ez baitator eskubide subjektibo ugariren aitortza burutze soiletik, baizik eta, hein handi batean, aitortza hori efektibo eta eraginkorra izatetik. Eraginkortasun hau lortze aldera, beharrezkoa izan behar da herritarrok eskubide hauen urratzeak ematean hauei aurre egiteko aukera eta berme guztiak izatea, estatuak gure behar eta nahiei erantzun egoki eta desiratu bat eman ahal izateko.⁹

Horregatik, xedapen konstituzional honetatik abiatuta, eta behin babes judizial eraginkorra jasotzeko eskubidea aitortua dugula azpimarratuta, *Alternative Dispute Resolution* edo Gatazkak Konpontzeko Bestelako Bideen presentzia (Hemendik aurrera ADR laburduraren bidez) aldarrikatu beharra daukagu, figura asko barneratu ditzakeen elementuak bildu ditzakeelarik, bai heterokonposizio zein autokonposizioaren arteko bereizketa egitea derrigorrezkoa delarik honela.

Bitartekaritza gatazkak ebazteko autokonposizio bide bat da, bitartekariaren neutralitatean oinarritu egiten dena, zeina ez dagoen derrigortuta akordioen gaineko proposamenak egitera, nahiz eta bere borondate eta esperientzia profesionalari jarraiki hauek egiteko librea delarik. Bitartekaritza alderdiek beraien kabuz edota existitzen diren bestelako bide juridiko-administratiboei jarraiki akordiorik lortu ezin dutenean baina beraien borondatea, fede oneko akordio eraikitzaile bat lortzea denean erabiliko den metodoa da. Alderdien arteko akordioak lortu ahal izateko bitartekariak gogatzeko teknikak erabiliko ditu, integratzaile edo disuasiozkoak, gatazkaren aspektu juridikoetatik haratago jotzeko aukera delarik, ebazpen konpontzaile bat lortzeko aukerak horrela areagotu egiten direlarik, betiere ordenamenduaren kontrakoak izan ezin daitezkeenak.¹⁰ Ildo

⁸ Ugariak dira gatazka baten aurrean ADR eta bide judizialaren arteko aukeraketa ahalmen ez baztertzaila eta osagarri baten alde egiten duten autoreak, hauen artean; AVILÉS NAVARRO, María “La mediación en los diferentes ordenes jurisdiccionales” *Diario la Ley*, 7704 zenbakia, Sección Tribuna, 2011ko irailaren 28a, 8. Orrialdea

⁹ Guztien artean, BLANCO CARRASCO, Marta “*Mediación y sistemas alternativos de resolución de conflictos: una visión jurídica*” Reus editoriala, Madril, 2009. urtea, 11. orrialdea

¹⁰ Bitartekariak jardun beharrek prozedura barneko jarrerari dagokienez, SAN CRISTOBAL REALES, Susana “Sistemas alternativos de resolución de conflictos: negociación, conciliación, mediación, arbitraje,

honetatik, *Alternative Dispute Resolution* sistemen barnean arbitraia, adiskidetzea, bitartekaritza, *Ombudsman* edo Herritarren Defendatzailea, negoziazioa zein trantsakzioa bezalako irudi juridikoen presentzia egongo litzateke.

Europar Batasunak bere baitan Gatazkak Konpontzeko Bestelako Bideen aplikazioari dagokionez zenbait esfortzu egin izan dituela esplikatu beharra dago, hainbat direktiben bidez hauen aplikazioa sustatu zituelarik; *Europar Parlamentuko eta Kontseiluko 2000/31/CE Zuzentaraua, 2000. Urteko ekainaren 8koa, informazio gizartearen zerbitzuaren alor juridiko zehazten ingurukoa, bereziki barne merkatuko merkataritza elektronikoa dagokiona (Merkataritza elektronikoa buruzko Zuzentaraua)*, bertako 17. artikuluan auzien judizioz kanpoko konponbideak aurreikusten dituelarik, eta *Europar Parlamentuko eta Kontseiluko 2002/65/CE Zuzentaraua, 2002ko irailaren 23koa, kontsumitzaileei zuzendutako zerbitzu finantzarioen urruneko komertzializazioari dagokiona*, zeinak 14. artikuluan judizioz kanpoko helegiteen existentzia suposatu egiten duen.

Lehenengo Zuzentaru hori Espainiar barne ordenamendura txertatu egin zen 34/2002 uztailaren 11ko Legearen bidez, merkataritza elektronikoa eta informazio gizartearen zerbitzuen ingurukoaren bidez barneratu egin zelarik. Bigarrenari dagokionez, 34/2003 azaroaren 4ko Legearen bidez, aseguru pribatuen inguruko araudi erkidearen eraldaketa eta moldatzearen ingurukoaren bidez eta 22/2007 uztailaren 11koa Kontsumitzaileei zuzendutako zerbitzu finantzarioen urruneko komertzializazioaren ingurukoaren arabera txertatu egin zen. Halere, azalerarazi beharra dago kontsumitzaileen babesaren inguruko alorren inguruko Zuzentaruak direla, arlo pribatuan izandako gorabeheri dagokienez konponbide bat bilatzeko helburuarekin erdietsi direnak.

Azkenik *Europar Parlamentuko eta Kontseiluko 2008/52/CE 2008ko maiatzaren 21eko Zuzentaruak, gai zibil eta merkantilen zenbait alorren ingurukoa*-ren presentzia nabarmendu beharra dago, Espainiar ordenamendura izandako barneratzea 5/2012, uztailaren 6ko, merkataritza eta zibil alorren gaineko bitartekaritza dagokion Legearen bitartez gertatu delarik. Halere, bai Zuzentaru zein Legeak ezarritako aplikazio eremuari

en el ámbito civil y mercantil” *Anuario Jurídico y Económico Escorialense*, 46. Zenbakia, 2013. urtea, 39-62. orrialdeak

dagokionez, aztergai dugun administrazioarekiko auzien gaiak baztertu egiten dira, esplizituki gainera definituz hauetan ezingo dela aplikazioarik burutu.

Esan daiteke Europar Batasuneko estatukideen artean suerta daitezkeen mugazgandiko gatazkei zein estatu barnekoei aplikagarri izango zaiela, zibil arlo osoa barneratuko duelarik, baita familia ere bertan kokatuz, betiere xedagarriak diren gaitara mugatuko delarik hauen aplikazioa. Ildo honetatik, zigor bitartekaritza, Administrazio Publikoak partaide gisara jarduten duten alorrak zein lan eta kontsumo arlokoa baztertu egiten dituelarik. Zuzentarauak bere esparrutik at kokatu egiten ditu uneko ordenamenduaren arabera alderdien xedagarritasunaren aukeratik at geratzen diren alorrak, eta era berean administrazio alorrak ere at kokatzen ditu, kontuan hartu gabe posible izan daitekeela muga batzuen barnean betiere jardunez, administrazio publikoekin lotura izan dezaketen zenbait gai alderdien xedagarritasun ahalmenaren barnean kokatzea.

Zuzentarauak hein honetan aurreikusi egiten du gaia ezagutzen ari den organo jurisdikzionalak alderdien ezagupenean jartzea bitartekaritzara jotzeko aukeraren existentzia, honen erabileraren inguruko informazio saio batera gerturatzerara gonbita luzatzearekin batera, eta konfidentzialtasuna zein preskripzio eta kaduzitate epeen inguruko arauketa bat burutu egiten duelarik.

Era berean bitartekaritza administrazioarekiko auzien inguruan aplikagarri izan dadin zenbait bide eta aukera aurreikusi egiten dira espainiar ordenamendu juridikoan zein honen osagarri suerta daitezkeen bestelako erakundeen ebazpen eta aholkuei jarraiki. Europar kontseiluko hainbat errekomentazio aurkitu daitezke era honetan, *R (86) 12 Ministro Kontseiluko Gomendioa, gatazken konponbide lagunkoiaren alde egiten duena, edozein delarik ordena jurisdikzionala, prozedura judizialaren aurretik zein honek iraun bitartean aplikatu daitekeela* babesten duena, eta, *R (2001) 9 Gomendioa, zeinak botere administratibo eta pertsona pribatuen artean gaztakak ebazteko bestelako bideen erabilera eutsi zuen*. Bi gomendioek administrazio publikoak subjektu diren gatazketan ere ADR-en aplikazioaren alde egiten dute, estatukideetan bai araudiari dagokionez bai praktika juridikoaren esparruan, izaera subjektibodun administrazio auzibitartekaritza sistema sinple eta flexible gisara; berdintasun, inpartzialtasun eta alderdien eskubideen errespetua oinarri gisara finkatzearen bidez.

Espainiar estatuko ordenamenduan, gaur egunean ez da auzi barneko bitartekaritza gaiaren inguruko araudi zehatzik existitzen eta bestelako zeharkako bideak erabiltzera bultzatu egiten gaitu bitartekaritza bezalako teknika juridikoak erabiltzeko unean.

Judizio barneko administrazioarekiko auzien bitartekaritza 29/1998, uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren ingurukoan, 77. artikuluan inplizituki agertzeaz gain, administrazio bitartekaritza 39/2015, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Amankomuna arautzen duenaren 86 eta 112. artikuluetan ere adierazi egiten da.¹¹

Modu berean, bitartekaritza eta EK-ko 117. artikulua estatuko epaileari eskaintzen dion jurisdikzio erreserbaren arteko baterako existentziaren harreman loturak Konstituzio Auzitegi berak onartu egin du babes judizial eraginkorrerako eskubidea eta prozesuaren aurretiazko derrigorrezko tramiteen arteko bateragarritasuna, adiskidetzea edo aurretiazko administrazio erreklamazioari bederen, onartuz.

Besteen artean, judizioz kanpoko administrazio bitartekaritzaren inguruan adieraziz Konstituzio Auzitegiko 217/1991 azaroaren 14ko sententzian 1850/1988 babes

¹¹ Honela dio AAJL-ko 77.1. artikulua trantsakzioak burutzeko aukera aurreikusiz; *En los procedimientos en primera o única instancia, el Juez o Tribunal, de oficio o a solicitud de parte, una vez formuladas la demanda y la contestación, podrá someter a la consideración de las partes el reconocimiento de hechos o documentos, así como la posibilidad de alcanzar un acuerdo que ponga fin a la controversia, cuando el juicio se promueva sobre materias susceptibles de transacción y, en particular, cuando verse sobre estimación de cantidad. Los representantes de las Administraciones públicas demandadas necesitarán la autorización oportuna para llevar a efecto la transacción, con arreglo a las normas que regulan la disposición de la acción por parte de los mismos.*

Ildo beretik jarraitzen dutelarik 39/2015 APEL-eko 86.1. artikulua Administrazio Publikoek (aurrerantzean AAPP laburduraren bidez ezagutuak) hitzarmen eta akordioetara heltzeko duten gaitasunaz; *Las Administraciones Públicas podrán celebrar acuerdos, pactos, convenios o contratos con personas tanto de Derecho público como privado, siempre que no sean contrarios al ordenamiento jurídico ni versen sobre materias no susceptibles de transacción y tengan por objeto satisfacer el interés público que tienen encomendado, con el alcance, efectos y régimen jurídico específico que, en su caso, prevea la disposición que lo regule, pudiendo tales actos tener la consideración de finalizadores de los procedimientos administrativos o insertarse en los mismos con carácter previo, vinculante o no, a la resolución que les ponga fin.*

Eta era berean, lege bereko 112. artikulua gorajotze helegitea bitartekaritza prozeduraren bitartez ordezkatua izateko aukera aurreikusi egiten du; *Las leyes podrán sustituir el recurso de alzada, en supuestos o ámbitos sectoriales determinados, y cuando la especificidad de la materia así lo justifique, por otros procedimientos de impugnación, reclamación, conciliación, mediación y arbitraje, ante órganos colegiados o Comisiones específicas no sometidas a instrucciones jerárquicas, con respeto a los principios, garantías y plazos que la presente Ley reconoce a las personas y a los interesados en todo procedimiento administrativo.*

helegitearen barnean emanikoan, 60/1989 martxoaren 16koan 963/1987 babes helegitearen ingurukoa eta 162/1989 urriaren 16ko sententziak aipatuz 1420/1987 babes helegitearen baitan, non ezarri egiten den, ADR-ez baliatuz ez dela inondik inora organo judizialen parte hartzea baztertzen. Hein honetan, hauen parte hartzea atzeratu egiten dutela diote, proportzional eta justifikatuak diren heinean, eta bere helburua gatazkaren inguruko irtenbide bat bilatzea den kasuan, alderdientzat onuragarriagoa eta beraien arazoekiko egokiagoa izango baita, sistema judizialaren lan karga murriztuko duelarik.¹²

39/2015 Legeko 86 zein 112. artikuluen zein Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren 29/1998 legeko 77. artikulua dela bide baliatu egiten gara bitartekaritzaren egikaritza ahalbidetzeko. Artikulu hauek ez dute espresuki bitartekaritzaren gaineko inolako arauketarik ezta zuzeneko deskribapenik eskaintzen, halere, era inplizitu batean xedapenean txertatua geratzen dela ondorioztatzeko aukera dagoela ulertu egin dute organo judizialek. Halere, arauketa gabezia honi aurre egiteko eta trantsakzioari aplikagarriak zaizkion gaiak zehazte aldera Kode Zibilak ez du berez bitartekaritzari espresuki bideratutako mandaturik batzen, baina 1.810-1.814. artikuluen bitartean transakzioari aplikagarri zaizkion autuak eskaini egiten ditu, zeinen bidez ondorioztatu egin daitekeen akordioetara heltzeko beharrezkoa dela objektuaren xedagarritasuna izatea.

Aurretik aipaturiko legeekin batera, Prozedura Zibileko legeko (aurrerantzean PZL) 19. artikulua, bitartekaritza eta transakzio judizialari erreferentzia zuzena egiten diona eta 415. artikulua, adiskidetzea eta transakzioari dagokionaren gainean nabarmendu behar dira. Azken artikulua honen bidez, legeak alderdien artean egikaritutako akordioak judizialki homologatu, prozesuan atzera egitea edota behin behineko etendura eskatzean bitartekaritza prozeduran murgiltzea ahalbidetzen du. Hein berean, manu hauen ordezkio edo supletorio izaerarekin konkordantzia zuzena eskuratu egiten dute bi artikulua hauek. Antzeko izaerarekin, 36/2011 legea, lan arloko jurisdikzioa arautzen duena (hemendik aurrera LJL) ere aipagarria da, bertako 64.3. artikuluari dagokionez aipagarriak ditugu zeinak bitartekaritza edo adiskidetze prozedurari ate bat ireki egiten dion.

¹² Konstituzio Auzitegiko 217/1991 azaroaren 14ko sententzian 1850/1988 babes helegitearen barnean emanikoan; 60/1989 martxoaren 16koan 963/1987 babes helegitearen ingurukoa eta 162/1989 urriaren 16ko sententziak aipatuz 1420/1987 babes helegitearen baitan honela adierazi egiten dute.

Era berean lege substantibo batzuk ere administrazioarekiko auzietan bitartekaritzaren aplikazioa irekia uzten dute, judizioz kanpoko gatazken ebazpen metodo gisara kontsideratuz. Honela, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak (aurrerantzean ED), urriaren 30ekoa, zeinaren bitartez Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateratua finkatu egiten duenak, bere 45. artikuluan bitartekaritzara jotzeko aukera zabaldu egiten du, betiere akordio eta hitzarmenen aplikazio eta interpretazioaren gaineko gatazkek ebatzi ahal izateko.

Bitartekaritzara jotzeko elementu subjektiboei dagokionez, gaur egunean legeak alderdiei jarduteko gaitasuna eta xedatzeko ahalmena exigitzen die, Administrazioaren kasuan aurretiazko baimen bat lortu behar duelarik ordezkari legitimoak *autorización con arreglo a las normas que regulan la disposición de la acción por parte de los mismos*. Estatuko Administrazio Orokorren kasuan dekretu bidezko Ministro Kontseiluko baimena beharrezkoa izango dute, aurretiaz Estatu Kontseiluaren Diktamen batekin lotua joango dena. Halere, gaur ehunean praktikan soilik Zuzendaritza Orokorrari eskatu egiten zaio baimena, akordio hauen gainean dinamizazio prozesu bat sustatuz. Interpretazio honek, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko Legeko 77. artikulua ezarritakoak baino malguagoa denak, akordioaren auzibarneko izaeran oinarritzen da, ez baita beharrezkotzat ulertzen Aurrekontuen Lege Orokorrek zehazturiko kautelak betetzea. Akordioa, bederen, epaile edo magistratu baten begiradapean egikaritzen den heinean, berak kontrolatuko du interes publikoaren presentzia eta babesa, honen ondorioz bidezko autorizazioaren beharra baztertu egingo delarik.¹³

Eta hauek dira administrazioarekiko auzien prozesuetan bitartekaritza burutzea ahalbidetzeko, epaile eta magistratuek erabilitako argudiaketaren sistematizazioa, Administrazio bitartekaritza ADR sistema gisa erabiltzeak Konstituzio Ordenamendu barnean bere txoko eta babesa duela aldarrikatu beharra dagoelarik, askatasun pertsonalaren zein justizia ordenamendu juridikoko balio nagusi gisara aitortzearen ondorioz (EK-ko 9.1 eta 10.1. artikulua). Zentzu honetan ez dago ordenamenduan bitartekaritzaren kontra egiten duen inolako prezepturik, askatasunaren figura bestelako irizpideen gainetik kokatzea bultzatzen delako.

¹³ Ildo honetatik gaur eguneko bitartekaritzaren erabilera praktikotik eratorritako informazioa eskaini egiten du BELANDO GARÍN, Beatriz-ek, aurretiazko baimenen inguruan existitzen den malgutasuna azpimarratuz; “La mediación administrativa. Entre el Derecho a una buena administración y la renovación de la justicia”, AGUDO GONZALEZ, Jorge (zuzendaria), *Control administrativo y justicia administrativa*, INAP, 203-220. orrialdeak

Era berean, autonomia erkidegoei dagokienez bitartekaritzaren inguruko arauketa ezberdinen existentzia dagoela aurreikusi beharra dago, Euskal Autonomia Erkidego mailan (aurrerantzean EAE) *3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra aurkitu dezakegu, bertako 20. artikuluan* aldarrikatutakoari jarraiki bide administratiboari amaierarik ematen ez dioten ebazpenei bi aukera hauetako baten bidez errekurtsioa jar dakieke bitartekaritza, adiskidetze eta arbitraiaren bidetik ebazteko eskatuz.

Baita ere *2007ko urriaren 24ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, jabetza horizontalen eta hiri errentamenduen arloan bitartekotzako eta adiskidetzeko funtzioak arautzen dituena* aurkitu dezakegu, zeinak bitartekaritzaren aldeko apustua egiten duen, jabetza horizontal eta hiri errentamenduen esparruan bitartekaritzaren zein adiskidetzearen bidez higiezin jabeen artean, zein maizterrekiko sortu daitezkeen arazoak judizioz kanpo konpontzeko helburuz.

Aurretik egindako arauketaren erreferentziak direla eta, bitartekaritzaren inguruko legedia asistematikoa, sakabanatua eta zatikatua dela ondorioztatu beharra dago. Halere, doktrinaren alderdi batek, BELTRAN AGUIRRE tartean, zehaztatu egiten du nahiz eta bitartekaritza aplikatzeko gutxieneko erregimen bat existitzen den, kasu batzuetan nahikotzat kontsideratu daitekeena, egokia izan daitekeela arau sektorialen sorrera bultzatzea, lortutako akordioen hedadura loteslea zein den finkatzeko, eta gaiaren araberako tramite edota baldintza bereziak ezarri ahal izateko, bereziki publikotasun eta gardentasun baldintzak beteak izan daitezen.¹⁴

Ildo beretik, doktrinaren zati batek dio GIL ROBLES aipatu dezakegularik talde honen barnean, Administrazio Auziak bitartekaritza bidez ebatzi ahal izateko, eta autonomia kontzeptual nahikoa eta berezia bermatze aldera, bestelako ADR sistemetatik aldentzeko, beharrezkoa izango dela lege espezifiko baten sorrera bultzatzea, gaur egunean existitzen diren iturri jurisprudenzial eta normatiboez gain (86.1. artikulua 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Amankomunaren legetik

¹⁴ Tartean, gaur egunean Nafarroako Gardentasun Kontseiluko presidentea den BELTRÁN AGUIRRE, Jose Luís, “Una apuesta por la mediación administrativa”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 3/2014 zenbakia, Zizur Txikia, 2014. urtea, 7. orrialdea

zein 77. artikulua Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko Legetik utzitako hutsuneetatik at) dinamika propiotik eratorri daitezkeen singularitate eta berezitasunak jasoko dituen, zuzenbide publikoaren inguruko gatazkei dagokienez, alderdien artean *a priori* existitzen diren desberdintasun egoera dela medio, administrazioaren prerrogatiba eta subjektu pribatuek administrazioarekiko duten lotura berezia kontuan hartuz.¹⁵

Esparru honetan garrantzitsua deritzogu, 2018ko urtarrilaren 11an Justizia Ministroa den Dolores Delgadoren proposamenari jarraiki, Gobernuak onarturiko Bitartekaritzaren sustatze legearen aurreproiektuaren gaineko aipamena burutzea. Proposamen honen bitartez, bitartekaritza Justizia Administrazioarekiko baliabide osagarri gisara ezartzeko saiakerak barneratzen dira, bai zibil zein merkataritza alorrean era azkarrago, eta ekonomikoki zein pertsonalki kostu murriztagoak izango dituen gatazken ebazpen metodoa den bitartekaritzaren erabilera hedatzeko asmoz, zenbait kasutan borondatezkotasunetik haratago, *arindutako obligazioa* deritzon beharrezkotasun bat ezarri egiten duelarik alderdiei demanda tarteratu aurretik informazio saio eta esplorazio ekintzak txertatuz.

Bitartekaritzaren sustatze orokor honekin batera, auzibarneko bitartekaritza ere lehendabizikoz aurreikusi egiten da, epaile edo tribunalaren aurrean burutuko dena, behin kasua aztertuta alderdientzako egokiagoa izan daitekeen alorretan, betiere aurretiazko bestelako bitartekaritza saiakerarik egin ez den kasuetan. Era berean, auzibarneko bitartekaritza prozedura martxan jartzearekin batera suerta daitekeen prozesu judizialaren etetea ez du aurreproiektuak aurreikusten.

2.2. Bitartekaritza gainerako jurisdikzio ezberdinetan

Eta zer gertatzen da gainerako jurisdikzioetan? Arauketa ezberdina da, nahiz eta bitartekaritza ideia eta helburuak berak izan. Berez arauketa zuzen eta zehatz bat arlo gutxi batzuetan aurkitu egiten dira, zibil eta merkataritza arloan aurretik aipaturiko Zuzentaraua eta honen transposizioa burutzen duen legearen bidez garatu egin direnak,

¹⁵ Doktrinaren esparruan, aipagarria Espainiar Herriaren Defendatzaile eta Europar Kontseiluko Giza Eskubideen Komisarioa izandako GIL-ROBLES, Álvaro “La mediación administrativa como alternativa”, *Revista del Poder Judicial*, 94. Zenbakia, 2012. urtea, 40-43 orrialdeak

980/2013, abenduaren 13ko ED-aren bitartez, zeinaren bidez 5/2012, uztailaren 6ko Legean ezarritako zenbait gai garatzen diren.

Bertako aplikazio eremua zibil eta merkataritza arloko edozein gai dela jasotzen du bertako bigarren artikulua, adieraziz naziozgaindiko gatazkak ere barne sartuko direla, betiere uneko indarreko lege aplikagarriaren arabera alderdien obligazio eta eskubide xedagarrietara mugatuz legearen jarduna. artikulua zuzenean baztertu egiten ditu bitartekaritza penala, administrazio publikoekiko bitartekaritza, lan bitartekaritza eta kontsumo arloko bitartekaritza.

Era berean familia arloan existitzen da gaur egunean bitartekaritzaren inguruko arauketa eta txertatze handiena, familia arloko auzibarneko bitartekaritzak, herritarren artean gogobetetze maila altuak jaso izan dituen, Espainiar estatuan oso arautua dagoen alor bat dela nabarmendu beharra dago, honen bitartez erantzun judizialaren kalitatea hobetzeaz gain, pertsona banandu zein dibortziazatutakoen bizitza hobetu egiten du, seme-alabengan berme gehigarriak eskaini egiten delarik. Honela, erregulazioa autonomia erkidegoetan zehar hedatu egin da, EAE mailan 1/2008 otsailaren 8ko Familia Bitartekaritzaren euskal legea, 124/2008 uztailaren 1eko dekretua, familia elkarguneak arautzen dituen, Euskal familia bitartekaritzaren aholku batzordea erregulatzen duen 84/2009 apirilaren 21eko dekretua, eta 7/2015 ekainaren 30eko legea gurasoen banatze edo ezkontza haustura kasuetan familia harremanak arautzen dituen aurkitzen dugularik.

Eta zigor bitartekaritzari dagokionez, biktima eta erasotzailearen arteko konfidentziasun osoz eginiko hizketaldi eta komunikazio prozeduraren bitartez burutzen da bitartekaritza, hirugarren inpartzial baten parte hartzearekin batera, delitutik eratorriko gatazkari konponbidea bilatzen saiatzen dira horrela. Heine honetan sortutako min eta kaltearen konponketa burutzea sustatu egiten da, biktimari entzuna izateko aukera eskaini egiten zaiolarik.

Egia da, adin nagusioi aplikagarri zaigun zigor araudiari erreparatuz ez dela bitartekaritzaren erreferentzia zuzenik aurkitzen, baina *Europar Batasuneko Kontseiluak berak martxoaren 15ean harturiko (2001/220/JAI) esparru erabakiak zigor prozesuko biktimaren estatutuaren ingurukoak* berak adierazi egiten du estatu kideek zigor auzietan ere bitartekaritza sustatu behar zutela, biktimak erasotzailearekin harturiko akordioari

baliozkotasuna eskainiz. Ildo honetatik *4/2015 apirilaren 25eko delituaren biktimaren estatutuaz* mintzatu behar gara, bertan jasotzen diren xedapenen artean eta justizia leheneratzailearen printzipioei jarraituz bitartekaritzaren onarpena burutzen delarik.¹⁶

Adin txikiei dagokienez *5/2000 Lege Organikoak adintxikiaren zigor erantzukizuna arautzen duenak*, bere 19. artikulua aurreikusi egiten du Ministerio Fiskalak kausaren largespena eta artxibatzea eskatzea beste faktore batzuen artean, adintxikiak biktimarekin adiskidetze prozedura bat burutu duenean edo sorturiko kaltearen konpontzea burutzeko konpromezua hartzen duenean bai biktimari zein kaltetuari dagokionez edo informe bidez talde teknikoak ezarritako hezkuntza programetan parte hartzea erabakitzen duenean.¹⁷

2.3. Nazioarteko kasua

Espainiar estatuan Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren esparruan burututako bitartekaritzaren alorra behin aztertuta, nazioarteko jurisdikzioetan alor berean existitzen diren prozesuen gaineko datuak eskaintzeari ekin behar diogu, espainiar estatuak bizi duen egoeraren inguruko iritzi bat eskaini ahal izateko.

Zuzenbide konparatuari dagokionez, orokorrean kontratu publikoen interpretazioa, administrazioen ondare erantzukizuna eta legeek ezarritako bestelako aitorturiko eskubideen inguruko gorabeherak bitartekaritzara bideratuak izan daitezke, betiere administrazioaren egintza diskrezional edo arautuak, Frantziaren kasuan, edota pertsonen oinarrizko eskubideak, Erresuma Batuan, ez baldin badira. Era berean, ez da transakzio mailan sartuko aginduzko zuzenbidearen kasuan, nahiz eta zuzenbide pribatuaren txertatzearekin batera malgutzen joan daitekeen.

Frantziaren kasuan bitartekaritza prozedura administrazioaren potestateak txertatzen direnean bai arautuak zein diskrezionalak direnean, bitartekaritza alde batera geratu

¹⁶ Ildo honetatik gaiaren garapen kritiko bat burutu egiten du MARTÍNEZ SÁNCHEZ, María Cristina “La justicia restaurativa a la luz del Estatuto Jurídico de la víctima”, ARGUDO PÉRIZ, José Luís (Zuzendaria), *Mediación y tutela judicial efectiva: La justicia del siglo XXI*, Editorial Reus, 2019. Urtea, 357-371. orrialdeak

¹⁷ Gaiaren lanketa sakonago bat burutzeko gomendagarria da irakurketa bat eskaintzea ondorengo lanei, SIMONS VALLEJO, Rafael, “La mediación en el derecho penal de menores” Dykinson, 2011. Urtea, Madril eta CASTILLEJO MANZANARES, Raquel “La mediación en el proceso de menores” *Revista de Derecho Penal*, 32. Zenbakia, 2011. Urtea, 9-28. Orrialdeak

egiten da, eta kontrara, erabilgarria suertatuko delarik Administrazioaren ondare erantzukizuna edo administrazio kontratazioaren alorra jorratzen direnean. Halere, *Conseil d'Etat-eri* (Estatu Kontseilua) begira legezketasuna errespetatuz, bitartekaritza prozedura botere diskrezionaletara zabaltzea pentsatzen ari dira.¹⁸ Frantziaren kasuan organo administratibo zehatzek ebatzi egiten dituzte bitartekaritza alorrak, gatazken ebazpen lagunkoiak burutzen dituzten Kontsulta Batzordeen bitartez, magistratu, administrazio funtzionario eta kontratazio publikoan adituak diren pertsonekin osatua daudenak.¹⁹

Nazioartean existitzen diren gatazken ebazpenerako sistemen aplikazio berritzaileen inertziaren ondorio zuzena den Alemaniari esperientziari begira, Munichen, tributu eta urbanismoarekin loturiko gaien %90a jadanik bitartekaritzaren bitartez ebatzi egiten dira.²⁰ Alemaniaren kasuan bitartekaritzaren erabilera baztertu egiten da gatazkek arauturiko administrazioaren botereei dagokienez, eta onartu egiten da ahalmen diskrezionalei dagokienez. Hala eta guztiz ere, bitartekaritzaren onartu egiten da arauturiko egite administratiboei dagokienez, betiere gaztaka administrazio erabakia oinarritzen den premisei dagokien kasuan. Honela, bi bitartekaritza mota existitzen dira aldi berean, bitartekaritza zentzu hertsian eta auzibarneko bitartekaritza. Auzibarneko bitartekaritza hau gaiak ezagutzen duen epaileak berak aurrera daramalarik. Hein honetan Administrazioarekiko Auzien Berlineko Auzitegiaren kasuan behin behineko epaiak eskaini egiten ditu bertako magistratu titullarrak, honetaz baliatuz, alderdiek prozesuarekin aurrera jarraituz gero lortu dezaketene emaitza zein den ezagutu dezakete, eta egoki iruditzen ez bazaie, akordio batera heltzeko autua hartu dezakete, bitartekaritzaren bidea zabalduz.²¹

¹⁸ Era honetan Napoliko Unibertsitateko MASUCCI, Alfonso-ren lana aipagarria da “El procedimiento de mediación como medio alternativo de resolución de litigios en el Derecho Administrativo: esbozo de las experiencias francesa, alemana e inglesa” *Revista de Administración Pública*, 178. Zenbakia, 2009. urtea. 9-35. orrialdeak

¹⁹ Gaztela Leongo JAN-eko Administrazioarekiko Auzien aretoko magistratua den GARCÍA VICARIO, M.^a Concepción-ek era berean nazioarteko zenbait herrialderen gaineko datu gehiago eskaini egiten ditu bere lanean, “La mediación como sistema alternativo y complementario de resolución de conflictos en la jurisdicción contencioso-administrativa”, *Revista Jurídica de Castilla y León*, 29. Zenbakia, 2013. Urteko urtarrila, 18. orrialdea

²⁰ FÁBREGA RUIZ, Cristóbal Francisco, HEREDIA PUENTE, Mercedes “La Mediación Intrajudicial. Una (...)”, *op. cit.* 7. orrialdea.

²¹ GARCÍA VICARIO, M.^a Concepción, “La mediación como sistema (...)”, *op.cit.* 18. orrialdea

Alemaniar ordenamenduaren kasuan espainiar ordenamenduan gertatzen den kasuan bezala, arrazoi juridikoei jarraiki ez baldin badago inolako negoziaketa ahalmen posiblerik, ezin izango da bitartekaritza prozedurarik erabili. Nolanahi ere, gatazkaren konponketa bilatze aldera araudi aplikagarriaren interpretazio egokienaren inguruan edo araudiek utzitako hutsuneei begira jardun beharko dute alderdiek, ezingo delarik inondik inora zuzenbide materialaren kontra jo.²²

Erresuma Batuaren kasuan, bestelako zuzenbideen adarrei ezarri dakizkien mugak baino baldintza zorrotzagoak esleitu egiten zaizkio administrazio zuzenbideari dagokionez, muga eta aurrebaldintza hauetako gehienak izaera kulturalaren ondorio zuzena direlarik. Edozein modutan, eskubide eta askatasun zibilei dagokienez bitartekaritza baztertu egiten da, baita ere administrazioaren abusuzko ahalmenak edo interes publikodun balorazioak egiteko unean. Kontrara, guztiz erabilgarria da arauen aplikazio zurrun baten bidez konponbiderik lortu ezin daitekeen gaietan, edota konplexuak diren eztabaida faktikoen kasuan, bereziki bitartekaritza onartu egiten delarik *social welfare-housing* eta *community care* gaien inguruan.²³

2.4. Auzibarneko bitartekaritzaren erabilera datuak

Ugariak dira Espainiar estatuan eta nazioarteko ordena juridikoan bitartekaritzaren inguruan existitzen diren antolakuntza sistemak, horien artean Valsaín eta GEMME elkarteak (*Grupo Europeo de Magistrados por la Mediación – Bitartekaritzaren aldeko Magistratuen Europear Taldea*) aurkitzen ditugularik, espainiar ordenamendu juridikoan bere eragina duten erakundeak bai bitartekaritzaren sustapen zein legedi eta protokoloen eratzean parte hartzen dutenak.

GEMME, ADRak eta bereziki bitartekaritzaren erabilera sustatu eta hedatzea helburu duen erakundea da, Justiziaren Auzitegietatik bertatik, herritarron partaidetza demokratikoaren bidez. Frantzian 2004. urtean sortua, gaur egunean 18 herrialdeetan dago presente, atal ezberdinak existitu egiten direlarik Alemania, Belgika, Herbehereak,

²² MASUCCI, Alfonso “Formación y evolución del Derecho Administrativo en Francia y Alemania” *Revista de Administración Pública*, 184. Zenbakia urtarrila-apirila, 2011. urtea, 9-39. orrialdeak

²³ MASUCCI, Alfonso “El procedimiento de mediación como medio (...)” *op. cit.* 9-35 orrialdeak

Italia, Norvegia, Portugal, Eslovenia, eta Suitzan, elkartekideak dituelarik Erresuma Batuan, Grezia, Hungaria, Polonia eta Lituania.

Espainiar atala 2007. urtean sortua da, gaur egunean 100 kide baino gehiago dituenak, 2018ko ekainaren 22an Rosalía Fernández Ayala aukeratua izan zen bere presidente bezala, epaile, magistratu, fiskal, justizia administrazioaren letratuak eta bitartekari profesionalek osaturiko taldea denak. Bere funtzio nagusietako bat formakuntza da, lege proiektuen idazte eta sortzean laguntzea, bitartekaritzaren sustatzean eta giza baliabideen presentzia eskaintzea.

GEMME taldearentzat, bitartekaritza herritarrok ezagutu behar dugun elementu bat izan behar da, ez dena gaur egunean nahikoa ezagutzen eta ondorioz aukeratzen. Bere aburuz, ordenamendu juridikoan osoki izaera juridikoa duten auzi askori aurre egiteko prest agertzen da Justizia Administrazioa, baina auzi horiekin batera bestelako elementu eta interes batzuk ager daitezke gatazkaren ebazpenean kontuan hartzen ez direnak; elementu emozionalak, esperientziak zein kultura ezberdintasunak, halaber. Gisa honetan, legearen *stricto sensu* aplikazioa burutzearekin batera hutsune ugari geratu egiten dira eta gaztakaren baketzerik ez da lortzen.

Era berean, *Europar Bitartekaritza eta Etika Publikoko Institutua* (aurrerantzean IEMEP) aipatu beharra dago, Valsaín Fundazioaren Ikasketa Zentrora atxikitutako erakundea da, bere helburu gisara, administrazio bitartekaritza sustatu eta garatzeko akzioen burutzea daukana, pertsona fisiko eta juridikoetan eragina duten administrazio publikoaren funtzionamenduaren edozein sektore eta atalen inguruan. IEMEP-ak bake eta partaidetza artatsuan oinarritutako bitartekaritzaren eredu sozial bat garatu nahi du, bizitza publikoaren balore demokratikoen errespetuan oinarrituz, kode etikoak eta jarduera patroi eta irizpideak bultzatzen ditu, alderdi guztientzako eta interes orokorrarentzako onurak sustatuz.

Administrazio bideko errekurtsioak instrumentu eta baliabide juridiko bezala porrot handi bat direla aldarrikatu behar dago, bitartekaritza, kontrara, porrot horri aurre egin ahal izateko ezinbesteko elementu gisara kontsideratu behar delarik, nahiz eta gaur egunean ordenamendu juridikoak eta indarrean dagoen Administrazio Zuzenbideak bitartekaritza hori burutzeko eskaintzen dizkigun aukerak, existitzen diren arren, oso mugatuak dira.

Honela, nahiz eta azken aldi honetan auzi barneko bitartekaritza jasotzen ari den promozio eta bultzada handia izan, errealitatean hauen erabilera nahiko errefuxagarria dela ondorioztatu beharra dago, araudi gabeziak, gaien konplexutasuna eta administrazioaren ezaugarri bereziak alderdi izatean, bestelako jurisdikzioetan erabilgarri bihurtzen eta areagotzen ari den teknika honen ezarpena zaildu egiten du. Ildo honetatik eta egoera aztertuta, BJKN berak zuzenetsi egin izan du, gaur egunean auzibarneko bitartekaritzak Administrazioarekiko Auzien esparruak ez daukala inolako errelebantziarik espainiar estatuko sistema judizialari dagokionez, beraz, jurisdikzioaren barnean existitzen diren auzien larregizko pilaketa eta metaketak sorturiko kongestioari aurre egiteko bestelako bide batzuk hartu beharko direla.

BJKN-k 2016ko apirilean argitaratutako datuen arabera (gaur egunean gaiaren inguruan existitzen diren azken datu erabilgarriak), 2015eko ekitaldiko auzi barneko bitartekaritzatik eratorritako datuen txostenean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko daturik ez ditu eskaintzen, bere hitzetan “*al ser proyectos pequeños y aislados, cuyo resultado no sería realmente significativo.*”²⁴ Era berean Kanariar Uharteetan, Las Palmas Kanaria Handikoan hain zuzen ere dagoen proiektua eta Valentzian indarrean ezarri nahi zen zerbitzuaz aipatu egiten ditu txostenak.

Esperientzia pilotuek erakutsi egin dute bitartekaritzaren alorrean ezagulea den eta motibatua dagoen epaile batek, prozesura bitartekaritza txertatu ahal izateko giza baliabide nahikoak eta gutxieneko baliabide teknikoek baliatu daitekeenean eta betiere bitartekaritzan heziketa egoki bat jaso duten profesional taldeen existentzia dagoenean, epaitegiek bitartekaritzaren inguruan izango dituzten erabakiak positiboak izan ohi direla prozesuko alderdientzat.²⁵

2013ko apirilaren 30ean, BJKN eta Valsaín fundazioaren artean lankidetzaz esparru hitzarmena egikaritu zuten Administrazioarekiko Auzien Judizioan auzibarneko bitartekaritzaren inguruan. Hitzarmen horren helburua beharrezko ikerketak egin eta esperientzia pilotuen gaineko azterketa bat egitean datza auzibarneko bitartekaritza

²⁴ Hein honetan BJKNak urtero eskaini egiten dituen bitartekaritzaren inguruko datuak aztertzea egokia deritzogu, CGPJ “*Datos resultantes de la mediación intrajudicial (año 2015)*” Consejo General del Poder Judicial, 2016. urtea, 1-9 orrialdeak

²⁵ Gaur egunean existitzen diren esperientzia pilotuek dakartzaten ondorioen inguruan, azpimarragarria da, DORADO PICÓN, Antonio “El arbitraje y la mediación en España” *Revista Jurídica de Castilla y León*, 29. Zenbakia, 2013ko urtarrila.

sustatu ahal izateko, administrazio eta herritarron artean sortu daitezkeen gatazken aurrean prebentzio eta konponbide sistema sustatzeko, bi alderdien arteko espektatibak betetzeko, legearen eta ordenamenduaren errespetupean. Era berean eta data berean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari dagokionez Kanariar Uharteetako Autonomia Erkidegoan auzibarneko bitartekaritza ezartzeko proiektu pilotua ezartzeko akordioa ere sinatu zuten.

2015. urtean jada programa pilotu honen inguruko behin behineko informea argitaratu egin zen, bitartekaritzak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan duten arazoaren artean herritarron zein Administrazio Publikoen sistemarekiko konfiantza gabezia aurkitzen dela aitortu egiten duena. Arrazoi nagusia, inolako arrazoi errealik ez daukan prozesuaren luzapen gehigarri bat egongo denaren beldurrean datza. Informeak era berean Administrazio Publikoek bere ordezkartzan jardun behar dutenei eskaini beharreko baimena emateko unean existitzen den erresistentzia handian ere arazo bat aurkitzen du²⁶. 2015. Urteko datuei dagokionez, gaien %25aren kasuan erabilgarria suertatu zen, jorratutako gaien artean desjabetzea, ondare erantzukizuna zein kontratuen kasuetan aplikatu egin zen.

Ildo honetatik esperientzia pilotua bestelako lurralde batzuetara hedatu egin zen, BJKNren datuak erabiliz, Madrilgo Autonomia Erkidegoan medialCAM, Gatazken ebazpenerako zentroa dugu, 2017ko ekainaren 20an sorturikoa, BJKN eta Madrilgo Abokatuen Elkargoaren artean hitzarmen bat sinatu zuten Administrazio Publikoarekiko gatazken arloan bitartekaritza sustatu ahal izateko, ondoren 2018ko ekainaren 20an beste urtebetez luzatu zelarik.

Bestalde, esperientzia pilotuak existitu egiten dira Murtziako Autonomia Erkidegoan, Auzibarneko Bitartekaritza Unitatearen bitartez egindakoa, zein Castellóko probintzian UMICAS (Unidad de Mediación Intrajudicial de Castellón), Castellóko Auzibarneko Bitartekaritza Unitatearen bitartez eta Errioxako Autonomia Erkidegoan, halere momentuz ez dute benetako inplantazio egokiaren ondoriozko datu erakusgarririk lortu²⁷.

²⁶ BELANDO GARÍN, Beatriz “La mediación administrativa (...)” *op. cit.* 215. orrialdea

²⁷ Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren barnean bitartekaritza burutzeko ezarritako proiektu pilotuei dagokionez azterketa bat burutzen du, ETXEBARRIA GURIDI, José Francisco “La mediación en la jurisdicción contencioso-administrativa” BARONA VILAR, Silvia (Koordinatzailea) *Mediación*,

2.5. EAEko datuak, Eusko Jaurlaritzaren erabakiak

Gaur egunean Eusko Jaurlaritzak ez du Administrazioarekiko auzien inguruan hitzarmen zehatzik sinatuta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin (BJKN) zein bestelako operadore juridikoekin. 2015eko apirilaren 27an ordea, Eusko Jaurlaritzak lankidetzak hitzarmen bat egikaritu zuen BJKNrekin, Josu Iñaki Ercoreca Gervasio eta Carlos Lesmes Serrano erakunde bakoitzaren ordezkari gisara jardunez, era orokor batean, jurisdikzio orori baina bereziki alor familia arloa, zibila, merkantila, lan eta zigor arloari begira, bitartekaritza eta gatazkak konpontzeko bestelako modu baketsu batzuk bultzatzeko prozesu judizialaren ordezkari edota osagarri gisara.

2017ko apirilaren 17an, BJKN eta Eusko Jaurlaritzaren artean egikaritutako Lankidetzak Hitzarmenaren bi urteko luzapena erabaki zuten, bestelako manu eta ezaugarrien aldaketarik suposatu gabe.

Ikusi daitekeenez, EAE-n existituriko bitartekaritza prozeduretatik eratorritako datuei dagokienez gatazkak ebazteko bestelako bideen aplikazioaren onurak frogatuak geratzen dira, hauen ezarpena areagotuz doalarik urtez urte baliagarritasunaren hobekuntzarekin batera, bestelako jurisdikzioen barnean gertatzen denaren ildotik, aztergai dugun Administrazioarekiko Auzien Jurisdikziora bideratu beharko zenaren frogagarri gisara kontsideratuko dugularik.²⁸

arbitraje y jurisdicción en el actual paradigma de la justicia, Thomson Reuters-Civitas, 2016. Urtea, 331-352. Orrialdeak

²⁸ Zigor arloaren barnean 2017. urtean EAE-n auzibarneko bitartekaritzak gatazkak ebazteko baliabide egoki gisara kontsideratzea dakarren datuak lortu ziren, 1416 espediente izapidetu ziren, 1173 organo judizialeetatik deribatuak izan zirenak eta 243 aurreko urtetik eratorriak, oraindik ebatzi gabeak. 1239 gai jorratu dira, zeinaren %51a, 624 gai, bitartekaritza prozesu baten bidez ebatzi egin diren, gaien %79an akordioa lortu delarik. Kontrara, gainerako %49an, 615 gai, itxi egin dira bitartekaritzara jo gabe. Zibil arloan, Familia arloaren barnean era berean, 2017. Urteko ekitaldian 778 gai landu zituen auzibarneko bitartekaritza zerbitzuak, 668 epaitegi eta auzitegietatik eratorriak eta 109 aurreko urteko gaiak direlarik, oraindik ebatziak izan ez direnak. 643 gai itxi egin dira, zeinaren %41a, 265 gai bitartekaritza prozesu baten ondorioz ebatzi egin dira, gai hauen %49a alderdien arteko akordio bidez itxi egin diren bitartean, hauen artean nabarmentzekoak direlarik egonaldi- eta komunikazio-erregimenaren, mantenu pentsioen eta gastu berezien inguruan egindako akordioak. Bitartekaritza Judizialeko Zerbitzua (BJZ), “*Zigor Bitartekaritza 2017ko memoria*” eta “*Familia Bitartekaritza 2017ko memoria*” Eusko Jaurlaritzak 2018. urtea.

3. Administrazio zuzenbidearen esparruan

3.1. Interes orokorra

Administrazio Publikoek legezkotasun printzipioaren mende jarduten dute, honela finkatzen baitu Espainiar Estatuko Konstituzioko 103. artikulua; zeinak administrazio publikoa interes orokorren mende jardutera derrigortzen duen, jarduera printzipio gisara eraginkortasuna, hierarkia, deszentralizazioa, deskontzentrazio eta koordinazioa izango dituelarik, betiere lege eta Zuzenbideari men eginik. Interes Orokorra era berean, Espainiar Estatuko Konstituzioan espresuki barneraturik ez dagoen eta egunero eboluzionatu eta garatzen doan kontzeptutzat kontsideratu behar dugu, bere marko eta elementuak aztertuz ondorioztatuko direnak, halabeharrez, bitartekaritzak objektu gisara eskuratutako jarduna interes partikular eta publikoak gogobetetzea dauka²⁹.

Hasieratik Administrazio Publikoen berezitasunaren existentzia aditzera eman behar da, administrazioak beti jokatu egiten baitu hirugarrenen interesen kudeatzaile gisara, eta espezialki meneratua dago legeari eta Zuzenbideari. Ideia honi jarraiki, autore batzuek administrazio alorrean akordioetara heltzeko ezintasuna aldarrikatu egin dezakete, adieraziz edozein gai eztabaidagarrik zuzenbidearen arabera irtenbide bat eta bakarra duela, administrazioak bertara moldatu behar direnak, ezin dutelarik inolako legezkotasunik eza onartu ezta bere posizioen bazterte bat burutu, are gehiago zuzenbidearen mugen barnean mantentzen denean. Honen aurrean HUERGO LORA-ren ikuspuntua aurkitzen dugularik, zeinak gaiaren arabera bitartekaritza ahalmenaren aldeko autua defendatu egiten duen.³⁰

Lehenik eta behin azpimarratu beharra dago, azken aldi honetan existitu diren lege eta erregelamendu aldaketak direla medio, honen adibide, 39/2015 zein 40/2015 legeak jasandako eraldaketek herritarrei ekimen legegile zein ahalmen erregelamendugilearen inguruan botere eta indar gehiago eskaini egiten dizkien, nahiz eta herritarrok ez garen inoiz administrazio publikoen maila berean kokatzen, erakundeen izaera bereziarengatik,

²⁹ CARBALLO MARTÍNEZ, Gerardo “*La mediación administrativa y el Defensor del Pueblo*” Thomson Aranzadi, Zizur Txikia, 2008. urtea, 174. orrialdea

³⁰ Besteak beste, Universidad d’Uvieú-ko katedraduna den HUERGO LORA, Alejandrok gaiaren arabera zuzenbideak eta ordenamenduak aurreikusitako bide eta baliabide juridikoetaz baliatzearen aldeko autua egiten du, “*La resolución extrajudicial de conflictos en el derecho administrativo*”, Publicaciones del Real Colegio de España, 2000. Studia Albornotiana

administrazioak ezingo ditu bere neurritz gaineko prerrogatibez baliatuz aldebakarreko erabakiak arbitrarioak hartu. Bitartekaritza honela, interes orokorraren alde egiten duen elementu gisara azaleratu egiten da, abantaila nagusien artean administrazioaren jarrera eta jokaeretan, herritarrok, eragina izatea ahalbidetzen duelarik.

Egia da, beste zenbait jurisdikzioetan gertatzen ez den bezala, non transakzioak bilatu eta akordioak lortzeko aukerak handiagoak diren horretarako borondatea existituz gero, ez da bera gertatzen ordea administrazioarekiko auzien alorrean. Azken finean, administrazioak errotua dauka amore eman eta akordioak onartu ahal izateko berezko ahalmen eza, izan ere interes orokorren gaineko ordezkari gisara jardunez gero, alderdi eskatzailearen pretentsioak onartzeko unean borondate eza erakutsi egiten du. Halere, doktrinan badira flexibilitate eta moldatze ahalmen handiagoa eskatzen dutenak, LOPEZ MODEL-en kasua bereziki aipagarria da, zeinak letratuen beraien konfiantzan oinarritutako kautelei jarraiki, bestelako jurisdikzioetan, sozialean bereziki, lortzen diren akordioen espirtuaren antzekoak jurisdikzio honetan ere lortu daitezkeela defendatzen dutenak.³¹

Administrazio zuzenbidearen esparruan bitartekaritzak gatazka sortu aurretiko tartean eraginkortasun handia izan dezakeela onetsi beharra dago, administrazioaren borondatea islatze aldera administrazioak diskrezionalitate maila handia edo osagai tekniko handiak dituzten gaietan. Administrazioaren zenbait egintza eta jarduera arlo juridikoez gaindiko izaera dute (indemnizazioen zehaztapena, funtzionarioen negoziazio kolektiboaren inguruko gatazka...) eta beste batzuk egitate teknikoetara mugatzen direnak, plano juridiko gehiegirik ez dutenak, zerbitzu publikoen prestazio izaerakoak, hala nola, osasun mundukoak (itxaron zerrenden lehentasun sistema, paziente zehatzen erabaki klinikoak) edo tokiko esparrukoak, eremu publikoen erabilerarekin loturikoak, zerbitzu publikoekin loturikoak, udal ekipamenduen kokapenarekin loturikoak, zeinaren aurrean administrazioek konponbidea eskaini dezaketen egintzak hartu beharko dituzten. Esparru hauetan administrazioak hirugarren inpartzial baten presentziaz baliatu daitezke herritarrokin bitartekaritza prozedura bat jarraitzeko, baina bestelako kasuetan, oso zaila

³¹Gainerako jurisdikzioetan eskaintako malgutasun beraren alde agertzen da doktrinaren zati bat, hala nola, LÓPEZ-MODEL BASCONES, Jesús “*Mediación judicial en el contencioso administrativo*” Consejo General de la Abogacía Española, Agenda de Formación, 2012. urtea

izan daiteke berez eta inolako derrigortasunik gabe bere kabuz bitartekari inpartzial baten presentzia laguntzailea onartzea.³²

3.2. Ahalmen arautuak eta diskrezionalak

Espainiar estatuan, bitartekaritzara bideratuak izan daitezkeen gaiak transakzioa ahalbidetua duten gai zerrenda bera osatu behar dute, edota 39/2015 Urriaren 1eko legeak arautzen dituen biak (administrazioarekin negoziazio konponbidera hurbiltzen direnak, administrazio prozeduraren itundutako amaiera arrun bat, edo babes helegiterako administrazio errekursoaren eraldaketa dakarren 112. artikulukoa); ahalmen diskrezionaletara, eta arau juridikoen aplikaziorako egitateen zehazpenera mugatuak daudenak.³³

Azken finean, administrazio publikoen alorrean bitartekaritza prozeduren erabilerak zenbait muga eta oztopo dituela oihuztatu beharra dago, zeinetan handienetako bat bitartekaritzaren objektu izan daitezkeen gai eta arloak finkatzea den, edo Administrazio Prozeduraren Legeko terminologia erabiliz “Trantsakzionatu ezin daitezkeen gaiak”. Halere, bitartekaritzan landu daitezkeen zenbait gai garrantzitsuren presentzia egon daiteke, zeinen barnean administrazioaren kontratuz kanpoko erantzukizuna topa dezakegun.³⁴

Honenbestez, ohar egin behar da Jurisdikzio Legeak ez duela araudi berezirik jasotzen ezta zerrendarik ezartzen trantsakzionatu daitezkeen gaien inguruan, 77. artikuluan agertzen den “kantitatearen estimazioa” xedapena baztertuta. Ildo honetatik, babes judizial eraginkorraren printzipioari jarraiki, ulertu beharko litzateke soilik posible izango bitartekaritza prozedurarekin ekitea alderdientzat xedagarriak diren alorren gainean, zeintzuen ebazpena ez den hirugarren babestuen esfera juridikoaren kontrakoak.

³² Garrantzia irabaziz doa zerrenda baztertzailer baten presentzia aldarrikatzen duten autoreen sona, hauen artean, TORNOS MÁ, Joaquín “Administrative Justice y Administrative Tribunal en el Reino Unido. Un modelo a tener en cuenta” AGUDO GONZALEZ, Jorge (zuzendaria), *Control administrativo y Justicia Administrativa*, INAP, 2016. urtea, 170. orrialdea

³³ Bitartekaritzara bideratu daitezkeen gaien zerrendan ezinbestekoa da kontratuz kanpoko erantzukizunaren esparrua barneratzea, horrela dio, BOOTELLO FERNÁNDEZ, Susana, “*Hacia la mediación en vía administrativa. Límites de la administración*” Dykinson, 2017. urtea, 328. orrialdea

³⁴ ORDÓÑEZ SOLÍS, David “La directiva sobre mediación y sus efectos en el Derecho español: “Fuera de los tribunales también hay justicia”, *Diario La Ley*, 7165. Zenbakia, 2009ko apirilaren 30a.

Halaber, ezinezkoa izango litzateke bitartekaritzapean kokatzea erregelamenduen aurkako zuzeneko inpugnazioak, pertsona talde anitz zehazkabe bati zuzendutako administrazio egintzak, zein akzio publikora zabalik dagoen edozein gaiaren ingurukoak. Kontrara, interpretazio arauen inguruan aplikagarria izan daiteke bitartekaritza, hein honetan, hitzarmen eta kontratuetao estipulazioen interpretazioaren inguruko gatazkak, diruzko kantitateen erreklamazioa (nahitaezko desjabetzeak, administrazioaren ondare erantzukizuna...) eta orokorrean administrazio diskrezionalitatea existitzen den alorretan.³⁵

Baina noski, kontuan hartu behar da zuzenbide pribatuaren alorrean gaudenean, bitartekaritza at geratzen dela ordena publikoa eta aginduzko legeen alorrak, muga honek ordea, Zuzenbide Publikora igarotzean ordea, printzipioz oztopo handi bat dakar, hain hedapen handia baitauka termino horrek zeinen Administrazio Zuzenbidean existitzen diren *ius cogens* arauen presentzia izugarriaren ondorioz eduki gabe utzi dezakeela bitartekaritza prozedura, interes orokorra eta legezatasun printzipioaren gorentasuna dela medio.³⁶

Halere, azaldu behar da legezatasun printzipioa ez litzatekela urratua geratuko egitateen edo egitateen aurrean sorturiko gatazkari aplikatu behar zaion legearen zehaztearen inguruan edo arau horren interpretazioaren inguruan existitzen denean bitartekaritza.

Administrazioaren jarduna arautzen duen arauak, bere aplikaziorako egitate sinpleen egiaztatze bat galdatzen duenean, zeinen gainean beraien existentzia edo existentzia eza soilik egiaztatu behar duen, ez baitira gradu handiago edo txikiago batean existitzen ezta ez dute administrazioaren aldetik inolako balorazioaren presentziarik behar, eta ondorioz arauaren aplikazio bat eta bakarraren existentzia soilik egongo denez, ez da inolako administrazioaren diskrezionalitatearen mende geratzen. Halere, posible izan daiteke araudiak administrazioaren egintza era zehazkabe batean formulatua egotea, kasu honetan

³⁵ Diskrezionalitadedun egintzetara bitartekaritza zabaltzearen aldeko hautua egiten da, honela, GARCÍA VICARIO, M.^a Concepción, “La mediación como sistema (...)”, *Op. Cit. 18. orrialdea*

³⁶ Beharrezkoa dirudi ordea, zuzenbide pribatuak eskaintzen duen malgutasun eta aukera zabaltasunetik, *ius cogens* araupeko zuzenbide publikoak barneratzen dituen mugen arteko konparaketa egitea, SÁNCHEZ GARCÍA, Alfonso, “La oportunidad de la mediación administrativa como respuesta a las necesidades del sistema de resolución de conflictos entre administración y administrado” Dykinson, 2017. urtea, 374. orrialdea,

jardun arautik urrundu egingo ginateke, arauak ez baitu zehazten ezta erreferentziazko irizpide aldaezinik eskaintzen zehaztapena egiteko.³⁷

Bada, beharrezkoa da administrazioaren jardun arautua eta ahalmen diskrezionalen arteko bereizketa egitea, azken honetan arauak eskaini egiten dizkion mugen barnean aukeratzea burutu dezakeela adierazi dezakegu. Ildo honetatik hainbat autorek, tartean SANCHEZ GARCIA-k, aitortu egiten dute ez daukala gaur egunean egintza diskrezional eta egintza arautuen arteko berezko bereizketa bat egitea, ez baitira beraien ustez osoki diskrezionalak diren egintzak ordenamenduan existitzen, izan ere eskuduntza, prozedura, partehartzea eta helburua, interes orokorra dena, ahalbidetzen duten supostu faktikoez elementu arautuz osatuak baitaude, existitzen diren elementu diskrezionalak erabiltzeko unean ere hauen arauketak ezarritako ondorio eta helburuetara moldatua geratu beharko delarik, baita ere zuzenbidearen printzipio orokorretara, arbitrariotasunean ez murgiltzeko.³⁸

Orokorrean ahalmen arautuen kasuetan bitartekaritzarik onartzen ez dela adierazi ohi dute autore gehienek, CARBALLO MARTINEZ tartean, baina kontrako ahotsen garatze bat ere gerta daiteke. Hein honetan, derrigorrezkotzat eta ulergarritzat hartu behar da egintza arautuak oinarritzat duen arauaren betetze objektiboa dakarrela, baina ulergarritzat ere jotzen da, eta bitartekaritzarekin bateragarria, herritarron eta administrazioaren arteko harremanetan moldatutako irtenbideak lortzea, absolutuki arbitrarietate bat suposatu dezakeen xedapen eta printzipio konstituzionalen aplikazio zurrun edo zorrotz bat saihesteko helburuarekin. Honela, diskrezionaltasuna existitzen den kasuetan, ahalmen arautuetan existitzen den bitartekaritza ahalmen handiagoa eskaini egiten da, non eksklusiboki kasu zehatzean aplikatu beharreko arauaren interpretazioa burutzeraz mugatzen den.³⁹

³⁷ Ildo honetatik, DESDENTADO DAROCA, Eva “*Los problemas del control judicial de la discrecionalidad técnica (Un estudio crítico de la jurisprudencia)*” Cuadernos Cívitas, 1997. urtea, Madril, 30. orrialdea

³⁸ Bitartekaritzara bideratutako ahalmen diskrezionalak eta arautuak bereiztearekin batera, administrazioaren arbitrariotasun kasu posibleak saihesteko aukera aurreikusitako egiten da, SÁNCHEZ GARCÍA, Alfonso, “*La oportunidad de la mediación (...)*” *op. cit.* 379. orrialdea.

³⁹ Ideia honi jarraiki, CARBALLO MARTÍNEZ, Gerardo “*La mediación administrativa y el defensor del pueblo*” *op. cit.* 171. orrialdea

Berezkoa izango litzateke horrela bitartekaritzara bideratu daitezkeen gai eta alorren gaineko zerrenda bat osatzea, honek inplizituki dakarren lan eskerga bati jarraituz, doktrinak orokorrean ez du berezko gai zerrenda posible bat aldarrikatzen, baizik eta kontrara, bazterketa sistema bati jarraituz, oinarrizko eskubide, administrazio potestate, interes orokorreko balorazioak, zehapenak zein autoritate funtzioaren egikaritzea zuzenetik ondorioztatutako gatazkak ADRen aplikaziotik at kokatzen dituzte, administrazioaren bidezko edo kontrol judizial batera osoki meneratuak egon beharko zirela zehaztuz, AVILES NAVARRO-k ikuspuntu hau eskuratu egiten duelarik. Ondorioz, guztiz aplikagarria izango litzateke transakzioaren elementuaren barnean, indemnizazioen zehaztapena, balio justua, konpentsazio edo erreskatea, legalki zehazkabeak diren kontzeptu faktikoen zehaztapena, magnitudeen konkretzioa, ingurugiro, urbanismo, lurraldearen antolamendu zein sektoreko planifikazio orokorraren parametroak barne kokatu egiten direlarik.⁴⁰

Ildo honetatik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioarekiko auzibarneko bitartekaritzaren inguruko 2011ko mintegian adituek adierazi zuten bitartekaritzan aplikagarriak direla Administrazio Zuzenbideari loturiko edozein gai transakziora bideratu daitezkeenak betiere oinarrizko pertsonen gaineko eskubideen kontra, ordena publikoaren kontra edota hirugarrenen interesen kontra jotzen ez duten heinean. Orduan, mintegi honetan ez zuten zerrenda bat sortzearen alde egin, bitartekaritzaren barnean sartzeko gaiak beharrezko dituzten ezaugarriak zeintzuk diren finkatzea hobetsi zutelarik. Halere, adibide gisara zenbait gairen gaineko zerrenda posible bat proposatu zuten; kontratu publikoak, desjabetzeak, zarata eta soinuen intsonorizazioa, autorizazio eta baimenen emate, kentze eta eraldaketa, hitzarmen urbanistikoak eta lizentzien eskaintzea (betiere ordena publikoa eta hirugarrenen interesak babestuz), desjabetze hitzarmenak, ondare erantzukizuna, funtzio publikoa (konkurtsu lehiaketako merituen balorazioa), zerga zuzenbidea; baloreen frogantza edo errolda egintzak, dirulaguntza eta bestelako diru iturri publikoen esleitzea, datu katastralen errektifikazioa; zuzenbide zigortzailea, santzioen graduazioa eta beste hainbat.⁴¹

⁴⁰ Gaur eguneko arauketa ezaren aurrean, bitartekaritzara bideratuak izan daitezkeen auzi zerrenda posible ugari aurkitu ditzakegu, bai martxan dauden esperientzia pilotu zein doktrinaren aldetik, hauen artean, AVILÉS NAVARRO, María “La mediación en los diferentes órdenes jurisdiccionales” *op. cit.*

⁴¹ Hein honetan, bestelako zerrenda posible bat eskaini egiten digu bitartekaritzea mintegi batetik eratorritako ondorio gisara, FERNÁNDEZ DE BENITO, M.^a Jesús, “Seminario sobre mediación

4. Subjektu parte hartzaile posibleak

4.1. Publiko, pribatu, mistoa

Behin gatazka judizializatu egin denean, bitartekaritza sistema azkar, eraginkor eta merkeena prozesuko epaileak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko Legeko 77. artikulua ahalbidetutako mailaren barnean burututakoa dela aldarrikatu egiten du doktrinaren zati batek, ROJAS POZO besteak beste, esanez gatazka bitartekaritzara bideratzean hirugarren bitartekari pribatuek parte hartuz gero porrot gorena ondorioztatuko dela.⁴²

Bitartekari pribatuen ezarpena guztiz baztertu behar den ideia bat da, izan ere, pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezkeen partaide hauek, azken finean administratuak dira, zeinak Administrazio Publikoek gure estatuan duten indar eta boterea zein den kontuan hartuta hauei gustua egiteko pizgarri gisara ulertu liteke, gutxienez haientzat ekonomikoki garrantzi eta isla handia duten gaien inguruan.⁴³

Bitartekaritza eraginkorra izan dadin egokitzat hartu egiten da prozesu judizialek at kokaturik dagoen profesional kualifikatu eta independente batek burutzea, honek ez duelarik alboratzen epaile edo magistratuak berak era informal batean bitartekari lanak burutzea, jurisdikzioari karga kentzeko baliabide egokia den heinean, ez du prozeduraren eteterik bultzatzen eta independentzia judizialari begira ez da kaltegarria, alderdien askatasuna bermatu egiten delarik.

Halere, kontuan hartu beharra dago bitartekariaren heziketa eta formakuntzak ezinbesteko garrantzia eskuratuko duela kasu honetan. Hein honetan, baztertua geratu egin da doktrinaren zati baten iritzi, GARCIA VICARIO azpimarratu behar dugularik, jurisdikzioan bitartekari azpikontratatuaren gabinete baten sorrera bultzatzea, letratuek izan

contencioso-administrativa: soluciones prácticas a planteamientos masivos de recursos/unificación de criterios”, *ICAV*, 28 de enero de 2011, 11. orrialdea

⁴² Hein honetan, ROJAS POZO, Casiano “La mediación administrativa” *Revista Cuatrimestral de las Facultades de Derecho y Ciencias Económicas y Empresariales*, 98. Zenbakia, maiatza-abuztua 2016. urtea, 183-200. Orrialdeak

⁴³ Bitartekaritza prozeduran AAPPak partaide diren kasuetan bitartekari pribatu baten presentziak izan ditzakeen arazo eta gatazka pertsonalei dagokienez, SÁNCHEZ GARCÍA, Alfonso, “*La oportunidad de la mediación (...)*” *op. cit.* 379 orrialdea,

dezaketen formakuntza murriztagoa izateaz gain, esperientzia ezak kalte egin diezaiokeelako zuzenean prozedura osoari.⁴⁴

4.2. Justizia Administrazioaren Letratuak

Justizia Administrazioaren Letratuek (Aurretiazko Idazkari Judizialak) bitartekaritza alorraren gaineko eskumenak eskuratzeak beraien funtzioen gehiegizko hedapen bat dela dirudien arren, azpimarratu beharra dago bestelako ordena jurisdikzionaletan lan adiskidetzearen saiakeran egiten duten funtzioaren antzekoa figura juridikoaz hitz egiten egongo ginatekela.

Botere Judizialaren 6/1985 uztailaren 1eko Lege Organikoko 456. artikulua berak, justizia administrazioaren letratuei, aurretiaz idazkari judizialaren izendapenaz ezagunak izan diren goi mailako kidego juridikoko subjektuei, 7/2015 uztailaren 21eko BJLO aldarazteko Lege Organikoak txertatutako eraldaketak direla medio, izendapena aldatzeaz gain hauen eskumenen hedapen bat bultzatu egin zuen. artikulua berak definitu egiten Justizia Administrazioaren Letratuek, lege prozesalek horrela aurreikusten duten kasuetan, beteak beste adiskidetzea burutzeko ahalmena dutela, beraien jardunari lotutako bitartekaritza funtzioak burutuz, zein bitartekaritza prozesuak zuzenean gidatzekoa. Hau horrela izango balitz, komenigarria suerta liteke bitartekaritza auzia ospatzeko ezarritako eguna ez den batean burutzea, beharrezkotzat hartzen diren saioetan zehar egikaritutako delarik prozedura, bestela, auziaren ikustaldia egin aurretik kokatuz gero bitartekaritza prozeduraren momentu prozesala, izapide hutsa bihurtzeko aukera asko existituko lirateke.

Era berean arlo zibilar dagokionez, 13/2009 azaroaren 3ko legearen bidez, borondatezko adiskidetzeari dagokionez zenbait eraldaketa txertatu zituen 1/1881 PZL-n, eta gauzak honela 460. artikulua nabarmendu beharra dago, zeinak idazkari judizialari (gaur egunean justizia administrazioaren letratuei) aurretiaz lehen instantziako edo bake epaileei zegokien adiskidetzea burutzeko eskumena aitortu egiten dion. artikulua zuzenean adierazi egiten du epaiketa hasi aurretik, lehenengo instantziako epaitegiko Idazkari Judizialaren aurrean zein eskuduna den bake epailearen aurrean adiskidetze saiakera

⁴⁴ Honela, GARCÍA VICARIO, Concepción, CARBALLO MARTÍNEZ, Gerardo (zuzendariak), "Seminario – La mediación en la jurisdicción contencioso-administrativa", *Consejo General del Poder Judicial*, 2013ko Maiatza, 1-4 orrialdeak

burutu daitekeela. Era honetan, eta idazkari judizialak ez duelarik ondoren behin betiko auzia ebatziko, maniobrarako ahalmen hedatuagoa izango du, eta auziaren erabakia ez da kutsatua geratuko, epaile edo magistratuaren inpartzialtasuna bada, ez delarik inondik inora kolokan jarriko.⁴⁵

Azkenean, lege honen bitartez Idazkari Judizialei ekintza multzo baten gaineko eskuduntza eskaini egin zaie, aurretiaz epaile eta auzitegiek egikaritzen zituztenak, eta berez jurisdikzionalak ez direnak. Hala eta guztiz ere epaile edo auzitegien eskuduntza galera hau lan kargaren zuzeneko murrizte bat lez ulertu beharra dago, justizia administrazioaren funtzionamenduan hobekuntza bat suposatu duelarik, eta ez epaileak prozesuaren gidaritzan duen botereen murrizketa bat. Erreformaren bidez eta lan adiskidetzeari dagokionez, idazkari judizialari funtzio hauek eskaintzearen ondorioz gatazkaren ebazpena lortze aldera sortutako atzeraldiak ezabatuko dira, izan ere, funtzio propioki jurisdikzionala atzeratu egiten zen epaileak berak berezkoak ez ziren adiskidetze “judiziala” bezalako arloak burutu behar zituelako, ahozko epaiketa hasi baino lehen.⁴⁶

Hala eta guztiz ere, eskuduntza honen egozpenak ez du gauza berririk eskaintzen ordenamendu juridikoaren barnean, 36/2011 urriaren 10eko LJL berak, 84. artikuluan Idazkari judizialei adiskidetzea burutzeko ahalmena eskaini egiten baitie, berariaz dagokien bitartekaritza funtzioa medio, honi dagokiolarik alderdiek lorturiko akordioaren onarpena, akordioaren izaera adiskidetze judizialaren bera izango delarik. Horregatik, argigarria gera daiteke Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan bertan, era analogo batean bitartekaritza funtzioa idazkari judizialei esleitzea.⁴⁷

⁴⁵ Esparru honetan, bitartekaritzaren esparruan son handia duen tesiaren egileari erreferentzia egitea ezinbestekoa da, gaur egunean Espainiar Estatuko Justizia Ministerioan diharduen, AVILÉS NAVARRO, María “La mediación en los diferentes órdenes jurisdiccionales”, *op.cit.* 4 orrialdea

⁴⁶ Idazkari judizialen botere eta eskumenak hedatzearen alde agertu egiten da honela, ZAFRA ESPINONSA DE LOS MONTEROS, Rocío “El papel del secretario judicial en la conciliación laboral tras la reforma de la LPL” *Revista internacional de estudios de derecho procesal y arbitraje – RIEDPA*, 3. Zenbakia, 2010. urtea

⁴⁷ Ideia honi jarraiki, Deustoko Unibertsitatetik zuzenbidean doktore aitorturiko BURZACO SAMPER, María, “Los Métodos Alternativos de resolución de conflictos en el derecho administrativo. Especial referencia a la mediación intrajudicial”, ABEL LUCH, Xabier (koordinatzailea), *Congreso Unijes 2013, Las medidas preventivas de conflictos jurídicos en contextos económicos inestables*, 2014. urtea, 584 orrialdea.

Idazkari judizialak burutu dezakeen adiskidetze honen helburua etorkizuneko prozesu judizial edo arbitrala saihestean datza, alderdien arteko gatazka ebaztearen ondorioz, etorkizuneko prozesua objektu gabe geratzeko asmoarekin. Prozesu aurreko adiskidetzea, orokorrean, borondatezkoa da, bake epaileak emaniko autoa zein idazkari judizialak emaniko dekretua, zeinetan alderdien akordioa jasotzen den titulu exekutagarria da eta edozein motatako obligazioak jasotzeko aukera dute bertan, betiere legearen errespetu pean.⁴⁸

Era berean 2007. urtean jada, *Centre d'Estudis Jurídics i Formació Especialitzada*, Kataluniako erakundeak, Idazkari Judizialen profil profesionalari dagokionez, hauen kompetentziei dagokionez bitartekaritzaren inguruko datu eta ezaugarriak ezagutzera eman zituen zehaztuz hauen funtzio profesional gisara positiboki kontsideratuak izango zirela; *Saber reconèixer quan no és possible resoldre el conflicte a través de la mediació entre les parts i adoptar altres sistemes de solució..*” zein “*Actuar com a mediador imparcial entre les parts en conflicte, ajudant-les a que arribin a resoldre el conflicte*, besteak beste.⁴⁹

Espaniar estatuan existitzen den auzi maila altua dela eta, 2017. Urteko datuei erreparatuz, 126,1 auzi barneratu ziren jurisdikzio orotan batazbestean 1000 biztanleko, aurreko urteko 124,9 auzirekin konparatuta, % 1eko igoera bat suposatu duelarik⁵⁰, botere legegile zein eragile juridikoez erabaki eta neurri posibleen inguruko ideiak zabaltzeari ekin egin izan dio, horien artean, judizioz kanpoko gatazken ebazpenerako sistema berezien aplikazioaren alde egin izan dute, auzibarneko zein kanpoko bitartekaritza aipatuz.

Estatuan ordea, ez da oraindik akordioak sustatzeko kulturarik existitzen, operadore juridiko guztien mentalitate aldaketa bat bultzatu beharko delarik horrela, abokatu,

⁴⁸ Adiskidetzeetan Justizia Administrazioaren Letratuek duten presentziaren inguruan, SAN CRISTOBAL REALES, Susana “Sistemas alternativos de (...)” *op.cit.* 39-62. orrialdeak

⁴⁹ Idazkari judizialen (Gaur eguneko Justizia Administrazioaren Letratuak) Katalunia barneko izaera eta funtzioei dagokienez, Centre d'Estudis Jurídics i Formació Especialitzada, “PERFIL PROFESIONAL DEL SECRETARI JUDICIAL DE CATALUNYA”, *Generalitat de Catalunya*, 2007ko abendua, 1-36 orrialdeak

⁵⁰Urteroko datuei erreparatuz, jurisdikzio ezberdinetatik eratorritako datuak eskaini egiten ditu BJKN-k, hiruhilekako aldizkatasunarekin, Consejo General del Poder Judicial “*La justicia dato a dato: año 2017 Estadística Judicial*” CGPJ, 2018. Urtea, 114. Orrialdea

prokuradore zein epaile eta magistratuez gain, hiritar eta administrazioaren aurrekontzeptuak ere aldatu egin beharko direlarik. Hau lortze aldera egokia suerta daiteke, doktrinaren esparru batek, VIGUER SOLER-ek tartean defendatzen duen ideiarene zabaltzea; etorkizunean gaiak ezagutuko duen epailea bitartekari izatetik aldentuz edo idazkari judizialei edo hirugarren formakuntzadun bitartekari profesionalei bitartekari funtzioak esleituz, betiere estatuaren aldetik lege eta arauketa egoki eta nahiko bat existituz gero, bitartekarien estatututik haratago joanez.⁵¹

Hala eta guztiz ere, azalera ekarri behar da epaileen lan kargaren murriztearen aldeko autua egiten dela adieraztean, kontuan hartu behar dela lan kargaren arazoa ez dela berez arlo jurisdikzionalaren amaierako ebazpena eskaintzen duen epaile eta magistratuetara mugatzen, gainerako organo judizialean ere dagokien lan karga oso altua baita, hala eta guztiz ere idazkari judizialek bere funtzioen egikaritzan duten tarteak kontuan hartuz egoki eta gomendagarria suerta daiteke beraien eskuduntzen barnean kokatze bitartekaritza saiakera.

Justizia Administrazioaren Letratuek burutzen dituzten bitartekaritza prozeduraren ondoriozko akordioei indar lotesle eta exekutagarria eskaini egin behar zaio, hau onartzen ez baldin bada judizialki homologatuak ez dauden akordioen maila berean kokatuak egongo ziren, horretarako idazkari judizialak akordioa barneratzen duen dekretuari izaera loteslea eskaini behar zaio, nahiz eta betearazpenaren inguruko arazorik sortuz gero epaile batengana jo beharko duten EK-ko 117. artikuluari jarraiki. Hori dela eta dekretuaren izaera juridikoa zein den ezarri behar da, dokumentu gisara eta onarpen eta homologazioaren arteko konponbideak eskaini behar direlarik.⁵²

Hala eta guztiz ere lan kargaren areagotzearekin batera, kontuan hartu behar da bitartekaritzaren kasuan, adiskidetzeari gertatzen ez den bezala, formakuntza berezi bat izatea galdatzen duela, horregatik, hainbat autorek, hauen artean, AVILÉS NAVARRO

⁵¹ Idazkari judizialen edo bestelako hirugarren profesionalizatuen aldeko autua egiten du hein honetan VIGUER SOLER, Pedro Luís “Algunas propuestas para la reducción de la litigiosidad y la agilización de los procedimientos”, *Wolters Kluwer Editoriala, Práctica de Tribunales*, 74. Zenbakia, Sección tribuna libre, 2010eko Iraila

⁵² Justizia Administrazioaren Letratuei burutzen duten akordioen beharrezko homologazio prozesuari dagokionez, ZAFRA ESPINOSA DE LOS MONTEROS, Rocío “El papel del secretario (...)” *op.cit.*

dugularik, ulertu egiten dute idazkari judizialak zirenak bitartekari funtzio hori burutzeko unean 980/2013 ED-ak, zibil eta merkataritza arloko legea garatzen duenak ezarritako betebeharrak bete beharko zituztela. Hori dela eta formakuntza bereizi baten presentzia aldarrikatu egiten dute administrazioarekiko auzien alor juridikoan zein bitartekari gisara ere heziketa propioa jaso beharko zutelarik, horrela bere funtzioak egoki burutu ahal izateko.⁵³

4.3. Epailea

4.3.1. Kasuaz ezagutzen duen epailea

Kontuan hartuta bitartekaritzara jotzearekin batera ez dela gatazka konponduko denaren inolako bermerik existitzen, autore batzuen esanetan, BURZACO SAMPER-en hitzei jarraiki, argi geratzen da ez dela auziaz ezagutu beharko zuen epailea bitartekari izan behar, bere inpartzialtasun eta konfidentzialtasun printzipioak urratuak izan baitaitezke, ondoren ezagutu eta ebatzi behar duen auziaren unean. Hala eta guztiz ere, eredu gisara erabiltzen den sistema dela begietaratu beharra dago, gaur egunean Espainian existitzen diren esperientzia pilotuetan aplikatu egiten dena, eta egingarria, betiere epaileak bere botere jurisdikzional eta bitartekari ahalmenen artean oreka zail bat mantentzeko gai baldin bada.⁵⁴

Hasiera batean ordena jurisdikzional honetan izandako bitartekaritza supostuetan Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko epaileak jarduten zuen bitartekari bezala, *a priori* zentzugabekeria bat dela dirudien kontua. Izan ere, epaileak berak alderdiak epatu egiten zituen egoitza judizialean lagunkoia izan zitekeen akordio bat lortu ahal izateko prozesua etenez. Hau da, ez zen hirugarren inpartzial baten partaidetzarik, baizik eta gaiaz ezagutzen zuen epaileak berak burutzen zuela. Honek, berez zenbait muga sortzen zituen, bereziki epaileak bitartekaritza prozedura akastu egiten zuen, akordiorik lortzen ez bazen

⁵³ Justizia Administrazioaren Letratuek bitartekaritzari dagokionez, funtzio gehigarriak eskuratzearen esparruan, formakuntza bereiziaren beharra aldarrikatu egiten du doktrinak, hauen artean, AVILÉS NAVARRO, María “*La mediación intrajudicial en el orden contencioso-administrativo: evolución hacia una nueva realidad*” Universidad Carlos III, 2014. urtea, 257. orrialdea

⁵⁴ Gaur egunean indarrean dauden esperientzia pilotuen funtzionamenduari dagokionez, BURZACO SAMPER, María “*Los metodos alternativos de resolución (...)*” *op.cit.* 583. orrialdea.

prozesu arruntean lortu ez zitzakeen informazio eta dokumentazioen berri izateko aukera existitu zatekeelarik.⁵⁵

Prozesu judiziala gidatzera bideratuta dagoen epaileak bitartekari lanak egitearen inguruan, epaile izatearen ondorioz bere esku duen ezagutza juridikoa eta gaiaren inguruan duen jakituria onura nagusi gisara ulertu beharra dago, kontrara, prozesura joz gero kontaminatu izatea, konfidentziasunaren urradura posibleak, alderdien konfiantza gabezia eta bitartekari lanak burutze aldera izan ditzakeen abaguneak izango lirateke kalte nagusiak.

Honela, gaur egunean erabili egiten den sistema honi jarraiki, ez dugu alderdiak akordio batera heldu daitezten lan egiten duen hirugarren inpartzial baten presentzia aurkitzen, baizik eta gaiaz ezagutzen duen epailea bera izango baita, honek mugatze oso handiak ekarriko ditu. Izan ere, epailearen bitartekaritza saiakerak gorabehera, akordiorik lortzen ez den kasuetan, honek, alderdiek prozesuaren barnean argitara atera ez zezaketen informazio eta datuen ezagule izan daiteke, bitartekaritzaren ezaugarri nagusia den konfidentziasuna urratuz.⁵⁶

Halere, azpimarratu beharra dago epaileak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legearen 77. artikuluari jarraiki burutzen duen bitartekaritza jardunaren helburua ez dela “legezkotasunaren” bila egiten, epaile eta alde bihurtuko zuelarik horrela, baizik eta “aukeraren” bila, administrazioak transakzionatu edo akordioetara heldu ahal izateko ezinbesteko ezaugarria izango zelarik, eta ondoren “komenigarritasuna” bi aldeentzat bilatzean, betiere kontuan hartuta interes orokorraren existentziarekin. Halere, inpartziasunaren galeraren ideari dagokionez, epaileak agertze honetan toga ez daramala aldarrikatzen dute askok, bere funtzioa jurisdikzionala ez dela aldarrikatuz.⁵⁷

Konfidentziasunaren galeraren inguruan ere, honen mantentzea ematen dela adierazten dutenen aurrean, BELANDO GARÍNek, adierazi egiten du ideia honek ez dauka inolako argudiaketa formalik, izan ere esan ohi denez akordiorik egiletsi egiten ez den kasuetan,

⁵⁵ Kasuaz existitzen den epailearen erabilerak sortu ditzakeen mugei dagokienez, irakurri, BELANDO GARÍN, Beatriz, “La mediación administrativa: Una realidad (...)” *op.cit.* 265-273 orrialdeak

⁵⁶ Esparru honetan, BELANDO GARÍN, Beatriz “*La mediación administrativa desde la perspectiva de los letrados*” Anuario de Justicia Alternativa Número 13, JM Bosch Editor, 169-194 Orrialdeak

⁵⁷ Epaileak etorkizuneko auziari dagokionez jasan dezakeen inpartziasun galeraren aukeraren inguruan, gomendagarria, ROJAS POZO, Casiano “*La mediación administrativa*” *op.cit.* 195. orrialdea

bitartekaritza burutzen duen eta ondoren auziaz ezagutuko duen epaileak, alderdiek agian prozesuaren barnean argitara aterako ez zituzten informazio eta dokumentuen berri izango luke, konfidentzialtasuna galdu eta ondorioz bitartekaritzaren erabilgarritasuna galduko zelarik.⁵⁸

Honen aurrean adierazi behar da oso erraz konpondu daitekeen alorraren aurrean gaudela, izan ere agertze edo konparezentzia hau prozedura judicial baten barnean egingo litzateke, eta ondorioz PZL-ko 147.1. artikuluan ezarritako dokumentazioaren gaineko arauketa izango luke aplikagarri, zeinaren arabera, *Las actuaciones orales en vistas, audiencias y comparencias celebradas ante los jueces o magistrados o, en su caso, ante los secretarios judiciales, se registrarán en soporte apto para la grabación y reproducción del sonido y la imagen y no podrán transcribirse*. Gisa honetan, epaileak hasiera batean esplikatu beharko luke erabili eta erakutsitako dokumentu eta froga orok ez duela ondoren sortu daitekeen auziaren barnean eraginik izango akordiorik lortu ezean, eta ondorioz kalteturiko alderdiak konfidentzialtasun promesa horretaz baliatu daiteke konfidentzialtasunaren urraketa gertatuz gero.⁵⁹

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko Legearen 77. artikulua berak ere konfidentzialtasun urraketaren inguruan egon daitezkeen gatazken inguruan irtenbide erraz bat eskaini egiten du, izan ere auzibarneko bitartekaritzan kokatzen gara, demanda tarteratu eta honen gaineko erantzuna behin eskaini egin denean ezarri egiten baita konparezentzia, beraz prozedura arruntari dagokionez ez da arazorik existituko, jadanik frogabide eta alegazioen inguruko debatea mugatua dagoelako. Prozedura laburtuari dagokionez ere, alderdiek jadanik beraien posizionamendua erakutsi egin duten administrazio espediente batetik eratorri den auzian kokatuko ginatke, izaera errebisatzaile bat duen jurisdikzioan kokatuko ginatkelarik.

4.3.2. Beste epaile bat

Prozesutik kanpoko epaile bat. Zentzu honetan nabarmendu beharra dago alternatiba eta aukera ezberdinak aurkitu ditzakegula talde honen barnean, bestelako jurisdikzio organoetan kokatutako epaileak, organo jurisdikzional berean dauden baina auziez

⁵⁸ Konfidentzialtasunaren printzipioaren inguruan, azpimarragarria BELANDO GARÍN, Beatriz, “La medición administrativa: Una realidad Jurídica” *op.cit.* 265-273 orrialdeak.

⁵⁹ Era berean alderdien arteko akordioei dagokienez existitzen den konfidentzialtasunaren gainekoerabakiaren inguruan, ROJAS POZO, Casiano “La mediación administrativa” *op.cit.* 195. orrialdea

ezagutzen ez duten bitartekaritzara dedikatzen diren epaileak, magistratu edo epaile emerituak, zein txandakatzeko sistema baten oinarritutako epaile zerrendak. Halere, begietaratu beharra dago bitartekaritzaren ondorio eta arrazoi nagusi bezala epaitegi eta auzitegiek gaur egunean duten lan karga murriztea dela, eta beraz, epaileen parte hartzea bitartekaritza prozesuan sustatuz gero, lan karga horren murrizterik ez da inondik inora emango.⁶⁰

Halere, beste auziaz ezagutzen ez duen eta ezagutuko ez duen epaile baten presentziak onurak ere ekarriko ditu, alderdiek jasan ditzaketen konfidentzialtasun eta inpartzialitate printzipioen urradurak ekidin daitezke jakina, administrazio zuzenbidean aditua den profesional batek kargua hartzen duen heinean.

Funtzio jurisdikzionalik gabeko auzitegiko magistratu liberatuaren irudia aztertzean, bitartekari funtzioetan eskusiboki jardunez gero, bitartekaritzan espezializazio maila altu bat lortzeko aukera existituko litzateke. Funtsean, Auzitegiko atal ezberdinetatik eratorri egingo dakioke bitartekaritza aplikatu beharreko gaiaren gaineko informazio eta eskaera, betiere bitartekaritza burutzeko gaien artean kokatzen denean, bai magistratuaren inizatiba propioz behin prozesuko alderdiekin kontsultatuta, edota zuzenean alderdien instantziaren ondorioz.⁶¹

Era berean bestelako epaileen partaidetza ezberdinak aztertzeko aukera existitzen da, bai gaiaz ezagutzen duen ataleko kide ez den bestelako magistratu batek burutu dezakeelarik ere bitartekaritza, zein pertsona bakarreko auzitegietako epaile batek, barruti judicial barnekoa dena, betiere lan kargaren banaketa proportzional bat burutzen den kasuetan edota magistratu emerituek. Hala ere, giza baliabide zein baliabide ekonomikoak kontuan hartuz, azken aukera hauen guztien gaineko baztertzea eskaini egiten da, bai gaiaren gaineko formakuntza nahikoa izango duen zein era fisiko batean bere funtzioak betetzeko aukera izango ez dutela ondorioztatuz gero, administrazioarekiko auzien auzitegi eta epaitegi orotan egotea eskatuko litzatekeelako.

⁶⁰ Eztabaidagarria suertatu egiten da, halaber, lan kargaren murrizketa erreal bat bultzatuko denaren ideia, honela, magistratua den FERNÁNDEZ DE BENITO, M.^a Jesús, “*Seminario sobre mediación(...)*”, *op.cit.* 6. orrialdea

⁶¹ Magistratu liberatuaren irudiaren presentzia berritzaileari dagokionez, GARCÍA VICARIO, María Concepción “*La mediación como sistema (...)*” *op.cit.* 1-27. orrialdeak.

4.4. Hirugarren subjektuak: abokatuak eta abokatuak elkarteak

Era berean abertitu beharra dago hirugarren kanpoko batzuen presentzia aztergai ere izan behar dugula. Bitarterkaritza externalizatuaren kasua izango litzateke hau, funtzio judizialeetatik at kokatuta dauden hirugarrenek, estatutu propio baten arabera jarduten dutenak, era indibidualizatu batean edo gabinete edo lantalde espezializatuetan jardun dezaketenak. Halere, bitartekari hauen lana kontrolatu eta egikaritu ahal izateko, aurretiazko baldintza eta eginbehar batzuk bete beharko lituzkete, hala nola publizitate eta gardentasunarekin lotura duten erregistro publiko baten datu basean nora jo eta harremanetan jarri ahal izateko gutxieneko datuak txertatuz.

Esanak esan, 980/2013, abenduaren 13ko ED-aren bitartez, zeinaren bidez 5/2012, uztailaren 6ko Legean ezarritako zenbait gai garatzen diren, merkataritza eta gai zibilen inguruko bitartekaritzari dagokionak, Bitartekariaren Erregistro publikoa sortu egin zen bezala, antzeko ideiei jarraiki, erregistro publiko batean inskribatzeko aukera aurreikustea gomendatzen dute.

Gaur eguneko indarrean dagoen Bitartekariaren Erregistro honek, hiru atal ezberdin dituenak; bitartekari soilak, bitartekari konkurtsalak eta bitartekari erakundeak (publiko, pribatu zein atzerriko naziokotasuna izan dezaketenak betiere bitartekaritza helburua dutenak) artean banatu egiten ditu, bitartekari konkurtsalei dagokienez derrigortasunez inskribatu beharko direlarik bertan, araudi espezifikoaren arabera ezaugarriak dagokienez duten erantzukizun berezia dela eta. Halaber, estatuko eta autonomia erkidego ezberdinetan existitu daitezkeen erregistroen arteko koordinazioa sustatzeko helburua du dekretuak. Baita ere betekizun ezberdinak erantzukizun zibil profesionalarekiko aseguru bat sortu daitezkeen gatazken ondoriozko kalteak konpontze aldera, zein bitartekaritza alorrean izandako formakuntza eta heziketa nahikoa frogatzeko datuak ere gutxieneko bost urteko hogeitortu orduko formakuntza praktikoa ezinbestekoa delarik erregistrotik at ez geratzeko.

Aurretik esan bezala erregistro honen inskripzioa borondatezkoa izango da, bitartekari konkurtsalen kasuan nahitaezkoasunez inskribatu beharko delarik. Hala eta guztiz ere, Dekretu beraren zioen azalpenean inskripzioa burutzearen inguruko gomendioa luzatu egiten zaie gainerako bitartekariari, inskripzioarekin akordioak publiko bihurtu eta homologatu ahal izateko bitartekari izaera eskuratu egiten baita, bitartekariaren estatutuaren

errespetua eman egin dela bermatzeko, zein erakunde jurisdikzionalak gaiak bitartekaritzara luzatu ahal izateko hurrenkera bat sortu eta prozesu osoa erraztu ahal izateko.⁶²

Adierazitakoaren arabera, administrazio auzietan bitartekaritza burutu ahal izateko, bitartekariaren gutxieneko formakuntza juridikoaren gaineko datuak, ez bitartekaritzaren objektua izango den gaiaren ingurukoa, baizik eta alor juridiko orokorraren gainekoa, akordioa erdietsi ahal izateko beharrezkoak diren baliabide intelektualak izan, eta bitartekaritza legezko terminoen barnean egikaritua izateko bermeak hartzeko gai izan beharko da. Ildo honetatik, ez da alde batera utzi behar inpartzialtasun printzipioaren gorentasuna errespetatu behar dela, neutraltasunean oinarrituz, xedagarritasunaren barnean jokatu, boluntarioki alderdiek onartu beharko dutelarik bere partehartzea.⁶³

Abokatuak ezingo du nolana ere bitartekari funtzioen jardunean administrazio eta herritarren artean existitzen den harremanean protagonismo osoa eskuratu, nahiz eta bitartekaritza prozeduraren prestakuntza handia egiten duen bai aurretik, zein honen jardunean, alderdien arteko oreka juridiko bat bilatzen saiatuko delarik, ordea. Bitartekaritza ez da berez Administrazioarekiko existitzen diren gatazka eta auzi guztietan aplikagarria suerta daitekeen prozedura bat, beraz, abokatuak berak bitartekaritza prozedura hasi aurretik, agindu juridiko zein ekonomiko guztien inguruko azterketa bat burutu beharko du, azalekoa zein sakona, bere ordezkatuari ahalik eta informazio egokiena eskaini eta eraginkortasun handiena lortu ahal izateko.⁶⁴

Bitartekaritza mota honen kontra agertu arren, azpimarratu beharra dago 2013ko apirilaren 30ean Kanariar Uharteetako Autonomia Erkidegoan martxan jarritako Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari dagokionez auzi barneko bitartekaritzari dagokionez aukera hau aplikatu egin zela, hau da, Administrazio Zuzenbidean adituak

⁶² Ideia honi jarraiki, RIPOL, Ignacio “El nuevo Registro de Mediadores”, *Newsletter abogacía*, 62. Zenbakia, 2014. urtea, 4. orrialdea

⁶³ Bitartekaritzaren ezaugarri eta printzipio gorenaren errespetuaren inguruan, FERNÁNDEZ DE BENITO, M.^a Jesús, “*Seminario sobre mediación (...)*”, *op.cit.* 6. orrialdea

⁶⁴ Abokatuak burutu beharreko auzi aurreko lanketari dagokionez, BELANDO GARÍN, Beatriz “La mediación administrativa desde la (...)”, *op.cit.* 169-194. orrialdeak

ziren bitartekari espezializatu eta hezituen panel bat alderdien esku jartzearen aldeko autua hartu baitzuen.

4.5. Herriaren defendatzailea

Herriaren defendatzaileak nahiz eta adiskidetze zien bitartekaritza prozesuekin hurbiltasuna izan dezaketen, egiatan ez dute prozedura hauekin lotura handirik. Figura sozial hauek ez dira bitartekari gisara kontsideratzen ez direlako alderdien arteko posturak hurbiltzen saiatzen akordio bat erdiesteko, baizik eta gatazkaren oinarriaren inguruko pronuntziamentu bat ematen baitute, eta ez dira adiskidetze prozeduraren barnean sartzen, eta are gutxiago arbitrai funtzioan ez dagoelako bi alderdien borondatezko txertatzerik bertara jotzeko, ezta emaniko laudoaren betearazpena emateko bermerik. Azken finean gaur egunean, Herriaren Defendatzailea, parlamentuko goi komisariodun izaeradunak, indarturiko estatus independente bat printzipioz bere esku duenak, administrazioaren ekintzetan aurkitu daitezkeen atxikimendu eta adostasunaren inguruan sortu daitezkeen gorabehera eta akatsak ebatzi eta konpondu ahal izateko administrazio beraren konpromezu eta babesean konfiatu ditzakeen organoa da.

Bere ebazpenek ez dute inolako lotesletasunik eta gaur egunean gatazkak konpontzeko judizioz kanpoko sistema berezi gisara kontsideratu beharra dago, erakunde gisara duen izen onean, objektibitate eta inpartzialtasunean oinarritu egiten direlarik bere ebazpenen betearazpenak.

Herriaren defendatzaileak burutzen duen bitartekaritza, bitartekaritza instituzional gisara ulertu egiten denak, nahiz eta ez daukan bere barne konstituzioaren babes espresu bat, administrazioaren jardunaren gainbegiratzea burutzeak herritarron eskubideen defentsan figura juridiko honen parte hartzearekin lortzen den logika konstituzional baten ondorioa baita. Hein berean, ekitatean oinarritutako bitartekaritzak dudarik gabe, defendatzailearen funtzioen jardunean posibilitate eta aukera handiak eskaini egiten ditu, Administrazioaren humanizazioa lortzea eta bere jardunean herritarron oinarritzko eskubideak sustatzeak defendatzailearen eskutik espero den bitartekaritzaren ondorio dira.⁶⁵

⁶⁵ Hein honetan, A Coruña-ko Unibertsitateko Administrazio Zuzenbidean Katedratduna den RODRÍGUEZ ARANA, Jaime-k, honela dio *“La mediación en el Derecho Administrativo”* AIDA- Asociación internacional de Derecho Administrativo, 2010. urtea, 8. Zenbakia, 453-486 orrialdeak

Hiru maila lurraldetar bereizi arren, hiru Herriaren Defendatzaileek amankomuneko ardatz bat dute, funtzioetatik at, beraien aukeraketa ez da merituetan oinarritutakoa, ezta konkurtso lehiaketa bidezkoa, alderdi politikoek burututakoa baizik, hirurak parlamentuetan; Eusko Legebiltzarrean, Espainiar estatuko Diputatuen kongresu eta Senatuan, zein Europar Batasuneko Parlamentuan egiten baitira.⁶⁶

Azken finean ondorioztatu beharra dago administrazio akzioen aurrean erreklamazioa tarteratu ahal izateko doako bide bat dela, instantzia publiko, inpartzial eta independente izaeraduna denean. Baliabide honen eraginkortasunaren inguruan debate eta zalantza ugari egon izan dira azken urteotan, halere, ohartarazi beharra dago gatazkak ebazteko bestelako bideen barnean koka daitekeela, prozedura judizial eta administratiboek barne dituzten muga formalez gain joateko elementua. Era berean, prozeduren izaera informala dela eta, prozesuek oso iraupen laburra izan ohi dute, defendatzaileek duten gatazkarekiko posizio pribilejiaduna dela medio, administrazioen patologia zein araudien nahikotasun eza salatu ditzaketeelarik.⁶⁷

Ildo honetatik Defendatzaileek administrazio datu guztietara sarbidea dute eta urtero aukeratuak izan diren organoaren aurrean egindako lanaren inguruko informea argitaratu eta kontuak ematen ditu. Bere funtzioen artean debateak sortu, hausnarketak sustatu eta pertsuasio lana burutzea diren heinean, betiere legeak ahalbidetutakoaren barnean. Defendatzaileak, bere ebazpen eta gomendioetan, eskatutako gaiez gain jotzeko aukera dauka, ez duelarik inolako kongruentzia printzipioaren betetzea errespetatu behar.

Espainiar Herri Defendatzailearen 3/1981, apirilaren 6ko Lege Organikoak zein bestelako xedapen araugileek ez diote berez defendatzaileari kexen ebazpenaz gaindiko

⁶⁶ Herriaren defendatzailearen irudia aztertzean, hiru maila lurraldearrean desberdinu daitezkeen defendatzaileen gaineko azalpena eskaini beharko genuke, EAE-aren kasuan, maila autonomikoan Arartekoa - Euskadiko Herriaren Defendatzaile edo Ombudsmana, Manuel Lezertua Rodriguez jaunak ordezkaria (2015/06/18 – 2020/06/18 eperako), Herriaren Defendatzailea estatu mailan Francisco Fernández Marugán-ek ordezkaria jarduneko ordezkari moduan (2017/07/21 – jarduneko defendatzailea) eta Europako Herriaren Defendatzailea, Europar Batasuneko kide garen heinean duguna, Emily O'Reilly (2014/12/16-2019/12/16).

⁶⁷ Besteak beste, Valentziako Erkidegoko Herriaren Defendatzailea erakunde barneko letratua izan den, MOLINA GIMÉNEZ, Andrés “Los defensores del pueblo en España: Reflexiones sobre su función y utilidad”, *Revista de la Administración Pública*, 199. Zenbakia, 2016. Urteko urtarrila-apirila, 327-362 orrialdeak.

bitartekaritza funtzio posible baten inguruan ezer esaten, unera arte erakundearen eguneroko funtzionamenduan ohikoa izan ez den arren, ez da inondik inora baztertzen etorkizun hurbil batean funtzio honen eskuratzea suertatzea.⁶⁸

Herriaren defendatzaileak bere ebazpenen lotesletasun ezean oinarrituta, ahalmen diskrezionaletan eragiteko aukera du, eta ondorioz bitartekaritza burutzeko ahalmena ere aitortzea egokia izango litzakete, bertan ere administrazioaren ahalmen diskrezionalen inguruan jardungo baitzuen. Hala eta guztiz ere, nahiz eta berezko inpartzialtasun eta mugiezintasun izaera izan, gaur egunean Defendatzaileek jarraitzen dituzten gaien prozesuek ez dute inondik inora justizia arloan existitu daitezkeen bermerik. Era berean, bere ebazpenen gaineko lotesletasuna bilatze aldera bermeak ugaritu eta administrazio prozedura gisara jardutea pentsatuz gero, administrazioan zein jurisdikzioan existitzen diren arazoak barneratuko lirateke eta ez onurak; moteltasuna zein formalismo gehiegikeriak eta kostuak areagotuko lirateke, baina ez onurak ez baitauka erakunde gisara eskumen objektiborik, ezta bitarteko materialik gaiei erantzun bat eman ahal izateko.⁶⁹

Ildo honetatik esan beharra dago administrazio bitartekaritza terminoa Herriaren Defendatzaileak eta antzeko subjektuek dituzten helburuei lotua geratu dela ohiko era natural batez, herritarren eskubideak Administrazio Publikoen egintza eta jardueraren aurrean defendatu egiten baititu. Bestalde, une batzuetan burutzen dituen interbentzioek, justizia materiala, zuzentasun eta aukera irizpideak erabili egiten ditu, etorkizun batean Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan erabilgarri izan daitekeen bitartekaritzaren oinarriak finkatu ditzakeelarik horrela.⁷⁰

Hala eta guztiz ere, kasu honetan Herriaren Defendatzaileak ez luke kasuaren gaineko azterketa oso bat egin beharko, ezta ebazpen lotesle baten inguruko argitalpenik eman

⁶⁸ Honela defendatzen du bere ikuspuntua Iberoamerikako Herrien Defendatzailean aditua den ESCOBAR ROCA, Guillermo *“Defensorías del Pueblo en Iberoamérica”* Thomson Aranzadi, 2008. urtea, Zizur Txikia, 188. orrialdea

⁶⁹ Herriaren Defendatzaileek bultza ditzaketen bitartekaritza prozesuak formalizatzeak, hauek hasieran izan ditzaketen onuren ezabatzeari dagokionez, MOLINA GIMÉNEZ, Andrés *“Los defensores del pueblo en España: (...)” op. cit 327-362* orrialdeak

⁷⁰ Bide judizialera jo aurretik bitartekaritza prozedura baten bidez etorkizuneko auzi judizialeko oinarri eta elementuak finkatzeko Herriaren Defendatzaileen baliagarritasunari dagokionez, GARCÍA VICARIO, Concepción, CARBALLO MARTÍNEZ, Gerardo (zuzendariak), *“Seminario – La mediación (...)”*, op.cit. 1-4 orrialdeak

beharko, bitartekaritza funtzioak betetzera mugatuko litzatekeelarik soilik. Behinik behin, eta erakunde honek dituen ezaugarriek jarraiki ez dituzenez inolako ebazpen loteslerik eskaintzen, herriaren defendatzaileak arazoei erantzun eta konponbide malguagoak bilatzeko aukera dauka, adibidez, konponbide lagunkoiak bultzatuz. Mekanismo alternatibo gisara kontsideratuz, informagoa; arazoak konpondu ahal izateko oso garrantzitsua da, askotan administrazioaren barnean sortu daitezkeen arazoak konpondu ahal izateko elkarrizketa eraikitzaileez baliatuz araudi eta printzipio juridikoetan era zurrunago batean oinarritutako prozesu juridikoetan baino erantzun eraginkorragoak lortu baitaitezke.⁷¹

Halere, gerta daiteke herriaren defendatzaileak izan beharreko neutraltasun eta inpartzialtasuna alde batera geratzea izan ere, bere funtzio nagusia herritarrek administrazio publiko baten egintza ez zilegi baten aurrean tarteratutako erreklamazioa aztertu eta honen inguruko laguntza erantzun bat eskaintzea izango litzateke. Berez, esentzian, ez dago botere publiko eta herritarrekiko harreman positibotik at, baizik eta herritarren ondoan kokatu egiten da, bere esfortzuak bederen botere publikoen egintza ez zilegiek sortutako kaltea konpontzea delarik.⁷²

4.6. Prokuradoreak

Era berean prokuradoreek bitartekaritza prozeduran parte hartzearen inguruko analisia ere egitea egokia deritzogu. Prokuradoreei *42/2015 Legean, 1/2000 urtarrilaren 7ko PZL-a erreformatu zuenaren* barnean ezarri egiten zaizkie kompetentzia eta eskuduntza berriak, erreforman bertan bi dira berez eragile juridiko hauei dagokienez eskaintako manuak, jakinarazpen eta exekuzio egintzei dagokienez. Exekuzio edo betearazpenari dagokionez, hasiera batean lege aurreproiektuan existitzen ziren ahalmen esleituak eraldatu eta inolako eskuduntza gabe geratu utziak izan ziren prokuradoreak.

Doktrinak, MERELLES PÉREZ tartean dagoela, azpimarratu egiten du berezia dela profesional honen parte hartze aktiboa exekuzioaren alorrean txertatua ez izana, auziak bitartekaritzara bideratzeko kontzeptuaren barnean alderdiekiko eta letratuen

⁷¹ Ideia honen alde egiten du Europar *Ombudsmana* izandako NIKIFOROS DIAMANDOUROS, Paraskevas “Derecho administrativo de la UE: Perspectiva del defensor del pueblo europeo”, *Revista de la Administración Pública*, 191. Zenbakia, 2013. Urteko maiatza-abuztua, 367-381 orrialdeak

⁷² Esparru honetan gomendagarria da MASUCCI, Alfonso “El procedimiento de mediación como medio alternativo (...)”, *op.cit.* 18. orrialdea

zuzendaritzarekiko duen hurbiltasuna dela eta. Hein honetan organo judizialari bitartekaritzari dagokionez hau erraztu, proposatu edota laguntze aldera izan dezaketen ahalmena aldarrikatu behar da.⁷³

Komunikazio egintzei dagokienez, erreformak paper dinamizatzailerik bat eskaini egin die, alderdien, abokatu eta bulego judizialen artekoa, auzi judizialaren barnean akordio lagunkoi bat lortzeko izan dezaketen papera garrantzitsua izango delarik, bai bitartekaritza zein bestelako gatazkak ebazteko bide osagarriak sustatuz zein akordio horien betearazpenean parte hartuz. Azken finean parte hartze hau justiziaren kolaborazioaren aginduzko izaerako xedapenetatik eratorri egiten da, prokuradoreen jarduna organo judiziala bitartekaritza bideratzearen kasuetan indarra hartu dezaketelarik.

Halere, prokuradoreak bitartekaritza prozeduratik at kokatu behar direnaren alde dauden ahotsak ere existitu egiten dira, azken finean prokuradoreak alderdien ordezkariak izanda eta bitartekaritzak izaera guztiz pertsonal bat duen heinean, zeinetan alderdiek protagonismo osoa eduki behar duten, prokuradorearen presentzia guztiz baztergarria dela, eta ondorioz ez duela zertan parte hartu adierazten dute.⁷⁴

4.7. Bestelako elkarte eta organoak

Ildo honetatik, bitartekaritza ez da botere judizialaren lan karga murrizteko bidean eta justiziaren krisiari aurre egiteko existitzen diren ideia ezberdinen artean bakarra, izan ere administrazio justiziaren bultzatze baten alde egiten dute hainbat autorek, DOMINGUEZ MARTIN-ek besteak beste, aditzera emanez administrazioarekiko inpartzial eta independenteak diren pertsona fisikoek osatutako administrazio organo edo entitateek administrazioaren jardunari kontrol juridiko bat burutu eta botere judizialaren karga murrizteko gai izango direla, gaur egunean existitzen diren mekanismoen osagarri edo ordezkari gisara jardun dezaketeelarik.⁷⁵

⁷³ Santiago de Compostela Prokuradore lanak burutzen dituen MERELLES PÉREZ, Manuel-ek ideia honen defentsa aldarrikatu egiten du, “Nuevas fórmulas para fomentar la mediación” *Diario La Ley*, 8646 zenbakia, Tribuna atala, 2015eko azaroaren 16a 3. Orrialdea

⁷⁴ Prokuradoreak bitartekaritza prozeduratik at kokatzearen aldeko autua egiten du eragile juridikoen multzoko zati batek, hauen artean PELAYO LAVÍN, Marta “*La mediación como vía complementaria de resolución de conflictos*” Universidad de Salamanca, 2011. urtea, 184. Orrialdea

⁷⁵ Azpimarragarria da Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Doktorea den DOMÍNGUEZ MARTIN, Mónica-ren ikuspuntua, “El sistema de justicia administrativa y la incidencia de los mecanismos administrativos de control en la jurisdicción contencioso-administrativa: reformas y necesidades” AGUDO

Bederen, posible da ere Kontseilu aholkulari autonomiko edo antzeko erakunde publikoek bitartekaritza prozesuaren barnean kokatzearen alde egitea, baita ere, Ekonomia-Arduralaritzako Tokiko, Eskualdeko zein Auzitegi Zentralak (EATE, EEAA zein EAAZ, hein honetan) bezalako organo independenteak prozeduraren barnean txertatzeari, horien artean Bartzelonako Consell Tributariaren inguruko xedapenak eskaini egiten dituztelarik. Halaber, organo hauek frogatu eta bermatutako objektibitate eta profesionaltasun batekin jarduten duten arren, beraien izaera administratiboari jarraiki bere kideen independentzia bermatzeko gutxieneko tresna eta baliabide nahikorik ez duten heinean, herritarrok parte hartzen dugun aldebiko prozedura batean berdintasun printzipioak urratzeko aukera existitzen dela aditzera eman beharra daukagu.

Espezializazioan oinarritutako organo hauek burutzen duten jarduna positiboki baloratua izan behar da, eta legegileak bestelako araudi eta egiturak sortze aldera kontuan hartu beharrekoak. Halere, eredu moduan arazo bat barneratuta dauka, izan ere horrelako erakundeak orokortzea eta lurraldean zehar hedatzeak bai antolakuntza mailan zein aurrekontuari dagokionez esfortzu handi bat suposatuko luke, epe ertain eta luze batera begira seguruenik errentagarria izango zena ez soilik parametro ekonomikoetan oinarrituz gero. Ideia honek, kontrara oso zailak dira sortzen eta askoz gehiago oparoaldietatik kanpo kokatzen garen unean.⁷⁶

Krisi honen arrazoi gisara baliteke, administrazio antolakuntzaren konplexutasuna, pertsonal jurisdikzional eta osagarrien zenbatekoaren moldakaitasuna, administrazioaren jarduera okerren aurrean erantzuteko teknika egokien gabezia, litigiositatearen areagotzea, zein bestelako gatazkak konpontzeko prozeduren erabilera ezean oinarritu egiten dira, herritarren beharrei aurre egiteko prest ez dauden heinean. Hala bada ere, bitartekaritzak hobekuntzak suposatu ditzake arazoaren aurrean, baina ez da hori helburu nagusi gisara ulertu behar.⁷⁷

GONZÁLEZ, Jorge (zuzendaria) *Control administrativo y Justicia Administrativa*, INAP, 2016. urtea, 96. Orrialdeak

⁷⁶ Ekonomikoki eredu berritzaile baten txertatzeak izan ditzakeen gatazka eta arazoei dagokienez, BUSTILLO BOLADO, Roberto O. “Derecho administrativo español y solución extrajudicial de conflictos: entre el (razonablemente hermoso) mito y la (menos edificante de lo deseable) realidad” LOPEZ RAMON, Fernando (Koordinatzailea) *Las prestaciones patrimoniales públicas no tributarias y la resolución extrajudicial de conflictos*, INAP, 2015. urtea, Madril, 235-265. orrialdeak

⁷⁷ Bereziki aipagarria, GONZÁLEZ MONTES, José Luis “*El estado actual de la justicia administrativa: problemas y soluciones*” Universidade da Coruña, 1998. urtea, 31-45. Orrialdeak

Ez dago zalantzarik, administrazio bidean kontrol eraginkor eta oso bat eskainiko duten baliabideak eskainiko lirateke, betiere babes judizial eraginkor eta justiziara jotzeko eskubideak errespetatuz. Horretarako beharrezkoa izango da administrazioak borondatezko jarrera bat izatea, eta borondate eta akordioak lortzeko nahi hori administrazioaren ordezkari gisara jardungo dutenek ere izatea, zeinei formakuntza tekniko zein etiko bat eskaini egin behar zaien.

Halaber, prebentziozko jardun bat burutzeko gai izan daitezke organo hauek, erabakiak hartzeko unean mekanismo partehartzaile eta negozialak ezarriz gero gatazkak saihestu daitezke, administrazio egintzaren jasotzailearentzat eraginkorrak izan daitezkeenak. Gatazkaren presentzia halabeharrezkoa denean, lehenengo instantzia posiblean konponbidea esleitzeko mekanismoak existitu beharko dira, ez berez alderdiek eskatutakoa zuzenean eskaini eta onartuko dutenak, baizik eta bitartekaritzaren bidez, negoziaketan, harturiko erabakiaren inguruko elkarrizketa juridiko-soziala mantenduz.⁷⁸

5. Momentu prozesalaren aukeraketa

Bitartekaritza administrazioarekiko auzien gatazketan edozein momentutan galdatu daitekeela adierazi beharra dago. Lehenik eta behin, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko Legeko 77. artikulua deiadar egiten du aldean artean borondatezko akordio batera heltzeko momentua demanda tarteratu eta honen erantzuna betegin ostean izango litzatekela momentu prozesal bakarra, behin alderdien pretentsio eta eskakizunak argi geratu direnean. Hala eta guztiz ere, eta aurretik arauketa normatiboan azaldu bezala, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko Legeak ezarritakoa oso arauketa mugatua dela, aztertzen gabiltzan administrazio alorreko bitartekaritza erabiltzeko baliaturiko ihesbidea.

PZL-ko 19. artikulua ekarri behar dugu aurrera momentu honetan, honek izaera supletoria dauka Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari dagokionez, eta auzilarien ahalmen xedagarriaren inguruan zuzeneko erreferentzia bat eskaintzen du errepikatuz auzian alderdi direnek prozesuaren objektuari dagokionez xedatze ahalmena dutela, eta honen gainean uko egin, atzera egin, amore eman, bitartekaritzara jo edota transakzioa burutu dezaketela, betiere legeek hori debekatu ez dutenean, edota interes orokorra dela

⁷⁸ Bitartekaritzara ahalbait arinen bideratzeko ideiarekin alde hartu egiten dute hainbat autorek, bederen, DOMÍNGUEZ MARTÍN, Mónica, “El sistema de justicia administrativa y la (...)” *op.cit.* 96. orrialdea

medio zein hirugarrenen onurarengatik legeak mugatu egiten duten kasuetan. Ildo berari jarraiki, hirugarren paragrafoak argi eta garbi utzi egiten du egintza hauek burutzeko momentu prozesala, izaeraren arabera, lehen auzialdian, errekurtsioan zein epaiaren betearazpenaren edozein unetan erabili daitekeela.

Gauzak horrela, bi legezko xedapen hauen interpretazio bateratu eta koordinatu bat eginez gero, ondorioztatu dezakegu ez dagoela berez inolako momentu finkorik ezarrita bitartekaritza eskatu edo iradokitzeke, egikarigarria den edo zabalik dagoen prozesuaren edozein unetan eman daitekeelarik.

Prozedura arrunt zein laburtuari erreparatuz, bitartekaritzara deribazioa demanda tramitera onartzen denetik (betiere demandaren erantzuna jasotzen den kasuan, konfidentzialtasun printzipioen urrapena saihesteko) botazioa egin eta epaitza eman aurretiko momentura arte egin ahalko da, ikustaldian bertan posible izango delarik bitartekaritzara jotzeko erabakia hartzea.

Ildo honetatik, 2003ko apirilaren 7ko Auzitegi Goreneko (aurrerantzean AG) Administrazioarekiko Auzien Aretoko 7. Atalak, 1197/2000 kasazio helegitean ebatzitako autoak zeinak kasazio helegitearen prozesuan bertan bitartekaritzara jotzeko aukera onartu egiten duen, aukera honen gaineko legezketasun azterketa bat burutzen duelarik horretarako:

*La cuestión planteada, en torno a la admisibilidad o inadmisibilidad, ya en el trámite del recurso de casación, de lo que las partes denominan "terminación transaccional", puede resolverse en sentido afirmativo partiendo de la base de que el art. 77 de la Ley de esta Jurisdicción aunque referido a los procedimientos en primera o única instancia entre otros modos de terminación del procedimiento **puede entenderse aplicable cuando, como aquí, se halla en trámite de recurso de casación, (...) claramente se refiere a la transacción judicial, y a que ésta, al igual que los otros actos, pueden realizarse en cualquier momento de la primera instancia o de los recursos o de la ejecución de sentencia, de modo que procede estimar el recurso de súplica interpuesto contra la providencia en que, por parte de esta Sala, se adoptaba otra posición, dejando ésta sin efecto y aprobando y homologando la transacción de que se trata, puesto que la Ley no la prohíbe, y en vista de que lo acordado no es manifiestamente contrario al Ordenamiento Jurídico ni lesivo del interés público y de terceros, ni versa sobre materias***

*que, como las recogidas en los arts. 1810 y siguientes del Código Civil, exigirían algún requisito específico o no fueran susceptibles de transacción.*⁷⁹

Halere, sententzia ezberdinak aurkitu ditzakegu jakitera emandako ideiareen kontra egiten dutenak, honen adibidea AG-ko Administrazioarekiko auzien aretoko bosgarren atalak emaniko 7588/2010 ekainaren 4ko autua dugu 5382/2008 kasazio errekurtoaren ingurukoa, zeinak adierazi egiten duen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko Legeak babesturiko 77. artikulua bidezko bitartekaritza lehenengo instantzian edo instantzia bakarreko kasuetan soilik dela aplikagarria, bestelako kasuetan, eta bederen kasazio errekurtoaren barnean ez delarik zilegia izango bere aplikazioa, eta ondorioz nahiz eta prozesua bertan behera geratu egiten den alderdiek egindako amore ematearen ondorio zuzena izango dela aitortu egiten du, trantsakzioaren aukera baztertzen delarik: *“Uno de los modos de terminación del proceso es la transacción judicial, según regula el artículo 77 de la LJCA. Ahora bien, este modo sólo es de aplicación a los procedimientos en primera o única instancia, una vez formulados los escritos de demanda y contestación, lo que no concurre en el caso examinado, por encontrarnos en un recurso de casación. Acorde con lo expuesto, debemos concluir que el acuerdo alcanzado entre las partes, y aportado con el escrito en el que se solicita la terminación del procedimiento, resulta impropio y ajeno a este recurso de casación, por incompatible con las exigencias procesales a las que se anuda, en el citado artículo 77 de la LJCA, el instituto de la transacción..- No obstante, como quiera que en el suplico del escrito presentado por la parte recurrente se suplica que "se dicte auto declarando la terminación del procedimiento", debemos asimilar tal pretensión a la propia de un desistimiento, teniendo en cuenta, además, que la otra parte ha mostrado su conformidad con la indicada terminación.”*⁸⁰

Azken finean bitartekaritzara apelazio errekurtoaren baitan ere bideratu egin daiteke gatazka, eztabaidatutako egiteen natura dela eta edota honi atxikitako elementu ez juridikoen konponketa burutu edota plano juridikoaren erabilera soilarekin satisfakzioa lortzea zaila denean. Harantzago, Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiko (aurrerantzean JAN) Administrazioarekiko Auzien Aretoko 3. Atalak, urtarrilaren 22ko 56/2008

⁷⁹ 2003ko apirilaren 7ko Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Aretoko 7. Atalak, 1197/2000 kasazio helegitean ebatzitako autoa

⁸⁰ Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko auzien aretoko bosgarren atalak emaniko 7588/2010 ekainaren 4ko autua dugu 5382/2008 kasazio errekurtoaren ingurukoa

sententzia, 60/2007 apelazio errekursoaren barnekoak bitartekaritzaren ondoriozko judizio barneko akordioaren baliozkotasuna onartu zuen behin bere legezkoatasuna frogatua: *“Visto el acuerdo finalmente alcanzado entre las partes y la conformidad de todas ellas, lo que ha determinado la desaparición de la controversia, sin que lo acordado resulte manifiestamente contrario al ordenamiento jurídico ni lesivo del interés público o de terceros, es procedente, en los términos del artículo 77.3 de la Ley Jurisdiccional, declarar terminado el procedimiento y acordar su archivo por carencia sobrevenida de objeto, causa formal única que determinará la revocación de la sentencia apelada, sin que, atendidos los términos del artículo 139.2, proceda condena en costas en la presente alzada.”*⁸¹

Zein, Gaztela Leongo JAN-eko, Burgoseko egoitzako Administrazioarekiko Auzien Aretoko 2. Atalak, maiatzaren 31ko 68/2002 sententzia, 33/2002 apelazio errekursoaren barnekoa, zeinak akordioaren baliozkotasuna aldarrikatu egiten duen helegitearen baiespenearekin onartuz: *“Por lo expuesto, procede estimar el recurso de apelación interpuesto, sin que sea preciso, por ello, entrar a examinar el resto de los motivos de impugnación esgrimidos en el presente recurso de apelación, pues mediante la transacción se solucionó la controversia derivada con efectos vinculantes, por lo que hay que estar a dicho acuerdo que no es contrario al ordenamiento jurídico, ni lesivo del interés público o de tercero.”*⁸²

Sententziaren betearazpenari dagokionez betearazpenaren baitan ere bitartekaritza prozedurara jotzea posiblea izango da, inkoazioarekin informazio orokorra eskainiz, edota behin bere edukia ikusirik aurkakotza eginda bertara espresuki bideratzen denean. Oso gomendagarritzat jotzen da bitartekaritzara bertan jotzea sententziaren betearazpen zehatzaren inguruko gatazka berri baten existentzia frogatzen duen betearazpen intzidentzia bat existituz gero.

Ildo honetatik, 2009ko apirilaren 16ko AG-ko Administrazioarekiko Auzien Aretoko 5. Atalak, 2826/2007 kasazio helegitean ebatzitako autoan ere akordioaren baliozkotasunaren inguruko autua zabaldu egiten du auzitegiak, galdatuz akordioaren materializazio formal

⁸¹ Kataluniako JAN-eko Administrazioarekiko Auzien Aretoko 3. Atalak, urtarrilaren 22ko 56/2008 sententzia, 60/2007 apelazio errekursoaren barnean

⁸² Gaztela Leongo JAN-eko, Burgoseko egoitzako Administrazioarekiko Auzien Aretoko 2. Atalak, maiatzaren 31ko 68/2002 sententzia, 33/2002 apelazio errekursoaren barnekoa

bat gertatzen ez den heinean ez dela posible izango hitzartutakoa frogatzea, eta ondorioz horren gaineko aplikazioa galdatzea: *“Pues bien, con independencia de lo suscrito por las partes en la mencionada comparecencia ---y sin necesidad de ocuparnos del ámbito de la misma, y si, en concreto, le afecta o abarca al recurso del que trae causa la ejecución-- lo cierto es que tal desistimiento, en este recurso, no se ha producido; es posible que la recurrente se comprometiera a ello, y sería posible (sin que lleguemos a afirmarlo) una interpretación del contenido de la comparecencia en la que este recurso resultaría afectado por la misma, mas, lo cierto es, que dicho supuesto compromiso no ha resultado procesalmente materializado, cuando, además, el artículo 74.2 de la LRJCA requiere una especial ratificación con carácter previo a la valoración por el Tribunal. Por ello, no es este el lugar para deducir las posibles consecuencias de un supuesto incumplimiento unilateral de lo acordado, debiendo limitarnos a poner de manifiesto que falta el elemento procesal determinante del desistimiento y que, sin necesidad de mas valoraciones, el mismo deja de ser argumento suficiente y válido para fundamentar el Auto que se impugna.”*⁸³

Eta 2002ko urtarrilaren 30eko Errioxako JAN-eko Administrazioarekiko Auzien Aretok, 81/2001 apelazio helegitean ebatzitako autoa, zeinak sententziaren exekuzioaren baitan onartu egiten duen bitartekaritzaren ondoriozko akordioaren baliozkotasuna administrazioaren aldetik indemnizazio bat ordaintzearen inguruko gaia jorratzen duena: *“Se cumplen los requisitos del artículo 77 LJCA: 1)Se establece en la fase de ejecución de sentencia (la doctrina la admite) 2) se dan los requisitos subjetivos porque han intervenido la parte ejecutante (solicitante de ejecución) y la Administración demandado, ya que no es necesario la intervención de la persona codemandada, al no ser titular de ningún derecho en la ejecución derivado del fallo de la sentencia que se ejecuta y 3) se ha realizado sobre materia sometida a transacción, al reclamarse una cantidad por imposibilidad de ejecución de la sentencia en sus propios términos (retroacción de las actuaciones al momento de constituirse la comisión de revisión) y es la propia Administración la que ha reconocido que la contratación para el curso académico 1995-1996 debió realizarse a favor del hoy ejecutante y como consecuencia de que dicho*

⁸³ 2009ko apirilaren 16ko Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Aretoko 5. Atalak, 2826/2007 kasazio helegitean ebatzitako autoan

*contrato fue prorrogado en cursos sucesivos, entiende que dicha prórroga se deriva del contrato inicial y por tales cursos ha de ser indemnizado*⁸⁴.

Halere, badaude kontrakoa konfirmatu egiten duten sententziak ere, AG-ko Administrazioarekiko Auzien aretoko 5. Atalak maiatzaren 28an emaniko 2281/2008 sententzian, 579/2006 errekurtsopean emanikoan, besteak beste, sententziaren exekuzioan eman nahi izan zen trantsakzioa baztertu egin zuen momentu prozesala gainditua zegoela berretsiz: *“Entre tantas torcidas intenciones y olvidos, no es el menor el de lo dispuesto en el invocado artículo 77 de la Ley de esta Jurisdicción, en el que, en su apartado 2, se expresa literalmente que «el intento de conciliación..... podrá producirse en cualquier momento anterior al día en que el pleito haya sido declarado concluso para sentencia»*”⁸⁵

Ugariak dira alegia, prozesuaren edozein unetan egingarria dela frogatzeko aditzera eman ditzakegun jurisprudentzia adibideak, zeinetan akordio transakzionala prozesuaren edozein unetan onartua izan den, bai lehenengo instantzian, apelazio errekurtsuaren fasean zein kasazio errekurtsuari dagokionez, baita ere sententziaren exekuzio fasearen inguruan, eta ondorioz, transakzioa prozesuaren edozein unetan egingarria baldin bada, erabilgarria eta ahalbidetua izango da bitartekaritza, zeinaren bidez gatazka ebazteko epaileari aurkezteko akordio batera heltzea posible izango den. Hala eta guztiz ere, aztertu bezala, kontrako ahotsak ere existitu egiten dira, horien gaineko adibideek ere bere txokoa dutelarik jurisprudentzia alorrean.

Manu ezberdinen arteko lotzea eta harremana dela eta, zein bitartekaritzak duen helburu nagusia kontuan hartuta, bitartekaritza prozesuko edozein momentutan egikaritu ahal dela ondorioztatu beharra dago, bai PZL-ko 19. artikulua analogiaren bitartez. Kasu seinalatu dezakegu bitartekaritza prozesu judizialaren edozein unetan erabili beharko zitekeela, auzi barneko bitartekaritzaz ari garen heinean, honen aplikazioa betiere konfidentzialtasun arazoak saiheste aldera eta bide judizialak eskaintzen dituen bermeak eta babes elementuak kontuan hartuta demanda tarteratu eta honen erantzuna eskainita egin beharko litzateke.

⁸⁴ 2002ko urtarrilaren 30eko Errioxako JAN-eko Administrazioarekiko Auzien Aretokak, 81/2001 apelazio helegitean ebatzitako autoa

⁸⁵ Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien aretoko 5. Atalak maiatzaren 28an emaniko 2281/2008 sententzian, 579/2006 errekurtsopean

6. Ezarpenaren gaineko arazoak

6.1. Kultura eta formakuntza

Ildo honetatik halere bitartekaritza aplikagarri eta erabilgarri den kasuen zerrenda zehatz bat burutzea ezinbesteko elementua dela azaldu beharra dago, burutu ezean, segurtasun juridikoa alboratua geratzeaz gain diskriminazio kasuak ere eman baitaitezke eta. Are gehiago, administrazioarekiko auzien arloko bitartekaritzak bere potentzialitate osoa ez lortzearen arrazoiak ugariak direla adierazi egiten dute, bitartekaritza kultura eskasa zein botere judizialaren erretizentziak ez direlarik honen arrazoi bakarrak, ezta ere, aurretiazko administrazio bidearen existentzia ezta Estatuko Abokatuek eta Administrazio Publikoen bestelako ordezkariak bere izenean transakzioak egin ahal izateko autorizazio eta baimenen lorpenen zailtasunak.

Azken finean transakzioaren inguruko arauketa zehatzago bat existitzen ez den heinean zailtasunak hor iraungo dute, besteak beste GOLLONET TERUEL-ek erabiltzen duen adibidea erreproduzitu beharra daukagu; *zer gertatuko litzateke autobidetik 145 km/orduko abiaduran gidatuta, trafiko agente batek gehiegizko abiaduragatik zehapena ezarri eta 200 euroko isuna jasotzen badut, imajinatzen duzue isuna negoziatu ahal izatea? Edota helegite prozesuan bitartekaritza prozedura batera bideratua izatea? Eta akordio hori onartu eta 30 euroko isuna ezarriko balitz, zer egingo lukete bestelako isuna jaso duten gidariek?*⁸⁶ Ildo honetatik berdintasun eta legezketasun printzipioaren errespetua burutuko duen Administrazio Publikoek parte harturiko bitartekaritza prozedurak sustatu ahal izateko behar besteko arauketa ezartzea ezinbesteko elementua dela aldarrikatzen du, aurretik adierazi bezala, sektorearen doktrinaren gehiengoak, bitartekaritzak kasu partikular bati erantzun eta konponbidea emateko baliabide juridikoa izan arren ez delarik zertan herritar ororen diskriminazio ekintza gisara ulertu behar.

Administrazioak bere eguneroko jardunean berdintasun printzipioak haurtu gabe, arbitrariotasunean jauzi gabe eta inolako korrupzio egintzetan parte hartu gabe, legezketasuna eta interes orokorra errespetatzen duten erabakiak hartzeko prest dago, judizialki kontrolatuak izan daitezkeenak, baina diskrezionalitate aukera batean oinarritu

⁸⁶ Doktrinaren alorrean, badira ahots batzuk bitartekaritzak herritarren arteko egoerei dagokienez diskriminazioa bultzatu dezaketela adierazi egiten dutenak, hauen artean GOLLONET TERUEL, Luís Ángel, “*La Mediación en el proceso contencioso administrativo*” Dykinson, 2017. urtea, 311-320 orrialdeak,

egiten direnak. Administrazioaren jardunak zehatzago esanda, beti legera eta ordenamendu juridikora meneratuak izan beharko dira (EK 103.1. artikulua) baina oso ohikoak dira Administrazioaren jarduera diskrezionalen klasifikazioak burutzea, zeintzuetan arauak beraiek apreziazio tarte bat eskaini egiten dioten Administrazioari berari, balorazioa edo interpretazio kognitiboa, kontzeptu juridiko edo normatibo zehazkabeak egitateko supostuetan aplikatuz ondorio juridiko bat ekarriko dutenak, administrazioak parte hartu edo ez, edota ondorio juridiko ezberdinen artean aukeraketa burutzeko ahalmena izango duen kasuetan.⁸⁷

Egia da, halere, espainiar estatuko administrazio publikoek ez dutela bere jardutearen barnean orokorrean transakzioaren figura barneratzen, eta ez dirudi hain erreza izango denik bere txertatzea, izan ere betearazpen erabakian duten pribilejioa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko prozesuaren egiturari loturik, kautelazko neurrien gutxinakako ezarpena eta prozeduraren gehiegizko iraupenek, ez dute administrazioa bera akordioak egitera bultzatzen, eta ez dute berez bultzatuko, hurrengo belaunaldietara heldu artean.⁸⁸

Administrazio Zuzenbidean autokonposizio teknikek ez dute administrazioaren aldetik harrera egokirik jaso. Administrazioari ez zaio egia esan gustatzen hirugarren independente batek partikular batekin izandako gatazkaren inguruan bitartekaritza lanak burutzea, edota adiskidetzerik bilatzea, bere erabakiak partikularraren interesak entzunak eta erantzunak izan diren prozesu bat igaro ostean hartuak izan direla aldarrikatzen baitu. Administrazioak arauaren bere interpretazio propioa aplikatuta gatazkara, epaileen errebisio funtzioa soilik onartu egingo du, ez zaio berez inolako irtenbide azkarrik interesatzen, oso kasu urrietan etengo duelarik bere erabakia.⁸⁹

⁸⁷ Hein honetan, aipagarria da zuzenbide Publikoko eta filosofia juridikoko Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Katedraduna den RODRÍGUEZ DE SANTIAGO, José María “*La ponderación de bienes e interés en el derecho administrativo*”, Marcial Pons, 2000. urtea, Bartzelona, 79. Orrialdea

⁸⁸ Administrazioak bere izaeraren arabera gozatzen dituen pribilejio eta aukerak tarte bitartekaritza baztertzeko erabilitako argudiaketa ezberdinen lanketa burutu egiten du SANTAMARÍA PASTOR, Juan Alfonso-k, “*La Ley Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. Comentario, Iustel*” 2010. urtea, 778-779. Orrialdea

⁸⁹ Azken finean, administrazioak bere arau propioak interpretatzeko erabilitako izapideak direla medio, bitartekaritzaren bitartez bestelako interpretazioak bilatzeko aukera baztertu egin ohi du, honen lanketa; TORNOS MÁS, Joaquín, “*Medios alternativos de resolución de conflictos en el derecho administrativo*” *Anuario de Justicia Alternativa*, 14. Zenbakia, 2017. urtea, 109-117. orrialdeak.

Era berean formakuntzaren gaineko arazoaz ohartarazi beharra dago; Administrazioarekiko gaien inguruan bitartekaritza prozedura bat egikaritu ahal izateko ezaguera, gatazkaren alorra administratiboa, zibila zein merkantila izan oso urria da abokatu eta operadore juridiko gehienen artean. Administrazioak zein doktrinaren zati batek, BELANDO GARIN-en hitzetan, bitartekaritzaren inguruan erakusten dituzten erretizentzien existentzia dela eta, nahiz eta Europar Kontseilutik zein BJKNtik bitartekaritzaren kultura sustatu eta hedatzeko ekimen ezberdinak hartzen ari diren, badirudi prozedura hauen inplementazioa ez dela iruditu daitekeen bezain arina izango. Egia da, Espainia estatuan administrazio zein egoitza judizialean aplikatzen ari diren esperientzia eta proiektuetan egindako lanari jarraiki frogatua gertu dela legezotasun printzipioaren existentziak ez duela berez oztupo gaindiezin bat suposatzen bitartekaritzara jotzeko, eta hau, ondorioz, bitartekaritzaren aldeko puntu garrantzitsu bat izango litzateke.⁹⁰

Ildo honetatik aditzera eman behar da azpiegitura egokiak sortzeko, protokoloak egiteko, erakunde hartuko hitzarmenak egilesteko eta kalitatezko formakuntza bat lortzeko egindako inbertsio fisiko zein ekonomikoak ezerezean geratu daitezkeela, mezua erdibidean geratuz gero. Horretarako, bitartekari lanak burutuko dituzten eragile juridikoen, administrazio eta erakunde publikoen sustapen lana ezinbestekoa izango da judizioz kanpoko bitartekaritzak arrakasta izan dezan, hala eta guztiz ere ez da elementu bakarra izango, gizartearen kontzientziazioa eta hezkuntza alorrean indar egiteak ere bere beharrezkotasuna baitauka.⁹¹

6.2. Derrigorpen eza eta borondatezkotasunaren motibazioa

Bitartekaritzaren erabilera administrazio prozeduren amaiera itundua bilatzeko oso gutxi erabilia izan da, nahiz eta zenbait lege zein erregelamendu testuetan agertu, oso urria izan da, existentziarik gabekoa helegite administratiboen ordezkotasuna. Azken finean, administrazio publikoek errezelo eta erresistentziaz begiratu egin izan ohi dute bitartekaritzaren erabilera, orain arte gutxienez, hauek bere izaera juridikoaren baitan

⁹⁰ Gatazkak eta iritzi ezberdinak existitu arren, esperientzia pilotuek bitartekaritza sustatzeko duten baliagarritasunaren inguruan, BELANDO GARÍN, Beatriz “La mediación administrativa desde la(...)”, *op.cit* 169-194. Orrialdeak

⁹¹ Bitartekaritza sustatu eta hedatzeko beharrezko elementuen garapena burutzeko unean eragile juridiko ezberdinek izan beharreko parte hartze mailari dagokionez, MERELLES PÉREZ, Manuel “Nuevas fórmulas para fomentar la mediación” *op.cit.* 3. orrialdea

дутен autotutela exekutibo zein adierazleari jarraiki dituzten prerrogatiba zein potestateez baliatuz. Administrazioa, plano juridiko desberdin batean kokatu egiten da hiritar arruntarekiko konparatuz, indartsuagoa delarik, boteretsuagoa, zeinaren ondorioz administrazio eta hiritarraren arteko harremanen izaera ez den horizontala baizik eta bertikala.⁹²

Judizioz kanpoko gatazken ebazpenak lortzeko saiakeren printzipioen artean borondatezkotasuna aurkitu egiten dugu⁹³, eta markatu beharra dago posible izan daitekeela nahiz eta operadore juridiko eta sozialek bitartekaritzaren zein bestelako ebazpen sistemen aldeko autua egin, alderdietako batek horren kontra egitea, zein bertan parte hartu nahi ez izatea.

Gaur egunean bitartekaritzara jotzea, bederen, borondatezko aukeraketa bat burutzean datza, halere aukeraketa izatetik prozesu judiziala hasi aurretiko nahitezko izaera eskaintzearen aldeko autua egiten du doktrinaren zati batek, CATARINA RODRIGUES-ek aldarrikatzen duen heinean. Aitzitik, derrigorrezkotasun honekin batera konplexutasun nahikoa eta zabaltasun handia duten gaiak soilik igaroko liratekeela Botere Judizialaren esparrura defendatu egiten dute, gainerako auziak bitartekaritzaren barnean bermatutako eraginkortasunarekin, bi posizioen arteko indarren batzearekin konpondu ziratekelarik.⁹⁴

Era berean aditzera eman beharra dago, borondatezkotasunean oinarritutako aukeraketa honek bere ondorio zuzenak izango dituela, bitartekaritzaren bidez egiletsitako transakzioak etorkizunean, hasiera batean planteaturiko eztabaidaren inguruko gatazka judizial berri bat zabaltzeko aukera guztiak ezabatu egiten baititu. Halaber, alderdiek, akordioa helburu, aldebiko prestazioak burutzea erabaki dutenean edota elkarrekiko emakidak onartu egin dituzten kasuetan, bide judizialean jarraitu izanez gero lortu

⁹² Gai honen inguruan, BELTRÁN AGUIRRE, Jose Luis “Una apuesta por la mediación administrativa” *op.cit.* 2. Orrialdea

⁹³ Bitartekaritzaren borondatezkotasunaren inguruan eta honen aurrean derrigorrezkotasun ezartzearen inguruko iritzien garapen sakonago bat eskuratzeko ETXEBERRIA GURIDI, José Francisco “Últimas novedades respecto de la mediación en el orden contencioso-administrativo” BARONA VILAR, Silvia (Koordinatzailea) *Justicia Civil y Penal en la era global*, 2017. Urtea, 293-320. Orrialdeak

⁹⁴ Bitartekaritzari dagokionez derrigorrezkotasun izaera eskaintzeko aukera aurreikusteari dagokionez, RODRÍGUES, Catarina “La mediación. ¿Una respuesta al (...)” *op.cit.* 244-256. orrialdeak

zitekeen emaitzaren inguruko gogoetarik burutzeak ez du inolako zentzurik izango, guztiz alderdien borondatean oinarrituriko prozedura batean murgildurik baitaude.⁹⁵

Eta guztiz zentzuzkoa izaten jarraituko du borondatezkotasun horren mantentzea burutzea, izan ere operadore juridikoek deribazio eskasak burutuz gero, arlo zibilean derrigorrezko adiskidetzearekin gertatu zenaren ildotik guztiz ez eraginkorra den instrumentu eta erabilgarritasunik gabeko izapide bat izatera igaro daiteke, 1984ko abuztuaren 6ko legearen bidezko PZLaren premiazko erreformaren legera arte, bertako zioen azalpenean adietan ematen baita; *conferir al acto de conciliación, que como demuestra la experiencia, ha dado resultados poco satisfactorios, un carácter meramente facultativo*, alabaina bitartekaritza derrigorrezko bat burutzerara bideratuz gero alderdiak prozeduraren desnaturalizazio bat bultzatu daiteke, inolako benetako intentziorik gabeko eta ondorioz porrot egitera kondenaturiko bitartekaritza prozedura batean murgilduko ginatekelarik.

Bitartekaritzaren erabilgarritasuna autore batzuentzat, TORNOS MAS tartean, gatazka formalizatu aurretiko fasera mugatu egiten da, eztabaida edo desadostasuna erabaki baten inguruan eta horren edukiaren inguruan administrazioak duen parte hartzera. Kasu hauetan administrazio partaideak akordio bidezko auzia saihestu dezaketen egintzak hartu ditzake. Halere, behin gatazka formalizatu egin denean, administrazio egintza edo jardun bat existitzen delako herritarron interesen kontrakoak izan ditzakeen ondorioak sortzen dituenaren kasuan, bitartekaritzaren erabilera ez dirudi oso eraginkorra izango denik, administrazioak kontrol judizialera jotzeko inklinazioa izan ohi baitu, borondatezkotasunik existitzen ez den heinean porrot egitera kondenatua dagoen autokonposizio sistema bezala kontsideratuz.⁹⁶

Transakzioak administrazioarekiko sortzen duen arazo nagusia aktibotasunean datza, eta administrazioaren ordezkariarentzat askoz errazagoa da auzibidera jotzea, bai denbora aldetik baita ere auziaren emaitzaren gainean eman beharreko azalpenei dagokienez,

⁹⁵ Bitartekaritza prozedura onartzearekin batera, etorkizun batean existitu zitekeen prozesu judizial batera jotzeko ezinezkotasunaren inguruan, HUERGO LORA, Alejandro “*Los medios de resolución extrajudicial de conflictos en el Derecho Administrativo*” Circulo de Derecho Administrativo, 2009. Urtea, 7. Zenbakia, 93-113. Orrialdeak

⁹⁶ Bitartekaritzaren erabilera gatazkaren formalizazio aurreko unera mugatzea egokia deritzo doktrinaren alor batek, hauen artean, TORNOS MÁS, Joaquin “Administrative Justice y Administrative Tribunal (...)” *op.cit* 169. orrialdeak

nahiz eta auzia galdu, transakzio bat burutzen dutenean baino interesgarriagoa izango baitzaio. Sistema juridikoa antolatua dagoen erari erreparatuz gero, agente publikoek legearen aplikazio itsu bat egitearekin batera egintza juridiko seguru bat egiten ari direla aditzera ematen diela, bai politikoak izan, funtzionarioak zein justizia administrazioaren letratuak, eta horrek etorkizunean egindakoaren inguruan izan ditzaketen erantzukizun posibleen gaineko kargak guztiz ezabatu egiten ditu eta.⁹⁷

7. ADR: onurak zein eragozpenak

7.1. Erraztasuna, azkartasuna eta ekonomikoki eraginkorragoa

Edozein kasutan, epaileek orokorrean betidanik aurkitu egin dira bitartekaritza zein bestelako instrumentu batzuen erabileraren ondorioz alderdien artean egikaritutako akordioen presentziaren alde, guztiak ateratzen baitira onuradun gisa eta funtzio judiziala erraztu egiten baitu. Era berean, funtzio jurisdikzionala burutzen duten subjektuen artean oso ezohikotzat hartu beharra dago, guztiz ezohikotzat esan beharrean, alderdien artean egikaritutako akordio baten gaineko oposizioa, askoz lan karga txikiagoa eta erraztasun gehiago eskaini egiten dituelako akordio bat homologatzea epaia ematea baino, bitartekaritzaren alde egiteko pizgarri nabari bat izango zelarik, zeinak epaile eta magistratuen artean bitartekaritzaren aplikazioaren aldeko posizio proaktibo bat dagoela ondorioztatzea ahalbidetzen digun.⁹⁸

Bizitza sozialaren konplexutasunak eta judizializatu egiten diren gatazken areagotzea dela eta, Auzitegietara heldu eta erabakitze metodo tradizional eta klasikoen gutxiegitasuna erakutsi egiten dute, hau da, metodo heterokonpositiboek dituzten gabeziak erakustarazi egiten dituzte. Era berean, Zuzenbidezko Estatuarentzat erronka eta exigentzia dira kalitatezko justizia baten lorpena egikaritzea, non Espainiar Estatuako Konstituzioko 24. artikuluan ezarri eta aitorturiko babes judizial eraginkorraren bermeak errespetatu egiten diren. Honek, kalitate gorena lortzearen exigentziak, azkartasun bati

⁹⁷ Bitartekaritza prozedurako izaera publikodun parte hartzaileei dagozkiekeen erantzukizun posibleen inguruan eta hauen posizio aktiboari dagokionez, HUERGO LORA, Alejandro “La resolución extrajudicial de conflictos de las administraciones públicas en 2015” LÓPEZ RAMÓN, Fernando (Koordinatzailea) *Las prestaciones patrimoniales públicas no tributarias y la resolución extrajudicial de conflictos*, INAP, 2015. urtea, Madril, 213-235. Orrialdeak

⁹⁸ Esparru honetan, GOLLONET TERUEL, Luís Ángel, “*La Mediación en el proceso (...)*” *op.cit* 311-320 orrialdeak

txertaturik, herritarron eskari nagusietako bat dela aldarrikatu beharra dago. Azken garaiotan bultzatzen ari diren zientzia humanistikoek garapenarekin batera, Justizia ereduaren eraldaketetan eragina izan dute, harreman sozialen baketzea lortze aldera lanean jarriz.⁹⁹

7.2. Kostuen murrizketa

Benetako kostuen murrizketa bat ematea ez da guztiz prozedura automatiko baten aplikazioaren ondorioa, bitartekaritzara jotze hutsarekin alderdiek ez dituzte prozedura honetan bide judizialean aurre egin beharko zizkieten gastuak baino urriagoak izango. Izan ere, alderdietako batek, edozein unetan bitartekaritza prozesuari uko egin eta bide judizialean jarritzeko autua eginez gero, bitartekaritzarako prestaturiko eta bertara bideratutako baliabide ekonomikoek galera ia automatiko bat gertatuko litzateke¹⁰⁰, azkenean estrategia ezberdinen planteamendua burutzeak berak kostu ekonomiko altuen presentzia dakar berarekin, eta bitartekaritza egoki bat egin ahal izateko egindako ahaleginek, posible dute ezerezean geratzea bide judizial arruntera berbideratuak izanez gero.

Egia izan daiteke epe oso laburrera begira bitartekaritzak sortu ditzakeen abantaila ekonomikoak ez direla hain ikusterrazak, baina epe ertain eta luzera begira bitartekaritzak bai alderdien zein epaitegi eta auzitegien ikuspuntutik denbora eta lan kargaren amortizazio bat suposatu egingo du, gatazka pertsonala hasiera batetik ebatziz gero, gero ez baitira bestelako auzi edo betearazpen intzidenterik existitu beharko.

Alderdien arteko akordiorik existituz gero, Epaitegiak berak ez du zertan parte hartu, eta horrek aurrezki handi bat suposatu egiten du. Hori bai, luzera begira egindako estimazioak dira, izan ere hasiera batean eta bereziki epaileak berak bideratutako bitartekaritza kasuetan, lan karga osagarri bat burutzea dakar, gaia aztertu behar da, alderdiak deitu eta epatu, epaiaren etendura finkatuz, edota etendura horren altxatzea.

⁹⁹ Baketzearen ildo honetatik aurkitu dezakegu, FREIRE PÉREZ, Rosa María, “*Conferencia inaugural del Curso de Especialización en Mediación Civil y Mercantil, organizado por el ICACOR*”, Ilustre Colegio Provincial de Abogados de A Coruña, A Coruña, 2013. urtea.

¹⁰⁰ Bitartekaritzaren abantaila ekonomikoa, bertara jo eta akordio bat burutu egiten den unera mugatu egiten delaren ideia defendatu egiten dute hainbat autorek, bestelako kasuetan, zeinetan akordiorik lortzen ez denetan, eraginkortasun ekonomikoa hobetzea ezik, kaltetu egiten dela adieraziz. Hauen artean, GARCÍA MONTORO, Lourdes “*El resquicio de la mediación intrajudicial como última oportunidad de alcanzar una solución amistosa al litigio*”, Centro de Estudios de Consumo – Universidad de Castilla La Mancha, 2016. urtea.

Horregatik, azaldu behar da epe luzera begira, bitartekaritzak ogasun publikoarentzat diru aurrezte bat suposatzen duelarik, erakunde eta organismo publiko oro bitartekaritzaren alde agertu beharko zirela, baliabide gehiago, bereziki ekonomikoak eskaini beharko zituztelarik horretarako.¹⁰¹

Bitartekaritza prozedurak, bere hasieratik amaierara arte (denboran zehar gehien luzatzen den kasuetan akordioaren homologazioarekin bukatuko litzateke prozedura), denbora luzapenean murriztak, azkarrak eta kontzentratuak dira, prozesu judizialarekin konparatua askoz ere laburragoa dena, bertan existitzen diren instantzia ezberdinak eta helegiteak aurkezteko aukerarekin konparatuta.

Era berean ekonomikoki ere zuzenean kostu txikiagoak izatea dakar, despoltsatu beharreko gastu bakarrak bitartekariaren ordainsariak soilik izango dira, edota bitartekaritza zerbitzuak eskaintzen dituen instituzioa, eta gainera askotan hauek doakoak edota diru laguntzaz itundutako zerbitzuak izan ohi dira, idazkari judizialak edo epaileak zein bestelako egoitza judizialeko operadore juridikoek eginez gero guztiz doakoa izango delarik fede txarraren presentziarik ez aurkituz gero.

Honen aurrean, prozesu judiziala askoz garestiagoa izango da, abokatuen ordainsariak ordaindu, lekukoen konpentsazioak, frogaren praktikak sortu ditzakeen gastuak, dokumentazio zein fidantza tasak ordaintzeko aukera ezberdinak, iragarkiak argitaratzea zein bestelako gastuak aurkitu dezaketelarik alderdiek.¹⁰²

Ildo honetatik eta bestelako jurisdikzioetan gertatzen den bezala, Epaitegi eta Auzitegiek nahikoa informazio eskaini beharko dute bitartekaritzaren onura eta ezaugarrien inguruan, arrazoi ekonomikoak direla eta horien berri emango dutelarik. Honela, kostuaren ponderazio bat egin beharko du herritarrak, bitartekariaren ordainsariak, administrazio gastuak eta lokal zein materialen zenbatekoak txertatu beharko direlarik horrela, eredu berritzaileetan doakoak diren heinean, ez da kostua bi alderdien artean

¹⁰¹Idazkari judizialen barnean ere oso hedatua dagoen ideia da hau, propioki doktrina juridikoa denetik haratago doana, hauen artean, JIMÉNEZ MORILLAS, Bienvenido “Secretario Judicial” *Revista Mediara – Mediación y Arbitraje de Andalucía*, I. Zenbakia, 2012ko iraila, 22. Erreportaia

¹⁰² Era berean, Salamankako Unibertsitateko Zuzenbidean Doktorea den MARTÍN DIZ, Fernando aipatu beharra dago, “Retos de la mediación como complemento al proceso judicial en una sociedad globalizada” NEIRA PENA, Ana (Koordinatzailea) *Actas del IV Congreso Gallego de Derecho Procesal (I Internacional)*, Coruña, 2 y 3 de junio de 2011, 2012. urtea, 131-146 Orrialdeak

banatu beharko. Hala eta guztiz ere, eta bestelako jurisdikzioetan gertatzen denaren ildotik bitartekaritza ez ohi da beti doakoa izaten, horren adibidea Bilboko Merkataritza Ganberak era honetan, auziaren zenbatekoaren arabera bitartekarien ordainsari taxutu batzuk ditu argitaratuak, orduko 120 eta 240 euro bitarteko kostuan oinarritutakoa dena.

103

7.3. Egokitasuna eta gertutasuna, bai forma zein emaitzan

Bitartekaritzak arlo pertsonalean ere alderdi positiboak dauzka, baketsua da eta ez konfrontazioan babesturikoa, elkarriketan oinarritzen da, alderdien arteko kolaborazioan. Prozesu judizialean liskarraren existentzia ezinbestekoa da, prozesuan bi posizio guztiz kontrajarri existitu ohi direlako, prozesuaren berezko dinamikak horretara bultzatzen baititu alderdi ezberdinak, bitartekaritzan kolaborazio eta hurbiltze bat sustatzen den heinean, etsaitasun eta konfrontazioaren aurrean. Bistan dago, izaera pertsonaleko onuren artean etorkizuneko harremanen endekatze eza aurkitu dezakegula, gatazkatik eratorritako posizioen errespetu bat existituko delarik, prozesu judizialean okertu daitezkeen harremanen aurrean kokatzen garen heinean.

Era berean alderdiek protagonismo osoa eskuratu egiten dute, prozesu judizialaren despertsonalizazio eta gizatasunaren kentzearen aurrean, bitartekaritza prozesuan alderdiak ia eskusiboki, bitartekariaren jarduna alde batera utzita, protagonismo eta erantzukizun osoa eskuratu egiten dute. Beraiek dira bere adierazpenak egingo dituztenak, erantzunak eta azalpenak eskaini zein entzungo dituztenak, akordio bat lortzeko oinarriak finkatu egiten dituztenak, beraien aburuz egokia eta eraginkorra den akordio batera heltzeko edo bertan behera uzteko aukera izango dutelarik.

Ildo honetatik bitartekaritzaren bitartez gertutasuna eta alderdien onuran eskaini egiten diren ondorioak akordioan islatzeak eragin positiboak dituela argudiatzen du AG-ko Zibil Aretoko lehenengo atalak urtarrilaren 19an emaniko 11/2012 sententzia 141/2009 kasazio errekurtsoren barnean emanikoak: *“La mediación, como modalidad alternativa de solución de conflictos, llega a soluciones menos traumáticas que la judicial que dicta sentencia interpretando y aplicando correctamente la norma jurídica, resultando un*

¹⁰³ Bitartekaritza profesionalak dakartzan kostuei dagokioenez, ÁLVAREZ SACRISTÁN, Isidoro, *“La mediación civil y mercantil: Comentarios y Formularios”* Gomylex, Bilbo, 2012. urtea, 85. orrialdea

vencedor y un vencido, cuando los temas jurídicos(...) tienen o pueden tener un trasfondo humano, al que sí llega el instituto de la mediación”¹⁰⁴

7.4. Konfidentzialtasun gabezia: dokumentuen aurretiazko erakusketa

Prozesu judizialaren baitan existitzen den publikotasun printzipioa alde batera utzita, Espainiar Estatuko Konstituzioko 120. artikuluan aitortzen dena, bitartekaritzaren baitan konfidentzialtasuna da printzipio gorena. Bitartekariak ezta bitartekaritzan parte hartu duten subjektuek ezingo dute berez bertatik eratorritako informazio eta datuen erabilerarik egin. Bitartekariarentzat abokatuarentzat ezartzen den antzeko araudi bat ezarri egiten da, sekretu profesionalari loturikoa, bitartekariaren estatutuei jarraiki, nahiz eta berez arauketaren harmonizazio sakonago bat burutu beharko zen, sekretu profesional horren gaineko urrapenak saihestu ahal izateko.¹⁰⁵

AG-ko Administrazioarekiko Auzien Auzitegiko 6. Atalak, 1051/1998 otsailaren 17ko sententzian, honenbestez argitu egiten du sekretu profesionalaren izaeraren hedadura zabala dela, ez delarik bere baitan sartzen soilik izaera profesionala espresuki esleituta edo ordainduak izango diren ekintzetara mugatzen, baizik eta prozesutik at edota enkargu formaletik at egindako konfiantzan oinarritutako egiteei ere aplikagarri zaiela, transakzioa edota abenentziak lortzea helburu duenean halaber: *“aun cuando las gestiones se hubieran encargado o realizado fundándose prevalentemente en razones de confianza (y no de otro tipo, como la solvencia técnica o la especialización del abogado), y aun cuando las mismas no hubieran sido objeto de consideración específica a efectos retributivos, su indudable relación con la actividad conjunta del abogado en defensa de su cliente no permitiría considerarlas ajenas al ámbito objetivo sobre el que se proyecta el secreto profesional”*¹⁰⁶

¹⁰⁴ Auzitegi Goreneko Zibil Aretoko lehenengo atalak urtarrilaren 19an emaniko 11/2012 sententzia 141/2009 kasazio errekursoaren barnean

¹⁰⁵ Bitartekaritza prozeduraren inguruko konfidentzialtasun esparruaren inguruan, LÓPEZ-BARAJAS PEREA, Inmaculada “La efectividad de la justicia: Una (...)” *op.cit.* 170 orrialdea

¹⁰⁶ Auzitegi Gorenak Administrazioarekiko Auzien Auzitegiko 6. Atalak, 1051/1998 otsailaren 17ko sententzia

7.5. Lankargaren murrizketa

Auzitegi batean bitartekaritza funtzioa era egoki batean aplikatua eta era eraginkor batean eraginkorra izan dadin, beharrezkoa izango da unitate judicial propio baten sorrera bultzatzea, Auzitegien amankomuneko zerbitzutik kudeatua izango dena, edota Dekanato edo Auzitegiko Presidentziatik, zeinaren aurrean Justizia Administrazioaren Letratu bat edo Kudeatzaile bat egongo den. Unitate honen gabezia, eta jurisdikzio zibilean gertatzen den bezala, posible izan liteke bitartekarien zerrenda edo panel baten figuraren sorrera bultzatzea, Auzitegi eta Bitartekari profesionalen arteko zuzeneko harremanak existitu daitezten. Halere, aurretik baztertutako ideia baten aurrean gaudela esan beharra dago, bitartekaritza zerbitzu publikoa eskaintzen duten pertsona fisiko zein juridikoen bitartez eskainia egin behar dela ondorioztatu baitugu. Eta hein berean, guztiz alboratuta geratu beharko litzateke lan kargaren murrizketa bat bilatze aldera enpresa pribatu edota erakunde pribatuek, bitartekaritza funtzioak betetzea.

Laburbilduz, Epaitegi eta Auzitegietan lan kargaren areagotze bat gertatu daitekeela aldarrikatu behar dago, bitartekaritza prozedurak aurrera eramateaz gain, unean existitzen diren prozesu judizialekin aurrera egin behar baitute, printzipioz, eta gaur eguneko justizia administrazioak bizi duen egoeran dirudien bezala inolako baliabide fisiko zein teknikoren areagotzerik jaso gabe. Halere, seinlatu beharra dago bitartekaritza funtzioak izan dezakeen arrakasta mailaren araberakoa izango dela lan kargaren eraldatzea, organo juridikoen eta bertako gainerako operadore eta subjektuek bitartekaritza egoki bat eginez gero, alderdien nahi eta borondatea egokia den kasuetan, auzira jotzeko aukera alde batera utzi eta denbora eta baliabide fisiko zein ekonomikoen erabilera eraginkorrago bat egiteko ahalmena existitzen baita.

8. Ondorioak

1. Bitartekaritza gatazkak ebazteko **autokonposizio** bide bat da, **bitartekariaren neutralitatean** oinarritu egiten dena, zeina ez dagoen derrigortuta akordioen gaineko proposamenak egitera, nahiz eta bere borondate eta esperientzia profesionalari jarraiki hauek egiteko librea delarik. Bitartekaritza alderdiek beraien kabuz edota existitzen diren bestelako bide juridiko-administratiboei jarraiki akordiorik lortu ezin dutenean baina beraien **borondatea**, fede oneko **akordio eraikitzaile** bat lortzea denean erabili daitekeen metodo bat da.

2. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan judizio barneko bitartekaritza ezartzeak ez du berez “Justiziaren Krisia”-ren arazoa konponduko, eta ez da hori bere helburua izan behar. **Bitartekaritza baliabide bat da**, osagai bat, Justizia Administrazioak bere barnean dituen oztopoak gainditu ahal izateko, baina **ez da irtenbide edo konponbide bakarra** izan behar, bestelako interbentzio, ekintza eta neurri politiko zein legegileen artean topa daitekeen elementu bat baizik.
3. Bitartekaritzaren jurisdikzioarekiko **izaera osagarria eta ez ordezkoa ezta baztertzailea** dela aldarrikatu beharra dago, bitartekaritza prozedurara jo arren, bide jurisdikzionalera jotzeko aukera mantendu egingo delarik uneoro, bai akordioaren baliozkotasuna bermatu zein alderdietakoren baten borondatezkotasunari jarraiki auzira igarotzeko aukera mantenduko delarik. Honela babes judizial eraginkorraren alorrean kokatzen den bidea eskubide gisara kontsideratu egiten den heinean, herritarraren **aukeraketa libre**a izango delarik bertara jotzearen inguruko erabakia hartzea.
4. **Borondatezkotasunaren printzipioa** mantendu beharko da prozedura honen aplikazioa burutu ahal izateko, alderdien borondatearen autonomiari jarraiki sustatu beharko delarik bertara jotzearen erabakia. Hein honetan, zenbait esparrutan eztabaidaturiko inposizioaren aldeko autuak baztertu egin beharko dira, **gatazken ebazpen autokonpositiboko sistema** den bitartekaritzaren oinarritzko ezaugarriak guztiz lausotu eta urratu egingo zituelarik.
5. Bitartekaritzan, **AAPP eta Administratuaren** parte hartzea emango da **maila horizontal berean** jardungo dutelarik, alderdien arteko berdintasunean oinarritutako prozedura honetan, beraien abokatu zein ordezkari judizialekin batera epatuak izango direnak. Honela, orokorrean indartsuago eta boteretsuagoa den AAPP pribilejiodunak bere abantaila juridiko zein ekonomikoak bazter utzi egingo ditu, tratu-harreman hierarkikoa alde batera geratuko delarik.
6. Erabaki honek administrazioarekiko auzian existitzen den litigiositate handiari aurre egiteko baliagarria izan daitekeen arren, bere **helburu nagusia ez da epaileen lan karga murriztea**, ezta bide judizialaren barnean existitzen diren auzien areagotzea geldiaraztera bideratuta, baizik eta **gertutasuna**, interes pertsonalen errespetua, formalismoen murriztea zein erantzun posible bat jasotzen duen akordioa lortzeko azkartasuna besteak beste.

7. Bitartekaritza prozedurak honela, **kostuen eta denboraren eraginkortasunari** dagokionez emaitza hobekak eskainiko dizkie alderdiei. **Formalismo gutxiagoko**, baina akordioaren aitortze eta betearazpenari dagokionez bide judicialak eskaintzen dituen **berme eta babes berdinak** eskaintzen dituen heinean, prozesu partehartzaile egoki bat dela ondorioztatu beharra daukagu. Honela, gatazkaren konponbidera heltzea bizkortu egiten da, lorturiko akordioaren gaineko inplikazio eta sentikortasun handiagoa erdietsiko direlarik.
8. **Gizarteak ezarritako behar eta nahiei jarraiki** garatu beharko da bitartekaritza, eta guztiz garatuz doan justiziarekiko pertzepzioaren aldatetari aurre egiteko, behar hauek izango dira bitartekaritza prozedurari dagokion erreforma bai legezkoak zein sozialak izan beharreko **erritmoa finkatuko** duten elementuak.
9. Bitartekaritzari dagokionez **araudi espezifiko baten sorrera sustatu** behar da, zibil eta merkataritza alorrean existitzen den bezala, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikziora bideratutako arau sektoriala sortu behar da, segurtasun juridikoa bermatuko duena. Hein honetan bultzatu beharreko araudi honek, trantsakziora bideratu daitezkeen elementu diskrezionalen zerrenda ofizial bat sortzeaz gain, parte hartu beharreko subjektuak, momentu prozesala, akordioaren ondorioak, zein bestelako bitartekaritza akordiotik eratorri daitezkeen elementuak barneratu beharko ditu, **protokoloetatik haratago doana eta esperientzia pilotuetatik lorturiko datu eta beharrei jarraiki**.
10. Gomendagarria dirudi bitartekaritza **sistema publikoa, instituzionalizatua eta egoitza judizialetan errotutakoa** izan behar dela, Justizia Administrazioak bere barnean daukan organigrama zein antolakuntzaz baliatuz, bai epaitegi zein auzitegiez eta bestelako gatazken ebazpena bilatzeko existitzen diren atal eta sekzio ezberdinen erabilera egin ahal izateko.
11. **Unitate judicial bereizien sorreraren** alde egingo da funtsean, justizia **administrazioaren letratuen** (aurretiazko idazkari judicialak zirenak) **gidaturiko** eta bere kontrolpean egindakoa. Era berean, auziaz ezagutzen duen epaileak gaur egunean hartzen duen funtzioa alde batera utzi eta jurisdikzio sozialean gertatzen den bezala administrazioaren letratuak gidaturiko borondatezko bitartekaritza prozeduraren alde egitea komenigarria izango litzateke.

12. **Justizia Administrazioaren letratuek** (aurretiazko idazkari judizialek), halaber, **bitartekaritzara bideraturiko formakuntza berezia** jaso beharko dute, lanbide profesionalera heltzeko igaro beharreko oposaketa-lehiaketatik kanpo kokaturiko gaia den administrazioarekiko auzien jurisdikzioko bitartekaritza prozeduran murgildu eta honetan aginte makila, edo hobeto esanda, zuzendari makila eskuratu egiten dutelako, bai prozedurari dagokionez zein gaien lanketa sakon bat beharrezkoa izango dutelarik.
13. **Epaitegi eta auzitegietan bertan**, egitura judizialaren barnean Bitartekaritza Unitate batzuen sorrera bultzatuko litzateke, justizia administrazioaren letratu batek gidatutakoa. Zerbitzu honek **doako funtzioak** burutuko lituzke, doako justizia izapidetzetatik haratago kokatuko litzatekeena, bide judizialetik herritarrak urruntzen dituen beldurretako bat ezabatuz, **betiere fede on batekin jardunez** bertaratzen diren alderdien kasuan, fede txarrik edota negoziaketan era aktibo batean parte hartzeko nahirik edo borondaterik ez duten alderdien kasuan kostetan kondena bat jasotzeko aukera zabalik geratzen delarik.
14. **Justizia Administrazioaren Letratuak** egikaritutako bitartekaritza prozesuak **konfidentzialtasun arauetz babestua geratuko** da eta prozesuari loturiko epeak eten egingo dituen akordioa lortzera bitartean, honen indar **lotesle eta homologazioa** burutzeko barne prozedurak ere zehaztu beharko dira. Hein honetan, Justizia Administrazioaren Letratuek zuzenbidean adituak diren lez
15. **Momentu prozesal** egokiari dagokionez, bitartekaritzara jo ahal izateko une prozesal posibleen zehaztea burutu beharko du beharrezkoa den araudiak, nahiz eta berez **demanda tarteratu eta erantzuna jasotzen denetik sententziaren exekuziora arteko** tartean bideratu daitekela uste arren, horren zehaztapena egin beharko da aurretik azalduriko sententzia kontrajarriak saihestu ahal izateko.
16. **Eragile juridiko guztien parte hartze proaktiboa** eta borondatezko jarrera bat bultzatzea ezinbesteko elementutzat kontsideratu beharra daukagu, **formakuntza berezia eta publizitatearen** bidezko ezaguera zabaltzean oinarrituta, prozedurarekiko existitu daitezkeen mesfidantzak garaitzeko helburuarekin. Bereziki, AAPPen artean formakuntza eta sensibilizazio kanpainak bultzatzea egokia izango litzateke, bitartekaritzak dakartzan onurak adieraziz, zerbitzu honek irudian, gardentasunean eta zerbitzuen kalitatearen hobekuntzak izan ditzakeen hobekuntzak azpimarratuz.

17. Erakunde publikoen **ordezkaritzapean** jarduten duten subjektu fisikoek bitartekaritza akordio batera heldu ahal izateko **baimen eta aurretiazko autorizazioaren malgutze** bat sustatu beharra dago, gaur egunean araudiak barneraturiko baimenaren lorpenaren prozedura erraztuz, funtzionario eta gaiarekiko eskuduna den pertsonaren funtzio eta balioztapen bat gertatu beharko delarik. Ildo honetatik ezinbestekoa da auzi bakoitzaren aurrean AAPPen ordezkaritzapean jardun dezaketen funtzionario zein bestelako pertsona fisiko zein juridiko posibleen zehaztapena egikaritzea, kasuan kasura, eta jorratu beharreko gaiaren arabera eskuduna izan daitekeen organoa ezberdina izanda ere, **botere delegazioak** burutzeko aukera eskaini beharko delarik.
18. Bitartekaritzara bideratu daitezkeen elementu objektiboei dagokienez, ezinbestekoa izango da interes orokorra eta administrazio publiko ezberdinen ahalmen diskrezionalak kontuan hartuz, ahalmen arautuekin talka zuzena jasango ez duten **gai zerrenda bat ezartzea**. Horretarako gai zerrenda baztertzaila baten aldeko apustua egin beharrean, zeinetan bitartekaritza posible ez den kasuan zerrendatuko ziren, **bitartekaritza posible izan daitekeen gaien** zein hauei loturiko zenbateko eta bestelako ezaugarriak barnebiltzen dituen **zerrenda** bat ezarri beharko da. Bertan, **argi eta garbi** geratu beharko dira administrazioarekiko jurisdikzioaren barnean kokatu egiten garen heinean bitartekaritzara bideratuak izan daitezkeen gaiak, **definituz eta kontzeptu juridiko zehaztugabeetatik urrunduz, segurtasun juridiko oso** bat bermatu egin beharko delarik.
19. Bitartekaritza kasu partikular bati erantzun eta konponbidea emateko baliabide juridikoa izan arren, indibidualizazio honen erabileratik eratorritako ondorioak **ez dira zertan herritar oren diskriminazio ekintza gisara ulertu behar**, prozesu judizialaren amaieran gertatzen den bezala, kasuan kasuko erabaki ezberdinak kontsideratzeko aukera existitu egiten den heinean, gutxieneko arau eta prozeduraren egituraketa garden eta zuzen bat burutzeko neurriak hartu beharko dira honela, kasuan kasu gerta daitezkeen edonolako arbitrariotasunetik urrundu ahal izateko, prozeduran parte hartzen duen subjektu oren inpartzialtasun eta independentzia bermatu ahal izateko BJLOak berak aurreikusten dituen **abstentzio eta errekusazio kausak** barneratuko direlarik justizia administrazioaren letratuen jardunera.
20. Hasiara batean sortu beharreko araudi berriari jarraiki aurrera eraman daitezkeen bitartekaritza prozedura ezberdinen **aldizkako kontrol eta azterketak** egikaritzea

ezinbestekoa izango da. Honela, eragile juridiko zein auzilarien partez izandako jarrera eta aburuak zeintzuk izan diren ulertu zein aztertuz, prozeduraren txertatze eta hedapenean existitu daitezkeen **hobetze puntuei** erantzun egoki bat eskaini ahal izateko, prozeduran bertan legezko eta praktikako **moldaerak ezarriz**.

21. Gaur egunean badirudi gizarteak zein eragile juridikoek orokorrean ez direla administrazioarekiko auzien jurisdikzioan bertan bitartekaritzak izan dezakeen **potentzialitateaz**. Eta ildo honetatik, prozedurak berak barnebildutako **berezko mugak beti** existitu egingo direla kontuan hartuta, beharrezkoa da gainerako gatazkak ebazteko bideetatik bereiztea eta izaera juridiko propio bat eskaintzea, honela, justiziaren modernizazioa erdietsi eta eraginkortasun handieneko baliabide gisako prozedura bat dela ulertua izan arte.

BIBLIOGRAFIA

- AGUDO GONZALEZ, Jorge (Zuzendaria) “Control administrativo y justicia administrativa”, Instituto Nacional de Administración Pública, 2016. (Colección INNAP INVESTIGA. Serie INNOVACION ADMINISTRATIVA)
- ALASTRUEY GRACIA, Raquel (koordinatzailea), “Guía para la práctica de la mediación intrajudicial”, Consejo General del Poder Judicial (2016)
- ALONSO TIMÓN, Antonio José, “Mecanismos ex ante, durante y ex post de la actuación administrativa para la reducción de la litigiosidad entre los entes públicos y los ciudadanos” Congreso UNIJES 2013, Las medidas preventivas de conflictos jurídicos en contextos económicos inestables, ABEL LUCH, Xabier (koordinatzailea), 2014, ISBN: 978-84-942709-1-8, 569-576 orrialdeak.
- ALVAREZ SACRISTAN, Isidoro, “*La mediación civil y mercantil: Comentarios y Formularios*” Gomylex, Bilbo, 2012. urtea, 85. orrialdea
- AVILÉS NAVARRO, María “La mediación en los diferentes ordenes jurisdiccionales” *Diario la Ley*, 7704 zenbakia, Seccion Tribuna, 2011ko irailaren 28a, 8. orrialdea
- AVILÉS NAVARRO, Maria “*La mediación intrajudicial en el orden contencioso-administrativo: evolución hacia una nueva realidad*” Universidad Carlos III, 2014. urtea, 257. orrialdea
- BELANDO GARÍN, Beatriz “*La mediación administrativa desde la perspectiva de los letrados*” Anuario de Justicia Alternativa Número 13, JM Bosch Editor, 2015. urtea, 169-194 Orrialdeak
- BELANDO GARÍN, Beatriz “La mediación administrativa. Entre el Derecho a una buena administración y la renovación de la justicia”, AGUDO GONZALEZ, Jorge (zuzendaria), *Control administrativo y justicia administrativa*, INAP, 2016. urtea 203-220. orrialdeak
- BELANDO GARÍN, Beatriz, “La mediación administrativa: Una realidad Jurídica” LOPEZ RAMÓN, Fernando (Zuzendaria) *Las prestaciones patrimoniales públicas no tributarias y la resolución extrajudicial de conflictos*, INAP, Madrid, 2015. urtea, 265-273 orrialdeak.
- BELTRÁN AGUIRRE, Jose Luis “Una apuesta por la mediación administrativa”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 3/2014 zenbakia, Zizur Txikia, 2014. urtea
- Bitartekaritza Judizialeko Zerbitzua (BJZ), “Familia Bitartekaritza 2017eko memoria” Eusko Jaurlaritza 2018. urtea.
- Bitartekaritza Judizialeko Zerbitzua (BJZ), “*Zigor Bitartekaritza 2017eko memoria*” Eusko Jaurlaritza 2018. urtea.
- BLANCO CARRASCO, Marta “*Mediación y sistemas alternativos de resolución de conflictos: una vision juridica*” Reus editoriala, Madril, 2009. urtea, 11. orrialdea
- BOOTELLO FERNANDEZ, Susana, “*Hacia la mediación en vía administrativa. Límites de la administración*” Dykinson, 2017. urtea, 328. orrialdea
- BURZACO SAMPER, María “Los métodos alternativos de resolución de conflictos en el derecho administrativo. Especial referencia a la mediación intrajudicial”, Capitulo IX “Medidas alternativas de resolución de conflictos en el ámbito del derecho administrativo” ABEL LUCH, Xabier (koordinatzailea) Congreso Unijes 2013, *Las medidas preventivas de conflictos jurídicos en contextos económicos inestables*, , 2014. Urtea, 583. orrialdea.
- BUSTILLO BOLADO, Roberto O. “Derecho administrativo español y solución extrajudicial de conflictos: entre el (razonablemente hermoso) mito y la (menos edificante de lo deseable) realidad” LOPEZ RAMON, Fernando (Koordinatzailea) *Las prestaciones patrimoniales públicas no tributarias y la resolución extrajudicial de conflictos*, INAP, 2015. urtea, Madril, 235-265. orrialdeak
- CARBALLO MARTINEZ, Gerardo “*La mediación administrativa y el defensor del pueblo*” Thomson Aranzadi, Zizur Txikia, 2008. urtea, 171. orrialdea

- CARBALLO MARTINEZ, Gerardo “La mediación administrativa. Algunas propuestas para su implementación en el régimen jurídico administrativo y procesal” *Revista Jurídica de Castilla y León*, 29. Zenbakia, 2013. urtea, 1-22 orrialdeak
- Centre d’Estudis Jurídics i Formació Especialitzada, “PERFIL PROFESSIONAL DEL SECRETARI JUDICIAL DE CATALUNYA”, *Generalitat de Catalunya*, 2007ko abendua, 1-36 orrialdeak
- CGPJ “*Datos resultantes de la mediación intrajudicial (año 2015)*” Consejo General del Poder Judicial, 1-9 orrialdeak 2016. urtea
- DESDENTADO DAROCA, Eva “*Los problemas del control judicial de la discrecionalidad técnica (Un estudio crítico de la jurisprudencia)*” Cuadernos Cívitas, 1997. urtea, Madril, 30. orrialdea
- DOMINGUEZ BARRAGÁN, María Luisa “La mediación en la ejecución de sentencias contencioso-administrativas” Dykinson, 2017. urtea, 398-410 orrialdeak
- DOMINGUEZ MARTIN, Mónica, “El sistema de justicia administrativa y la incidencia de los mecanismos administrativos de control en la jurisdicción contencioso-administrativa: reformas y necesidades” AGUDO GONZALEZ, Jorge (zuzendaria) *Control administrativo y Justicia Administrativa*, INAP, 2016. urtea, 96. orrialdeak
- DORADO PICÓN, Antonio “El arbitraje y la mediación en España” *Revista Jurídica de Castilla y León*, 29. Zenbakia, 2013ko urtarrila,
- ESCARTIN ESCUDÉ, Víctor, “Los nuevos mecanismos de control y resolución extrajudicial de conflictos en derecho administrativo. En especial: el arbitraje administrativo” AGUDO GONZALEZ, Jorge (zuzendaria), *Control administrativo y justicia administrativa*, INAP, 2016. urtea, 179. orrialdea
- ESCOBAR ROCA, Guillermo “*Defensorías del Pueblo en Iberoamérica*” Thomson Aranzadi, 2008. urtea, Zizur Txikia, 188. orrialdea
- ESPARZA LEIBAR, Iñaki “El modelo clásico de poder judicial como elemento indispensable para la consecución de la justicia en la resolución de conflictos. La contribución de la RAC/ADR” ESTANKONA ETXEBARRIA, Katixa; ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko (Zuzendariak) *La resolución alternativa de conflictos*, *Segunda edición de las Jornadas “Justicia con ojos de mujer” celebradas en la Facultad de Derecho de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea el 26 de noviembre de 2009*, EHU Argitalpen Zerbitzua, 2010. urtea, 53-74. Orrialdeak
- ETXEBERRIA GURIDI, José Francisco “Últimas novedades respecto de la mediación en el orden contencioso-administrativo” BARONA VILAR, Silvia (Koordinatzailea) *Justicia Civil y Penal en la era global*, 2017. Urtea, 293-320. Orrialdeak
- ETXEBARRIA GURIDI, José Francisco “La mediación en la jurisdicción contencioso-administrativa” BARONA VILAR, Silvia (Koordinatzailea) *Mediación, arbitraje y jurisdicción en el actual paradigma de la justicia*, Thomson Reuters-Civitas, 2016. Urtea, 331-352. Orrialdeak
- FABREGA RUIZ, Cristóbal Francisco, HEREDIA PUENTE, Mercedes “La Mediación Intrajudicial. Una forma de participación del ciudadano en la justicia”, *Bajo Estrados Revista del Colegio de Abogados de Jaén*, 2010. 1-8 orrialdeak
- FERNANDEZ DE BENITO, M.^a Jesús, “Seminario sobre mediación contencioso-administrativa: soluciones prácticas a planteamientos masivos de recursos/unificación de criterios”, *ICAV*, 28 de enero de 2011
- FREIRE PÉREZ, Rosa María, “*Conferencia inaugural del Curso de Especialización en Mediación Civil y Mercantil, organizado por el ICACOR*”, Ilustre Colegio Provincial de Abogados de A Coruña, A Coruña, 2013. urtea.
- GARCIA MONTORO, Lourdes “*El resquicio de la mediación intrajudicial como última oportunidad de alcanzar una solución amistosa al litigio*”, Centro de Estudios de Consumo – Universidad de Castilla La Mancha, 2016. urtea.

- GARCIA VICARIO, Concepción, CARBALLO MARTINEZ, Gerardo (zuzendariak), “Seminario – La mediación en la jurisdicción contencioso-administrativa”, *Consejo General del Poder Judicial*, 2013ko Maiatza, 1-4 orrialdeak
- GARCIA VICARIO, María Concepción “La mediación como sistema alternativo y complementario de resolución de conflictos en la jurisdicción contencioso-administrativa” *Revista Juridica de Castilla y Leon*, 29. Zenbakia, 2013. urtea, 1-27. orrialdeak.
- GARRIDO SOLER, Salvador “Mediación en conflictos y abogacía. Propuesta para su desarrollo mediante el análisis pragmático de las dimensiones narrativa y argumentativa del discurso” Tesis Doctoral, Universidad de Jaén (2016)
- GIL-ROBLES, Álvaro “La mediación administrativa como alternativa”, *Revista del Poder Judicial*, 94. Zenbakia, 2012. urtea, 40-43 orrialdeak
- GOLLONET TERUEL, Luis Ángel, “*La Mediación en el proceso contencioso administrativo*” Dykinson, 2017. urtea, 311-320 orrialdeak,
- GONZALEZ MONTES, José Luís “*El estado actual de la justicia administrativa: problemas y soluciones*” Universidade da Coruña, 1998. urtea, 31-45. orrialdeak
- HUERGO LORA, Alejandro “*La resolución extrajudicial de conflictos en el derecho administrativo*”, Publicaciones del Real Colegio de España, 2000. Studia Albornotiana LXXXV, 2000. urtea.
- HUERGO LORA, Alejandro “La resolución extrajudicial de conflictos de las administraciones públicas en 2015” LOPEZ RAMON, Fernando (Koordinatzailea) *Las prestaciones patrimoniales públicas no tributarias y la resolución extrajudicial de conflictos*, INAP, 2015. urtea, Madril, 213-235. Orrialdeak
- HUERGO LORA, Alejandro “*Los medios de resolución extrajudicial de conflictos en el Derecho Administrativo*” Circulo de Derecho Administrativo, 2009. Urtea, 7. Zenbakia, 93-113. Orrialdeak
- IGLESIAS SEVILLANO, “La Mediación en los recursos administrativos” Dykinson, 2017. urtea, 347-362 orrialdeak, ISBN: 978-84-9148-278-9
- JIMENEZ MORILLAS, Bienvenido “Secretario Judicial” *Revista Mediara – Mediación y Arbitraje de Andalucía*, I. Zenbakia, 2012ko iraila, 22. erreportaia
- LOPEZ-BARAJAS PEREA, Inmaculada “La efectividad de la justicia: Una exigencia constitucional (los nuevos sistemas alternativos de resolución de conflictos)”, *UNED – Revista de Derecho Político*, 85. Zenbakia, 2012ko iraila-abendua, 141-170 orrialdeak.
- LOPEZ-MODEL BASCONES, Jesús “*Mediación judicial en el contencioso administrativo*” Consejo General de la Abogacía Española, Agenda de Formación, 2012. urtea
- MARTIN DIZ, Fernando “Retos de la mediación como complemento al proceso judicial en una sociedad globalizada” NEIRA PENA, Ana (Koordinatzailea) *Actas del IV Congreso Gallego de Derecho Procesal (I Internacional)*, Coruña, 2 y 3 de junio de 2011, 2012. urtea, 131-146 Orrialdeak
- MASUCCI, Alfonso “El procedimiento de mediación como medio alternativo de resolución de litigios en el Derecho Administrativo: esbozo de las experiencias francesa, alemana e inglesa” *Revista de Administración Pública*, 178. Zenbakia, 2009. urtea. 9-35. orrialdeak
- MASUCCI, Alfonso “Formación y evolución del Derecho Administrativo en Francia y Alemania” *Revista de Administración Pública*, 184. Zenbakia urtarrila-apirila, 2011. urtea, 9-39. orrialdea
- MEILÁN GIL, José Luis, GARCIA PEREZ, Marta “Cuestiones actuales de la justicia administrativa en España”, Instituto de Investigaciones Jurídicas, Universidad Nacional Autónoma de México, 2013, 423-465.
- MERELLES PÉREZ, Manuel “Nuevas fórmulas para fomentar la mediación” *Diario La Ley*, 8646 zenbakia, Tribuna atala, 2015eko azaroaren 16a
- MOLINA GIMENEZ, Andrés “Los defensores del pueblo en España: Reflexiones sobre su función y utilidad”, *Revista de la Administración Pública*, 199. Zenbakia, 2016. Urteko urtarrila-apirila, 327-362 orrialdeak.

- NIKIFOROS DIAMANDOUROS, Paraskevas “Derecho administrativo de la UE: Perspectiva del defensor del pueblo europeo”, *Revista de la Administración Pública*, 191. Zenbakia, 2013. Urteko maiatza-abuztua, 367-381 orrialdeak
- ORDÓÑEZ SOLIS, David “La directiva sobre mediación y sus efectos en el Derecho español: “fuera de los tribunales también hay justicia”, *Diario La Ley*, 7165. Zenbakia, 2009ko apirilaren 30a.
- PELAYO LAVÍN, Marta “*La mediación como vía complementaria de resolución de conflictos*” Universidad de Salamanca, 2011. urtea, 184. orrialdea
- PONCE SOLÉ, Juli, “La participación ciudadana y la negociación normativa en el marco del movimiento internacional de «better» o «smart regulation» y su impacto en España” Monografía Negociación de Normas y Lobbies, Aranzadi Editoriala, 2015. Urteko Urtarrila.
- RIPOL, Ignacio “*El nuevo Registro de Mediadores*”, *Newsletter abogacía*, 62. Zenbakia, 2014. urtea, 4. orrialdea
- RODRIGUES, Catarina “La mediación. ¿Una respuesta al nuevo paradigma del Derecho?” *Revista de Derecho (UCUDAL)*, 13. urtea, 15. Zenbakia, 2017ko uztaila, 244-256. orrialdeak
- RODRIGUEZ ARANA, Jaime, “*La mediación en el Derecho Administrativo*” AIDA- Asociación internacional de Derecho administrativo, 2010. urtea, 8. Zenbakia, 453-486 orrialdeak
- RODRIGUEZ DE SANTIAGO, José María “*La ponderación de bienes e interés en el derecho administrativo*”, Marcial Pons, 2000. urtea, Bartzelona, 79. orrialdea
- ROJAS POZO, Casiano “La mediación administrativa” *Icade – Revista Cuatrimestral de las Facultades de Derecho y Ciencias Económicas y Empresariales*, 98. Zenbakia, 2016. Urteko maiatza-abuztua, 183-200. orrialdea
- SAN CRISTOBAL REALES, Susana “Sistemas alternativos de resolución de conflictos: negociación, conciliación, mediación, arbitraje, en el ámbito civil y mercantil” *Anuario Jurídico y Económico Escurialense*, 2013. urtea, 39-62. orrialdeak
- SANCHEZ GARCIA, Alfonso, “*La oportunidad de la mediación administrativa como respuesta a las necesidades del sistema de resolución de conflictos entre administración y administrado*” Dykinson, 2017. urtea, 374. orrialdea,
- SANTAMARIA PASTOR, Juan Alfonso “*La Ley Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. Comentario, Iustel*” 2010. urtea, 778-779. orrialdea
- TORNOS MAS, Joaquín “Administrative Justice y Administrative Tribunal en el Reino Unido. Un modelo a tener en cuenta” AGUDO GONZALEZ, Jorge (zuzendaria), *Control administrativo y Justicia Administrativa*, INAP, 2016. urtea
- TORNOS MAS, Joaquín, “Medios alternativos de resolución de conflictos en el derecho administrativo” *Anuario de Justicia Alternativa*, 14. Zenbakia, 2017. urtea, 109-117. orrialdeak.
- VIGUER SOLER, Pedro Luis “Algunas propuestas para la reducción de la litigiosidad y la agilización de los procedimientos”, *Wolters Kluwer Editoriala, Practica de Tribunales*, 74. Zenbakia, Sección tribuna libre, 2010eko Iraila
- ZAFRA ESPINONSA DE LOS MONTEROS, Rocío “El papel del secretario judicial en la conciliación laboral tras la reforma de la LPL” *Revista internacional de estudios de derecho procesal y arbitraje – RIEDPA*, 3. Zenbakia, 2010. urtea

JURISPRUDENTZIA

- Konstituzio Auzitegiko, KA-ko 60/1989 martxoaren 16ko sententzia 963/1987 babes helegitearen ingurukoa
- Konstituzio Auzitegiko, KA-ko 162/1989 urriaren 16ko sententzia 1420/1987 babes helegitearen baitan
- Konstituzio Auzitegiko, KA-ko 217/1991 azaroaren 14ko sententzia 1850/1988 babes helegitearen barnean emanikoan;
- Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Auzitegiko 6. Atalak, 1051/1998 otsailaren 17ko sententzia
- 2002ko urtarrilaren 30eko Errioxako JAN Administrazioarekiko Auzien Aretokak, 81/2001 apelazio helegitean ebatzitako autoa
- Gaztela Leongo JANeko, Burgoseko egoitzako Administrazioarekiko Auzien Aretoko 2. Atalak, maiatzaren 31ko 68/2002 sententzia, 33/2002 apelazio errekursoaren barnekoa
- 2003ko apirilaren 7ko Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Aretoko 7. Atalak, 1197/2000 kasazio helegitean ebatzitako autoa
- Kataluniako JAN-eko Administrazioarekiko Auzien Aretoko 3. Atalak, urtarrilaren 22ko 56/2008 sententzia, 60/2007 apelazio errekursoaren barnean
- Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien aretoko 5. Atalak maiatzaren 28an emaniko 2281/2008 sententzian, 579/2006 errekursopean
- Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko auzien aretoko bosgarren atalak emaniko 7588/2010 ekainaren 4ko autua dugu 5382/2008 kasazio errekursoaren ingurukoa
- Auzitegi Goreneko Zibil Aretoko lehenengo atalak urtarrilaren 19an emaniko 11/2012 sententzia 141/2009 kasazio errekursoaren barnean
- 2009ko apirilaren 16ko Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Aretoko 5. Atalak, 2826/2007 kasazio helegitean ebatzitako autoan